



Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko  
harremana Nafarroan

JOSU ALBERO

---

*Historia bizia*

Gotzon Garateri elkarrizketa

HASIER ETXEBERRIA

*Egunen gurpilean*

JON BENITO • PABLO SUBERBIOLA • PATXI GAZTELUMENDI

# JAKiN

*149*

uztaila  
abuztua  
2005




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

*Aurkibidea*



*Zenbaki honetan*

---

► 7

*Gaiak*

---

Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko  
harremana Nafarroan ► 11  
JOSU ALBERO

*Historia bizia*

---

Gotzon Garateri elkarrizketa ► 29  
HASIER ETXEBERRIA

*Egunen gurpilean*

---

JON BENITO • PABLO SUBERBIOLA • PATXI GAZTELUMENDI ► 111

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)


---

2005eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## Summary



## The relationship between political nationalism and language in Navarre

The biologist Josu Albero analyses the implementation of Basque political nationalism in Navarre using data from the last elections. The author attempts to show that there exists a clear correlation between Basque nationalism as a force and the knowledge of the Basque language in every town and region in Navarre. ► JOSU ALBERO




## Interview with Gotzon Garate

The journalist and writer Hasier Etxeberria conducts a lengthy interview with the writer and Basque language scholar Gotzon Garate, in a new issue of the series *Living History*. The interview takes an in-depth look at Garate's career: his childhood in Elgoibar; his incorporation into the Jesuit Order; his stays as a student in Loyola, Zaragoza, Innsbruck and Freiburg; his interest in Marxism; his ideas about religion, Jesus Christ, Christianity and other religions; his love of Basque language and culture and his unceasing devotion to studying the language; his academic work and the relationship with many figures from Basque culture; his lengthy stays overseas; his literary output and his view of Basque literature; and his point of view on the political situation in the Basque Country and the rest of the world. ► HASIER ETXEBERRIA



## News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Pablo Suberbiola, Patxi Gaztelumendi and Jon Benito. ► *Various Authors*



*e*skuetan duzun hau bigarren aldiko 149. zenbakia da eta 2005. urteko laugarrena.

Zenbaki honek ez du gai nagusirik jorratzen. Horren ordeztan, *Gaiak* eta *Historia Bizia* sailek osatzen dute zenbakia. *Gaiak* sailean, abertzaletasunak eta euskarak Nafarroan duten harremanari buruzko Josu Alberoren artikulua dator, eta *Historia Bizia* sailean Gotzon Garateri egindako elkarrizketa.

Lehenengo artikuluan, beraz, Josu Alberok Nafarroan abertzaletasun politikoak eta euskarak duten hedapenaren arteko harremana aztertzen du. Horretarako, azken urteotako Foru Hauteskundeetako datuetan oinarritzen da. Izan ere, Alberok frogatzen saiatzen denez, korrelazio nabarmena dago abertzaletasun politikoak eta euskararen ezagutzak Nafarroako herri eta eskualde bakoitzean duten indarraren artean.


*Historia Bizia* sailean Gotzon Garate idazle eta euskararen ikertzailea elkarrizketatu du Hasier Etxeberria kazetari eta idazleak. Garateren bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzarora Elgoibarren; jesuiten ordenan sarrera; ikasle gisa Loiolan, Zaragozan, Innsbrucken eta Friburgon egindako egonaldiak; marxismoarekiko interesa eta horren azterketa; erlijioari, kristautasunari eta gainerako erlijioei buruzko iritzia; euskara eta euskal kulturarekiko maitasun eta atxikimendua; euskararen lanketa eta azterketari eskainitako ahalegin etengabea; atzerrian egindako egonaldi luzeetan ikusi eta

ikasitakoa; bere literatur ekoizpena eta euskal literaturari buruzko ikuspegia; munduko eta Euskal Herriko egoera politikoari buruzko iritzia... Azken batean, bere bizitza eta lanari buruzko testigantza jasotzen du *Historia Bizia* sailaren bederatzigarren emanaldi honek, aurrekoetan Piarres Xarriton, Federico Krutwig, Juan San Martin, Jesus Atxa, Antonio Zavala, Jean Louis Davant, Xabier Gereño eta Iñaki Beobiderenak ekarri ondoren.

*Egunen gurpilean* saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak egin dituzte Jon Benitok Literaturan, Pablo Suberbiolak Soziolinguistikan eta Patxi Gaztelumendik Telepolis atalean.¶



*Gaiak*



JOSU ALBERO

Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren  
arteko harremana Nafarroan

*11*

---

# Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko harremana Nafarroan



J O S U   A L B E R O



## Sarrera

Egia al da hain euskalduna den Leitza herrian UPNk irabazi zuela azken hauteskundeetan? Zenbat boto lortzen dute zerrenda abertzaleek Tuteran? Ba al da harremanik hizkuntza eta boto-norabidearen artean?

Abertzaletasuna Nafarroan Foru Hauteskundeetan nola islatzen den azaldu nahi dut artikulu honetan. Abertzaletasuna eta Nafarroa, jende askoren aurreiritziak eragiten dituzten bi hitzak, topikoz josita dauden bi kontzeptuak; lan honetan ikusiko dugunez, baina, Nafarroako paisaia politikoaz mintzatzerakoan ezin da inondik inora simplekerietan edo azalderietan erori, nafar gizartea —abertzaletasunari dagokionez— oso anitza baita. Aniztasun hori, gero aztertuko dugunez, geografikoki islatzen da oso ongi ere: Iparraldetik Hegoalderaino anitz aldatzen baita boto abertzalearen kopurua.

Argi gera dadila hasieratik, beraz, ez dela zuzena eta zilegia Nafarroa bloke monolitiko bat bezala aurkeztea, hainbat politikarik egin ohi duten moduan. Eta ez baka-

---

► **Josu Albero** biologoa da.

rrik nafar gizartearen barnean —gizarte guztietan gertatzen denaren antzera— iritzi politiko desberdinak daudelako, nafar lurraldeen artean izugarrizko aldeak agertzen direlako baizik. Paisaiaren aldetik Foru Erkidegoak dituen kontrasteak denek onartzen badituzte ere, ez da gauza bera gertatzen dagoen aniztasun politikoarekin; Nafarroa lehor eta Nafarroa hezearen arteko diferentziak mapa politikoan ere agerian geratzen baitira, Nafarroa kolore bakarreko eta uniforme nahi dutenen zoritxarrerako.

Artikulu honek ez du ikertzen inondik ere Nafarroako sentimendu euskaldunaren hedapena. Abertzaletasun politikoa du ikergai. Sarritan, EAetik bereziki, bi hitz horiek nahasten dira: euskaltasuna eta abertzaletasuna. Nafarroako kasuan, ostera, batzuetan lotuta egon arren bertze kasutan ez dira elkarrekin joaten. Garbiago esanda: abertzaletasun politikoaren ordezkari-tza hauteskunde hauteskunde % 25etik gertu baldin bada, euskaltasuna handiagoa da nafar gizartean: % 45 inguruan dabil, Nafar Gobernuak egindako inkestek adierazten dutenez<sup>1</sup>. Nafar askok abertzale ez dutela bozkatzen eta euskalduntzat jotzen dutela haien burua erran nahi du horrek.

Bertze maila batean bada ere, gauza bera gertatzen da EAEn edo Galizian, kasu: euskaldun edo galiziar sentitze-ko ez da derrigorrez abertzale bozkatu behar.

## Nafarroako mapa politikoa

Jarraitu aurretik, argibide batzuk emanen ditut lan honen oinarriak zeintzuk izan diren azaltzeko:

- Artikulu honetan agertzen diren datuak Nafarroako Foru Hauteskundeetakoak dira. Ez dira kontuan hartu Udal Hauteskundeetakoak, Espainiako Kongresurako Hauteskundeetakoak edota Europako Parlamenturako Hauteskundeetakoak

- 1987. urtetik 2003. urtera egindako Foru Hauteskunde-  
deen emaitzak ikertu dira. Ez dira aintzakotzat hartu 1995.  
urteko emaitzak, eskura izan ez ditugulako. Guztira, lau  
hauteskunde ezberdinetako emaitzak aztertu dira, beraz.

- Ikerketa honek alderdi abertzalearen emaitzak azalduko ditu. Irizpide subjektiboa izan arren, «abertzaletzat» jo diren alderdi politikoak honako hauek dira, batzuk da-goeneko desagertuta: Euskadiko Ezkerra (EE), Eusko Alkartasuna (EA), Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV), Herri Batasuna (HB), Batzarre, Euskal Herritarrok (EH) eta Aralar.

- 2003. urteko emaitzei dagokienez, kontuan hartu dira boto baliogabeak edo boto nuluak, jakina baita indar politiko abertzale batek eragotzita zeukala bere aurkezpena eta boto baliogabeen aldeko deia egin zuela. Indar politiko honi zegozkion botoak kalkulatzeko, urte honetako boto baliogabeen % 90 eman dizkiot, hori izan baita gutxi gorabehera botu nuluen hazkundera hauteskunde hauetan.

- Lan honetan ez dira Nafarroa osoko herrien datuak ikertu, 1.000 biztanle baino gehiago duten herrienak baizik. Kopuru honetara iristen ez diren zenbait herri, hala ere, kontuan hartu dira.

- Oro har, *Nafarroa osoan boto abertzalearen kopurua % 25 inguruan dabil* aztertutako hauteskundeetan. Hauteskunderaz hauteskunde ez dago aldaketa handirik ehuneko honetan, ez Nafarroa mailan eta ezta herri edo udal mailan ere<sup>2</sup>.

- Bertze erreferentzia batzuk ezagutzekotan, hona hemen alderdi abertzaleek lortzen dituzten emaitzak bertze herrialde batzuetan: Ipar Euskal Herrian, % 10; EAEn, % 55; Katalunian, % 45; Galizian, % 25; Valentzian, % 3.

Aipatutako argibideak kontuan hartuta, I. Eranskinean Nafarroako herrietan alderdi abertzaleek lortu dituzten emaitzak agertzen dira, ehunekotan adierazita. Ikusten denez, herri askotan alderdi abertzaleen botoak ez dira % 10era iristen, baina beste askotan ere % 50 gainditzen dute erraz. Horrek ederki islatzen du lehen aipatu dugun aniztasun politikoa eta nazionala.

Emaitza horiek aintzakotzat hartuz sailkapen bat egin zitekeen, abertzaletasunak udalerrri ezberdinetan duen indarra adierazteko (ikus ere II. Eranskina):

1. *Boto abertzalea ez da % 10era iristen*: abertzaletasunaren aztarnarik ez dago, edota, egotekotan, oso urria da.

Tuterako eta Lizarrako Erriberan kokatzen da.

Herri batzuek, % 10etik oso hurbil daudenek, badute euskal kutsu ñimiño bat, baina oso marjinala (Cortes, Zarrakaztelu, Lodosa eta Andosilla), udaletxeetan zinegotziren bat edo beste lortzen badute ere.

2. *Boto abertzalea % 10-% 20 artean dago*: euskal gutxiengoa agerian dago. Sarritan ondo antolatuta eta ordezkariekin udaletxeetan (Tutera, Viana, Zangoza, Erriberri...). Giro euskaldun xumea sumatzen da.

3. *Boto abertzalea % 20-% 30 artean dago*: euskal gutxiengoa agerian dago, eta eragina du udal eta herri esparru guztietan. Udaletxe orotan du ordezkartza eta bere eragina kalean ere sumatzen da (ikastolak eta irakaskuntza euskalduna, errotulazio elebiduna, kultur ekintza euskaldunak, e.a.).

Iruñerria, Lizarralde, Tafalla, Ipar-Ekialdeko Haranak...

4. *Boto abertzalea % 30-% 50 artean dago*: abertzaletasunak ez du gehiengo osoa lortzen hauteskundeetan, baina euskal sentimendua oso errotuta dago, eta sarritan nagusi da. Herri anitzetan alkate abertzaleak daude.

Multzo honetan agertzen dira euskal hiztunak diren herriak eta ibarrak (Baztan, Ultzama...) eta erdaldunak diren bertze batzuk (Iruñerriko Atarrabia, Uharte eta Berriozar, Agoitz...), hala nola hizkuntza erregresioan dutenak ere (Aezkoa, Erro, Anue, Auritz...).

5. *Boto abertzalea % 50-% 70 artean dago*: euskaltasuna eta abertzaletasuna nagusi dira.

Alkate ia guztiak abertzaleak dira.

Hizkuntzaren aldetik euskara da nagusi.


Multzo hau Nafarroako Ipar-Mendebaldean kokatzen da (Sakana, Basaburua, Larraun, Bortziriak, Malerreka...).

6. *Boto abertzaleak % 70 gainditzen du*: euskal kontzientzia nazionala oso sendoa.

Lehen aipatutako eremu geografikoan kokatzen diren zenbait herri daude. Hizkuntzaren aldetik oso euskaldunak dira.

Nafarroako mapa marraztu liteke azaldutako emaitzak bere barnean margotuz; hona hemen emaitza:

## Boto abertzalearen kopurua



Mapari begiratzea besterik ez dago azkar sumatzeko abertzaleatasuna Nafarroan nola banatzen den. Lehenago azpimarratu dudan bezala, kokapen geografikoak eragin handia du boto abertzale ala estatalista emateko orduan. Oro har, eta salbuespen txiki batzuk egon arren, arau bat formulatu liteke: *abertzaleatasuna Nafarroan Hegoaldetik Iparraldera hazten da, eta baita Ipar-Ekialdetik Ipar-Mendebaldera ere.*

Gero aztertuko dugunez, kokapen geografiko hutsak ez du eragiten botoan, eta ezta paisaia geografikoak ere. Mapa begiratuta hala iruditu arren, bertze giza-faktore batzuk daude eragin horren atzean, nabarmenena hizkuntza-

rena izanik. *Aumerago erakutsiko dugunez, boto abertzalearen mapa eta hizkuntzaren mapa ia-ia bikiak baitira Nafarroan.*

Aurreko mapan agerian geratzen denez, abertzaletasunari dagokionez multzo desberdinetan zatitu daiteke Foru Erkidegoa (bost zati arbitrariotan egin dugu zatiketa hemen, erraztekotan). Hala ere, zati horietan inguruarekiko desberdinak diren herriak aurki daitezke, dauden lekuetan baino boto abertzale gehiago edo gutxiago erakusten dutelako. «Irla Herriak» izendatuko ditugu, eta garrantzitsuenak Tuteran, Tafalla, Sartaguda eta Altsasu dira (ikus mapa).

## Nafarroako euskararen mapa

Euskararen ezagutzari dagokionez oso anitza da Nafarroa ere, III. Eranskinean ikusten denez bertan baitira euskal hiztunak % 5 baino gutxiago dituzten herriak, eta % 80 baino gehiago dituztenak ere.

Datu hauek biltzeko kontuan hartu da Nafarroako Gobernuak 1996. urtean egindako hizkuntz-zentsua (ge-roztik ez da bertze berri bat egin), euskaldunen kopurua eta ia-euskaldun alfabetatuen kopurua batuz. Kontuan hartu dira, halaber, 2001. urteko Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datuak.

Aurreko atalean egin dugun moduan, hizkuntzari dagokionez ere sailkapen bat egin zitekeen Nafarroako herrien artean, dituzten euskal hiztunen arabera:

1. *Euskal hiztunak ez dira % 5era iristen:* euskararen egoera marjinala da oso. Hizkuntza ez da inon entzuten.

Irakaskuntza ia oso-oso erdalduna da.

Zenbait herritan (Tuteran, Vianan ala Lodosan) badaude ikastolak, baina berriak dira eta oraindik ez dute haur asko euskaldundu.

Tuteran eta Lizarrako Erriberako herriak sartzen dira multzo honetan.

2. *Euskal hiztunak % 5 eta % 10 artean daude:* euskararen presentzia apurra, zenbait herritan (adibidez, Tafallan), baina ofizialtasunik ez.

Zenbait lekutan errotulazioa elebiduna da.

Irakaskuntzan badaude ikastola sendoak (Tafallan, Zangozan...) eta ume askok A ereduari ikasten dute ere.

Nafarroako erdialdean kokatzen da, zona «no vascofona» deitutakoan.

3. *Euskal hiztunak % 10-% 20 artean daude*: euskara ikusi, ikusten da (errotulazio elebiduna), baina gutxi entzuten da karraketan.

Iruñerria, Lizarraldea eta Ipar-Ekialdeko haranak.

Eremu honetan badaude euskaldun zahar gutxi batzuk, Zaraitzu aldean.

Badaude ikastola sendoak, eta irakaskuntza euskalduna sare publikoan ere eskaintzen da. Umeen ia herenak euskara hutsez ikasten du.

4. *Euskal hiztunak % 20-% 50 artean daude*: oso multzo zabala da hau, hemen baitaude euskaldunak diren herriak eta haranak (Aezkoa, Arakil, Sakanako zenbait herri...) eta erdaldunak diren bertze batzuk (Agoitz, Irurtzun, Artze...).

Euskaldunak direnak, hala ere, erregresioan dute hizkuntza, zaharrenak baitira euskaraz hobeto mintzatzen direnak (Aezkoa, Erro, Arakil...).

Nolanahi ere, eredu euskalduna da nagusi irakaskuntza arloan, eta ume asko euskaldundu dira eskolan, etxean hizkuntza jaso ez arren.

Multzo hau «zona vascofona» delakoan dago (Agoitz izan ezik, «zona mixta» delakoan kokatzen baita).

Euskara entzun daiteke, baina zaharren eta umeen ahotan, gehienbat.

5. *Euskal hiztunen kopuruak % 50 gainditzen du*: euskara nagusi da eta sendo dago etxean eta karrikan. Etxeko transmisioak bizirik dirau.

Zenbait herritan hegemonikoa da.

Irakaskuntza euskalduna da nagusi.


Nafarroako Ipar-Mendebaldean kokatzen da, «zona vascofona» delakoan. Sakanako hainbat herritan ere, bertze batzuk aurreko multzoan egon arren.

Bildutako datuekin Nafarroako hizkuntza mapa marraztu daiteke, aipatu ditugun multzoak bere barnean marrotuz:



Mapa honek ere lehenago aipatu dugun ondorio berera eramaten gaitu: *euskal hiztunen kopurua Nafarroan He-goaldetik Iparraldera hazten da, eta baita ere Ipar-Ekialdetik Ipar-Mendebaldera*. Izan ere, nabaria da mapa politiko eta mapa linguistikoaren arteko antza, hizkuntza eta botoaren arteko harreman zuzena dagoela pentsarazten diguna<sup>3</sup>.

### Euskal hiztunen kopurua



Bi mapen arteko berdintasuna salbuespen batzuek besterik ez dute okertzen:

- Baztan ibarra eta Luzaideko harana, hizkuntzaren aldetik euskaldunak izan arren, ez dituzte hauteskudeetatik gehiago abertzaleak lortzen; ematen du normalagoa

izanen zela Ipar-Mendebaldeko haranekin bat etortzea politikoki.

- Lurralde batzuek, hizkuntzaren aldetik oso erdalduak izan arren (euskaldunen kopurua ez da % 5era iristen), abertzaleago bozkatzen dute antzeko hizkuntza egoera duten beste batzuek baino: Bialaldea, Erribemialdea, eta Erribera Garaia, oro har.

Bi salbuespen horiek izan ezik, Nafarroako mapa politikoa eta mapa linguistikoa bat etortzen dira ia guztiz.

Ondorio hau baieztatzeko matematiketara jo behar dugu, ordea, gure iritzia objektibotzekotan. Pearson-en korrelazioa deitutako froga aplikatuz jakinen dugu gure susmoak oinarri sendoa duen ala ez. *Froga honen bitartez bi aldagai ezberdinak noraino dauden lotuta jakiten da, bi aldagai horien datuak aztertu ondoren. Aipatutako aldagaiak, kasu honetan, boto abertzalearen kopurua eta euskal hiztunen kopurua dira.*

Puntu honetara iritsita, aipatu gabe ezin dut utzi EHUren irakaslea den Matxalen Gamendiaren laguntza baliotsua, estatistika matematikoaren arlo korapilatsuan gidatu nauena. Berarekin aztertu ditugu Nafarroako 124 herritako datuak, boto abertzalearen eta euskal hiztunen balizko korrelazioa bilatuz. Bilaketa horren emaitza lehen aipatutako Pearsonen korrelazio indizean zehazten da: 0,907, kasu honetan. *Indize honek, ez bairik gabe, aztertuta -ko bi aldagaien artean korrelazio oso altua dagoela baieztatzen du (adierazgarritasun maila oso ona izanik ere —0,01—, bide batez esanda).*

I. Eranskinean kalkuluak egiteko erabili diren Nafarroako 124 herrietako datuak agertzen dira.

## Ondorioak

Lan honetan abertzaletasuna Nafarroako hauteskundeetan nola adierazten den ikertu dugu. Beste aldetik Nafarroako mapa linguistikoa aztertu dugu, eta baita mapa politiko eta linguistikokoaren arteko harremanak bilatu ere.

Laburpen gisa, ondorio batzuk azpimarratu daitezke:

- Abertzaletasuna Nafarroan anitz aldatzen da leku batetik bestera. Hegoaldetik Iparraldera hazten da, eta baita Ipar-Ekialdetik Ipar-Mendebaldera ere. Tokien arteko desberdintasunak, batzuetan, egundokoak dira.

- Euskal hiztunen kopurua ere oso aldakorra da Nafarroan, tokiaren arabera. Lehen bezala, euskaldunen kopurua Hegoaldetik Iparraldera hazten da, eta baita Ipar-Ekialdetik Ipar-Mendebalderantz. Mapa politikoa eta mapa linguistikoa oso antzekoak dira Nafarroan.

- Matematikoki azaltzen denez, bada harreman zuzena hizkuntza eta abertzaletasunaren artean Nafarroan: lurralde euskaldunetan boto abertzale handiagoa da lurralde erdaldunetan baino.

- Hala ere, leku euskaldunetan euskaldunen kopuruak boto abertzalearen kopurua gainditzen du. Horrek esan nahi du toki horietan euskaldun askok ez dutela abertzale bozkatzen.

- Lurralde erdaldunetan, berriz, alderantziz gertatzen da: boto abertzaleak, oro har, euskaldunen kopurua gainditzen du. Horrek adierazten du erdaldun batzuek abertzale bozkatzen dutela.¶

- 
1. Ikus *Euskara Nafarroan zertan den* ikerketa soziolinguistikoa, Nafarroako Gobernuak argitaratutakoa (Iruñea, 1995). Baita ere *Euskal Herriko Soziolinguistikazko II. Inkesta*, 1999. urtekoa.
  2. Iruñean, esaterako, hauek izan dira boto abertzalearen ehunekoak: 1987. urtean, % 30; 1991. urtean, % 23; 1999. urtean, % 24; 2003. urtean, % 25. Lizarran, berriz, honako hauek: 1987. urtean, % 31; 1991. urtean, % 26; 1999. urtean, % 23; 2003. urtean, % 24.
  3. Nafarroako Hegoaldea da erdaldunena, eta lurralde horretan kokatzen da ere boto abertzalearen kopururik txikiena; aitzitik, Ipar-Mendebaldeko eremua da euskaldunena, eta bertan boto abertzalea da nagusi. Iruñerrian eta erdialdeko herrietan tarteko egoera aurkitzen dugu: bai euskararen ezagutzari dagokionez, bai boto abertzaleari dagokionez, ez dago Erriberan dagoen urritasunik eta ezta iparraldeago dagoen euskaltasunik ere, tarteko emaitzak baizik.

## I. Eranskina. Herrien datuak

<i>Herria</i>	<i>Boto abertzalea</i>	<i>Euskal hiztunak</i>
Abartzuza	% 25,7	% 11,2
Abaurregaina	% 41,6	% 35
Ablitas	% 3,75	% 1,5
Agoitz	% 44,5	% 24
Aiegi	% 29,25	% 10
Alesbes	% 8,25	% 2
Altsasu	% 39	% 26
Amezkoa	% 15	% 6,6
Andosilla	% 9,2	% 3
Antsoain	% 26,75	% 11
Anue	% 35,2	% 27
Arakil	% 32,75	% 21
Araitz	% 63	% 93,5
Arantza	% 87	% 98
Aranguren	% 22,75	% 12
Arbizu	% 82,75	% 92
Areso	% 53,75	% 93
Arguedas	% 6,25	% 0,9
Aribe	% 40,33	% 28,5
Arroitz	% 18,75	% 4,4
Artaxoa	% 13,75	% 3,3
Atarrabia	% 35,75	% 15
Azagra	% 2,75	% 0,2
Auritz	% 31,5	% 37
Azkoien	% 4,75	% 1,4
Barañain	% 24,75	% 11,5
Bargota	% 25,5	% 5,5
Basaburua	% 59	% 84
Baztan	% 47,25	% 81
Bera	% 61	% 73,5
Beriain	% 11	% 2
Berriozar	% 31,5	% 12,1
Bertizarana	% 54	% 80
Betelu	% 62,5	% 94
Buñuel	% 2,67	% 0,3
Burgi	% 22,25	% 5,1
Burlata	% 26,25	% 13,5
Cabanillas	% 4	% 1
Cadreita	% 7,5	% 2
Caparroso	% 6,75	% 1,7
Cárcar	% 3,25	% 1
Cascante	% 6,6	% 2,2

Castejón	% 3,5	% 2
Cintruénigo	% 3,5	% 1,2
Corella	% 3	% 1,1
Cortes	% 9,25	% 4,6
Deierri	% 20,25	% 9,5
Deikaztelu	% 13,25	% 6,8
Doneztebe	% 56,75	% 76
Egues	% 18,5	% 13,8
Elo	% 14,33	% 5,2
Ergoiena	% 73,25	% 93
Erriberri	% 14,5	% 3,9
Erro	% 30,25	% 29
Erronkari	% 23	% 10
Esteribar	% 30	% 18
Etxalar	% 65,5	% 91
Etxarri Aranatz	% 71,75	% 80,5
Etxauri	% 48,5	% 14,5
Ezkabarte	% 30,25	% 14
Ezkaroze	% 20,5	% 12
Faltzes	% 11	% 5
Fitero	% 2	% 0,8
Funes	% 2	% 0,4
Fustiñana	% 3,5	% 0,5
Galar	% 20	% 6
Gares	% 26,75	% 9,2
Garralda	% 40,5	% 30
Goizueta	% 90	% 97
Irunberri	% 20,5	% 9,8
Iruñea	% 25,2	% 10,5
Irurtzun	% 36	% 25
Ituren	% 82	% 97
Izaba	% 25,5	% 14,5
Kaseda	% 10,75	% 5
Lakuntza	% 65	% 60,5
Larraga	% 18,75	% 4,5
Larraun	% 61	% 86
Leitza	% 66,75	% 91
Lekunberri	% 59	% 61
Lerin	% 11,75	% 4,8
Lesaka	% 74,25	% 81
Lizarra	% 25,5	% 12,5
Lodosa	% 8,6	% 3,1
Los Arcos	% 10	% 2
Luzaide	% 30,25	% 68
Mañeru	% 24	% 5,4
Martzilla	% 6,6	% 0,7

Mendabia	% 4	% 1
Mendigorria	% 18,3	% 5
Milagro	% 2,3	% 0,3
Monteagudo	% 1,75	% 0,6
Murchante	% 4,65	% 0,45
Nabaskoze	% 27	% 8,5
Noain	% 17	% 7
Obanos	% 18,75	% 6
Oibar	% 17,3	% 5,1
Otsagabia	% 28,75	% 15
Olatzagutia	% 50	% 24
Oltza	% 26,25	% 13
Orbaizeta	% 48,25	% 41
Orkoien	% 17	% 10,2
Orotz-Betelu	% 32,25	% 10
Puiu	% 28,25	% 6,8
Ribaforada	% 3,25	% 0,5
San Adrian	% 2,5	% 2
San Martin Unx	% 12	% 1
Santakara	% 4,75	% 1,7
Sartaguda	% 17,5	% 4
Sesma	% 5,75	% 1,7
Sunbilla	% 71	% 93,5
Tafalla	% 25,5	% 9
Tutera	% 10,2	% 2,1
Txulapain	% 31	% 20,6
Uharte-Iruñea	% 34,75	% 15
Ultzama	% 32,5	% 52,5
Urdiain	% 67,75	% 86
Uxue	% 18,5	% 4,8
Valtierra	% 3,3	% 0,7
Viana	% 13	% 5
Zangoza	% 14,25	% 5,7
Zarrakastelu	% 9,75	% 4
Zizur Nagusia	% 26,25	% 15
Zugarramurdi	% 39,25	% 95

*Oharra:* boto abertzalearen kopurua kalkulatzeko aintzakotzat hartu dira 1987, 1991, 1999 eta 2003. urteetako Foru Hauteskundeen emaitzak. Taulan agertzen den kopurua aipatutako emaitzen batez bestekoa da.

## II. Eranskina.

### Boto abertzalearen kopuruak herriz herri

- < % 10: Ablitas, Alesbes, Andosilla, Arguedas, Azagra, Azkoien, Buñuel, Cadreita, Caparros, Cárcar, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Corella, Cortes, Fitero, Funes, Fustiñana, Lodosa, Martzilla, Mendabia, Milagro, Monteagudo, Murchante, San Adrian, Santakara, Sesma, Ribaforada, Valtierra, Zarrakaztelu.

- % 10-% 20: Amezkoa, Arroitz, Artaxoa, Cabredo, Deikaztelu, Egues, Elo, Erriberri, Faltzes, Kaseda, Larraga, Los Arcos, Lerin, Mendigorria, Obanos, Oibar, San Martin Unx, Sartaguda, Tuter, Uxue, Viana, Zangoza.

- % 20-% 30: Abartzuza, Aiegi, Antsoain, Aranguren, Barañain, Bargota, Burgi, Burlata, Deierrri, Erronkari, Ezkaroze, Galar, Gares, Irunberri, Iruñea, Izaba, Lizarra, Mañeru, Nabaskoze, Otsagabia, Oltza, Puiu, Tafalla, Zizur Nagusia.

- % 30-% 50: Abaurregaina, Agoitz, Altsasu, Anue, Arakil, Arike, Atarrabia, Auritz, Baztan, Berriozar, Erro, Esteribar, Etxauri, Ezkabarte, Garralda, Irurtzun, Txulapain, Luzaide, Orbaizeta, Orotz-Betelu, Ultzama, Uharte-Iruñea, Zugarramurdi.

- % 50-% 70: Araitz, Areso, Basaburua, Bera, Bertizarrana, Betelu, Doneztebe, Etxalar, Igantzi, Lakuntza, Larraun, Lekunberri, Leitza, Olatzagutia, Urdiain.

- >% 70: Arantza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Ergoiena, Goizueta, Ituren, Lesaka, Sunbilla.

### III. Eranskina.

#### Euskaldunen kopuruak herriz herri

- < % 5: Ablitas, Alesbes, Andosilla, Arguedas, Arroitz, Artaxoa, Azkoien, Azagra, Buñuel, Cadreita, Caparroso, Cárcar, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Corella, Cortes, Erriberri, Fitero, Funes, Fustiñana, Larraga, Lerin, Lodosa, Los Arcos, Martzilla, Mendabia, Milagro, Monteagudo, Murchante, Ribaforada, San Martin Unx, San Adrian, Santakara, Sartaguda, Sesma, Tutera, Uxue, Valtierra, Viana, Zarrakaztelu.


- % 5-% 10: Amezkoa, Barasoain, Bargota, Burgi, Deierri, Deikaztelu, Faltzes, Galar, Gares, Irunberri, Kaseda, Mendigorria, Nabaskoze, Noain, Obanos, Oibar, Puiu, Tafalla, Tiebas, Untzue, Viana, Zangoza.

- % 10-% 20: Abartzuza, Aiegi, Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Barañain, Beriozar, Burlata, Egues, Errozkari, Esteribar, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Iruñea, Izaba, Lizarra, Oltza, Orkoien, Orotz-Betelu, Otsagabia, Uharte-Iruñea, Urraul, Zizur Nagusia.

- % 20-% 50: Abaurregaina, Agoitz, Altsasu, Anue, Arakil, Arike, Artze, Atetz, Auritz, Erro, Garralda, Irurtzun, Odieta, Olatzagutia, Orbaizeta, Txulapain.

- >% 50: Araitz, Arantza, Arbizu, Areso, Basaburu a, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Doneztebe, Ergoiena, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizueta, Igantzi, Imotz, Ituen, Lakuntza, Larraun, Lekunberri, Leitza, Lesaka, Luzaide, Sunbilla, Ultzama, Urdiain, Zugarramurdi.





HASIER ETXEBERRIA  
Gotzon Garateri elkarrizketa

---

# Gotzon Garateri elkarrizketa



H A S I E R E T X E B E R R I A



## ESTRALURTAR BAT GEUREAN

*Gaur egungo ikastolek astrountzi aurreratuak dirudite gure garaiko ikastolen aldean. Orain, edonongo ikastolak dauka aholkulari psikologiko bat, elikadura zaintzen duen teknikari bat, pedagogia egokia erabakitzen duen talde profesional bat, edota sekulako polikiroldegi bat, frontoi eta guzti. Deskuidatzen bazara, pizsina ere bai.*

*Gure garaiko ikastola hartan —1965 inguruan, Elgoi-barkoaz dihardut—, eserlekurik ere ez zegoen, andereño Itziarrek (andereño izan baino lehen, jostun izandakoak) Jaungoikoaren irudi eskematiko bat marrazten zigun klario-  
nez arbelean eta gu, Xabiertxoren bidez, ilustratzen ginen. Haiak garaiak! Ez da munduan halako zoriona ezagutu duen umerik.*

*Arkatzik ere ez genuen erabiltzen eta, lurrean eserita, txotxen bitartez idatzi genituen lehenengo hizkiak: AMA, AITA, AMAMA... Gero, ikastolako lanak amaitutakoan, etxex etxe joaten ginen bost pezetako kuotak kobratzera. Alegia, gaurko hizkuntzan esanda, 0,03 €ko kuotak izaten ziren haiak, legez kanpoko instituzio hari arnasa ematen ziotenak.*

*Beste modu batean esateko, gaurko gure seme-alabek trufa egingo luketela gu orduan ginen umeak ikusteko aukerara balute eta, gu nola ibiltzen ginen ikusita, berehala aterako litzaiekeela aharrausia: «aita, ama, aspertuta egoteaz aspertzen ari naiz».*

---

► **Hasier Etxeberria** kazetaria eta idazlea da.

*Gaizoak gaurko umeak gure aldean! Gu ez ginen sekula aspertzen. Horrelako gauza bat existitzen zenik ere ez genuen susmatzen ahal, izan ere, gaurko ikastolek asko aurreratu dutela esango da, baina guk bagenuen, Elgoibarko hartan, gaurko haur teknologizatueneke ere eduki ez dezaketen zerbait. Guri, egun batean, estralurtar batek egin zigun bisita. Halakorik ez da ikusten ez eta Silicon Valley-n ere. Ez zen mozorrotutako norbait, ez zen antzezle bat... egiatzko estralurtarra zen, auskalo nondik etorritakoa.*

*Gu ohituak geunden era guztietako baldintzetan egoten. Etxebizitza batetik bestera aldatzen zuten gure ikastola. Susmatzen genuen ez ginela fraideen eskolan eta Escuela Nacionalean zebiltzan gainerako umeak bezalakoak. Noizean behin dardarka ikusten genituen gurasoak eta andereño Itziar. Bagenekien inspektoreak eta bestelako munstro haiek guztiek kolan jarria zutela, ostera ere, gure ikastola... Baina, zer nahi duzue esatea, gu zoriontsuak ginen zeharo, eta, gainera, estralurtar bat genuen lagun. Ez zait ahaztuko sekula.*

*Ikasgelako atletik barrura egin zuenean, beltzez edo gris ez jantzita zetorren eta lepoan, gorbataren lekuan, bazekarren halako gauza zuri bat. Abadea ere bazela esana ziguten, estralurtarra izateaz gain, baina hamaika abade ikusiak izanagatik (Don Severiano, Don Juan Jose, Don Antonio, Don Carlos...), huraxe zen sotanarik gabe ikusitako lehena. Gainera, ez zuen beldurrik ematen eta irri zabal baten laguntzaz «Nire izena Gotzon da, zuek bai ume zoragarriak!» esan eta gero, gitarratxo bat atera eta gure aurrean hasi zen kantari: «Ameriketara joan nintzen, xentimurik gabe...». Hura bai txin-txina guretzat!*

*Etomi bezala egin zuen alde estralurtarrak, baina harez geroztik dakigu orduko umeok, unibertsoan bideak ugari direla, eta izaerak ere pertsonak bezainbeste, gutxienez. Halako izaki arrarorik sekula ezagutu gabekoak ginen, eta euskalduna zen, gainera. Eta jatorra.*

*Gizon haren oroitzapenak irmo iraun zigun berriro bisitaratu zitzaigun arte: nerabe ginela irakurri genizkion Marxen marxismoa eta antzeko liburu ikaragarri sakonak. Erdirik ere ez genizkion ulertzen ahal, han esaten zituenetatik. Hain zen jakintsua!*

*Bizitzak aurrera egin ahala, leku bitxienetan ikusten ahal zenuen estralurtar hura, gutxien espero zenuen unean. Nolabait esateko, ez zen eguneroko paisaiaren zati amunt, baina ederki zenekien nonbait egon egongo zela. Beti.*

*Seat markako auto txiki eta zahar bat eskuratu nuen halako batean. Egun batez, ez dakit nora nindoala, estralurtarra ikusi nuen urrutira, bide ertzean autostop egiten. Argi ikus zitekeen ez zela mundu honetakoa: burutik ateratzen zitzaizkion zazpi antenatxoak ezkutatzeko, txapela zera - man jantzita.*

*Aldatu egin nuen norabidea alienigena hura neronek eraman ahal izan nezan. Ez naiz oroitzen nora. Baserri batera zihoala gogoratzen naiz, hori bai. Euskara ikasten ari zela esan zidan eta ene buruari galdetu nion nola arraio ote zitekeen izan, euskara hain ondo eta bizi hitz egiteaz gain, dozena bat hizkuntza ezagutzen zituen gizona, baserri su - kaldeetan sartuta ibiltzea. Atsotitzen lan eskergak ekarri zuen erantzuna, urte dezente beranduago.*

*Gerora ere halaxe egin da present ene bizitzan: orain agertu, orain desagertu, baina, esan bezala, beti jakin dut hor nonbait dabilela, munduan barrena. Auskalo zertan.*

*Halako batean, polizia eleberriak argitaratzen hasi zen, eta ni irakurtzen. Zerbait hautsi zitzaidan haren irudian, krak! Unibertsitate Katedraduna ez nuen irudikatzen ahal antzeko kontu gizakorretan sartuta. Baina idazten zekien bai. Eta nola, gainera!*

*Esango nuke ez dudala ezagutu gizonik hainbeste munitu izan denik, hainbeste jende ezberdin ezagutu duenik, hainbeste kultura menderatu duenik... eta, aldi berean, hain - besteko koherentzia eta nortasunik erakutsi didanik.*

*Zaila zait laburtzea, baina esango nuke, beste guztien artean norbera nor den zehazki jakiteak ematen duen harrotu behar ezak bizi duela bera, baldin eta esan nahi dudan hau ez bada terminoetan beretan gertatzen den kontradikzioa. Egiatzki aberats denak, aberaskeriarik behar ez duen bezala, apaltasunak bizi duela bera. Benetan diot: ez dut nehor ezagutzen mundua eta munduko jendea hainbeste maite duenik, berezkoa duena hainbeste maiterik, aldi berean.*

*Duela gutxi, telebistako geure saioan elkarrizketatzeko aukera ere izan genuen. Han ziren guztiek estrainakotz eza - gutu zuten ordukoan, eta denek aitortu zuten berezko argi bat zeukala Garatek. «Normala —esan nien—, ez da mundu honetakoa: estralurt a rra da». Konforme geratu ziren, antza, n i re azalpenarekin, izan ere, herri berekoak garenez, pentsatu baitzuten ederki ezagutuko nuela. Alabaina, ez da egia, orain arte bederen, ez nuen Gotzon behar beste ezagutzen.*

*Bi hitzetan esanda, aukera aparta dela Jakinek emanda - ko elkarrizketa honen enkargua, estralurtar hau behingoz et - xekotzeko. Izanagatik norberarengandik zeharo desberdin, ikasi baitut irmotasunak, jakinduriak eta maitasunak osat - zen duten koktela bezalakorik ez dagoela bizi-poza loratzeko.*

*Gotzon Garate Goihartzun Elgoibarren sortu zen 1934. urtean.*

*Filosofian doktoratu zen Madrileko Unibertsitate Com - plutensean. Teologian lizentziatu zen Innsbruckeko unibert - sitatean eta Filologia Erromanikoan Deustuko Unibertsitate - an. Marxismoan espezializatu zen Friburgoko unibertsitate - an bi urtez. Euskal Literaturan katedraduna da Deustuko Unibertsitatean. 1978an Euskal Filologia karrera sortu zuen Deustuko Unibertsitatean.*

*1967tik aurrera zazpi probintzietako 23 baserritan ibili da, euskara biltzen. Munduko lau hegaletan barna ibilia da. Udak New Yorken ematen ditu.*

*Euskal Herrian egin diren inkesten arabera idazleetan Gotzon Garate irakurrienetako bat da.*

## FAMILIA ZABAL BATEKO SEME

Haur garaian izan ginena, geurekin eta geuregan dago beti. Horixe uste dut nik: orduan jaso eta bizi izandakoa, erabakigarria gertatzen da pertsonaren izaera eraikitzeko orduan. Ekidinezina da hori.

Zorionez, nire hautzaroa guztiz zoragarria izan zen Elgoibarren. Ahaztuta dauzkat garai haiek, ez naiz ia ezertaz gogoratzen eta uste dut horixe dela frogarik onena hautzaro zorionsua izan nuela baieztatzeko, gertaera mingotsik batere gogoan ez izatea.

Hamaika anai-arrebetan gazteena naiz neu. Sei mutil eta bost neska. Arrebetako bat, Guadalupe, sei urte zituela hil zen, auto batek azpian hartuta. Garai hartan auto gutxi zen Gipuzkoan, baina eibartar sendagile batek harapatu zuen gure etxe ondoan. Nik ez nuen ezagutu. Beste arreba bat ere hil zitzaigun, Mari, jator askoa, adintsua.

### **Familia handiko seme, beraz.**

Beti esan ohi dut bizitza honetan eduki dudan gauzarik ederrena horixe dela, familia. Denok maite genuen elkar, pozik bizi ginen eta gurasoek ere, maitasuna baizik ez zioten elkarri. Gauzak orduan ez ziren orain bezala izaten. Ezkontzeak betiko elkarren ondoan bizitzea adierazten zuen eta, zorionez, gure aita-amek elkar maite izan zuten beti. Askok, gainera.

### **Auzokoek otoitzean belaunikaturik gogoratzen dituzte, oheratu baino lehen.**

Bai, bai, halaxe zen. Oso fededunak ziren biak ala biak. Askotan entzunda daukat, aitaren ama, gure amama, santa bat izan zela, eta gure aitari handik etorriko zitzaizkion urak.

Gurasoen gelan, Jesusen Bihotzaren irudi bat zegoen, eta ondo gogoan dut gure aita gauero haren aurrean nola belaunikatzen zen. Fede handikoa zen, bai. Ez da harritzekoa lau seme Jesuita sartu izana. Lehenengoak, Jenarok, filosofia egiten ari zela, jesuita izateari utzi bazion ere.

Gure aitari Elgoibarko batzuek *Aitxaren* deitzen zioten, sarri bere burua sinatzen zuelako, ermita eta leku seinalatuen aurretik pasatzean, batez ere. Hortik gaitzizena.

Jostuna eta langile porrokatua zen. Izan behar ere bai, halako familia aurrera atera ahal izateko.

Berak eduki zuen Elgoibar inguruetakoko lehenengo motoetako bat. Ondarroara eta, motoz joaten zen, jostundegiko lanak zirela eta.

**Ez da harritzekoa zuen artean hainbeste fraide eta moja egotea.**

Oraingo familietan drama bat litzateke pare bat seme edo alaba etxetik alde egiten ikusteak. Gurean ezberdina zen. Hiru seme edo alabak alde eginagatik, beste zortzi geratzen ziren eta. Baina, bai, bokazioa, asko eta asko, gurasoen esku egoten da. Hala ere, egia esan behar badizut, gure aitak ez zuen nahi izaten gu fraide joan gintezan. Oso erlijiosoak ziren, baina sufritu egiten zuen semeek alde egitean. Ama errazago konformatzen zen.

**Beraz, ez zineten Markesarenekoak.**

Bai zera! Goserik ez, baina ezin esan aberatsak ginenik. Horrelakoak ziren orduan Elgoibarko familiarik gehienak.

Gurean teilatu beraren azpian, gurasoak, anai-arreba guztiak, izeko bat, amama eta neskame bat bizi ginen. Hamabost lagun guztira. Pentsatu etxe hartan zer behar zen egunero jan ahal izateko.

◆  
«Gurean teilatu beraren azpian, hamabost lagun bizi ginen guztira. Pentsatu zer behar zen egunero jan ahal izateko»

Anaia zaharrenak Berriatuara eta, bizikletaz joaten ziren irin bila. Berriatua 20 kilometrora dago Elgoibartik, eta tartean du San Migelgo gaina. Ez da txantxa! Gero, zaku irin haiek bizikletaren gainean ipini eta atzera Elgoibarrera. Guardia Zibilak bidean ikusi eta zakuak bazterreko sasi artean ezkutatzen ibili behar..

◆  
Larri ibiltzen ginen bai, gure jatorduek ez zuten zerikusirik gaurko elikadurarekin. Esate baterako, ez naiz oroitzen gaztetan banana bat jan izanaz. Pastelak eta antzeko gauzak, gabonetan bakarrik. Errege egunean, baloi bat edo partxis bat denontzat eta, hura poza!

**Zu 1934an, Irailaren batean jaio zinen. Handik bi urtera gerra.**

Bai, arreba zaharrenak, Anitak, kontatu izan dit, urte bateko umea nintzela, zapi artean ondo bilduta, Pepein baserrira eramaten ninduela abioien eta kanoien bonbetatik babesean egoteko.

Elgoibartar nahiko ezkututzen zen Pepeinen. Elgoibar inguruan zen frentea, Kalamua mendi aldean. Baina neu ez naiz ezertaz gogoratzen. Txikiegia nintzen.

**O rduko Elgoibar ez zen gaurkoa izango.**

Ez eta gutxiagorik ere! Denok ginen bertakoak, denok ezagunak. Kanpotik etorritako familia gutxi ziren: *Morron-gonekoak, Añananekoak*.. Hauek ere bertakotuak. Giro sanoa zen oso, baina ez pentsa, gerra amaitu zenean, lau urte nituen, eta etxean euskaraz hitz egiten bagenuen ere, eskolan eta kalean ez zegoen euskal girorik.

Bete-bete harrapatu ninduten Francoren garairik gogorrenek. Kontrola ikaragarria zen. Gure arreba Anita-ren gutunak Guardia Zibilek irakurtzen zituzten berari eman baino lehen...

Gu giro horretan bizi ginen eta lagunekin erdaraz mintzo ginen, eskolan batez ere. Zer nahi duzu ba! Hala-koxeak ziren garai haiek. Baina euskararen kontu horiek, zeure aita Felix Etxeberria *Parapan*-ek esango dizkizu hobeto, horretaz zerbait badaki eta. Orduan eta geroago ere, lan bikaina egin du hark euskararen alde. Neuretzat etsenplu handia izan da beti zuen aita.

**Noizbait konturatuko zinen, baina.**

Euskararen kontzientzia hamabi urte rekin hartu nuen. Durangora joan nintzen ikastera eta han bi lagun izan nituen, oso euskaltzaleak. Bata gero Elgoibarren oso ezaguna izan zena: Jabier Bastida, azpeitiarra, Sigma enpresako praktikantea. Horrek ohartarazi zidan euskaldunok nor ginen eta euskara gure hizkuntza zela.

Geroztik beti euskaraz egiten saiatu nintzen. Lagun batzuekin Elgoibarren erdaraz egitera jarriak ginen. Aldatu beharra zegoen. Oroitzen naiz zelan mintzatu nintzen



neure lagun maite batekin, Jesus Mari Ansolarekin. Geure artean berbetan euskaraz egin behar genuela esan nion. Ohiturari buelta ematea zail da, baina handik aurrera beti horrela egin genuen.

### **Kanpoko familiak ere bazirela esan duzu lehen.**

Bai, bai. Oso gutxi, baina. *Barren* Elgoibarko astekariak argitaratzen dituen argazki zaharretan, ederki ikusten da hori. Orduko deitura ia guztiak euskaldunak dira. Industrializazioa ez zen anartean ganoraz hasia...

Lau edo bost mila biztanle izango zituen orduko Elgoibarrek, gaur ia halako hiru izango da. Denok ezagutzen

genuen elkar eta kanpotar apurra ere, bertakotuak zeuden. Guztira euskal giroan bizi ginen. Jakin ere, ofizialki giroa erdalduna bazen ere, guztiek zekiten euskaraz eta esne-saltzaileekin eta egunero merkatura zetozen baserritarrekin, ez genuen euskaraz baizik egiten.

Baina bai, kolpe izugarria jaso zuen euskarak gure herrian. Ikastolarik edo antzekorik ez zegoen batere, San Viator, fraideen eskola, eta Eskola Nazionala deitzen zena. Azken honetan ikasi nuen nik. Anaia bat-

zuek, Jose Luis, nire aurretik jaiok, adibidez, fraideetan ikasi zuten.

### **Hala ere, zure etxean, erlijiozale izateaz gain, kulturazaleak ere irten zàrete.**

Bai, eta ez dakit seguru zer arrazoigatik. Gure anaia Roman, orain nirekin Deustuko Unibertsitatean bizi dena, eta ni baino bederatzi urte zaharragoa dena, beti izan da irakur zalea. Elgoibarren bazen Pedro Jose Arriola izeneko bat —nahiko aberatsa eta liburuak zituena—, eta beste batzuk ere bai, Jose Mari González, injineru ikasten zebile- na, Manolito Ruiz, honek ere karrera bera ikasten zihar- duen eta gure parean bizi zena... Roman horien laguna zen eta liburu giroan sartu ginen.

Jenaro anaia ere beti izan da liburu zalea, Inazio anaia zaharrenak frantsesa eta ingelesa ikasi zituen. Gure aitak

◆  
«Guztira euskal giroan bizi ginen. Jakin ere, ofizialki giroa erdalduna bazen ere, guztiek zekiten euskaraz»



beti esaten zigun, gauza onerako, liburu gehiegi ikusten zuela etxean.

**Garatetarak ez zaituztegu ikusi bertako lokatzatan harrapatutakoan antzera ibiltzen. Urrutiko intxaurren gose, beti.**

Bai, bai. Jose Luis ere jesuita sartu zen eta Venezuelara joan zen. Roman nazio askotan ibilia da eta neu lau kontinentetan bizi izana... Etxean geratu ziren bakarrak, benetan anaia jatorrak, Inazio eta Nizeto izan ziren. Nizeto, gure aita bezala, jostun, beti *sastre* esan izan duguna. Bartzelonan egon zen ofizio hori ikasten.

**Garai haietako lagunik gordetzen al duzu?**

Ez dut harreman handirik izan harrez geroztik, baina noizbehinka haiekin elkartzen naizenean, poz handia izaten dut. *Naparranekoak* eta. Neure lagunik handienen artean Bixente Untzilla eta Tomas «Bizkai» sartuko nituzke.

Gure adineko nesketan, Isabelita «Txatia»-ri, Ana Mari Iruretari (Irureta restaurantekoa), Libe Iriondori eta beste batzuei, gaztetxo guztiok begi argiz begiratzen genien; politikak eta jator askoak ziren.

Hementxe daukat orduko argazki bat, *Plaza Txikixan* ateratakoa. Futboleko taldekoak gaude hor, kamiseta eta guzti: Ramon Arozena, Sabin eta Xabier Argarate («Naparraneko bikixak»), Inazio Mugertza, Jose M. Beloki, Bixente Untzilla, Jesus Rementería, Sabin Garate (gure lehengusua), Sol, «Plantillerito», Felix Aiesta eta neu. Hamarren bat urte izango nituen nik orduan. Horietxek ziren nire lagunak. Denak neure bihotzean daramatzat.

Gero futbolari oso ona izan zen Ricardo Suarez ere ondo daukat oroimenean. Gu baino nahiko zaharragoa zen eta Goiko Errotako presan igerian ari ginela, lepotik heldu eta ur azpian sartzen gintuen... Holako kontuak ezin ahaztu.

Haurrak, zementu egin berriaren antzekoak izaten dira: ipintzen duzu gainean eskua, eta marka hantxe geratzen da, betiko.

Oso oroitzapen ederrak ditut nik haur garaietatik. Ume guztiok lehenago aipatu dudan Goiko Errota deitzen

den lekura joaten ginen, ibaira. Hantxe ikasi genuen denok igeri egiten. Bai gauza ederra! Eta gero sagarrak lapurtzera, baserriko txakurren beldurrez ginela. Haiek garaiak!

## A BADE NAIZ, JESUITA PRESESKI

### **Itzul gaitezen fede kontuetara: nola hartzen da abade egiteko erabakia?**

Hori oso ezberdina izaten da. Pertsonen arabera da. Gurean aitortu dizut bazegoela etxean bertako zuztar bat. Anaia Jenaro izan zen lehena jesuita sartzen, gero ir-tengo bazen ere. Hark esaten zigun bera oso pozik zegoela eta halaxe jarraitu genion, lehenbizi Romanek, gero Jose Luisek eta azkenean nik, adina iritsi zitzaidanean. Gazteena nintzen eta.

### **Zergatik jesuita?**

Nire kasuan, zalantzarik gabe, anaiek bide hori hartu zutelako izan zen hasieran. Ez naiz sekula damutu. Bi gauza on ditu jesuita izateak: diziplina apur bat eta ikasketa onak egiteko aukera.

Erraztasun ikaragarriak eduki ditugu ikasteko orduan. Esate baterako, hindi ikasten hasi nintzenean, Nagusiarekin berba egin eta berehala bidali ninduten Kalkutara...

San Inazioaren ustea horixe izaten zen: non dagoen beharra, jesuita bertara.

### **Bai, baina zergatik ez Beneditar, edo Frantziskotar?**

Akaso ez nukeen paper txarrik egingo horien artean ere, baina esan dizut umetatik harreman handia izan nuela Loiolarekin. Hala ere, zalantzak eduki nituen, jesuita ala mediku izan behar ote nintzen. Pozik nago orain, egin nuen hautuarekin. Izan ere, osasun arazoak direla eta, mediku artean nabilen honetan, uste dut oso sakrifikatua dela lanbide hori. Eta batez ere, idazteko astirik uzten ez duen horietakoa.

Niri beti gustatu izan zait idaztea, eta mediku izanez gero, lanak azpian hartuko ninduen. Hara, gu ez gaude ez-konduta, ez daukagu zaindu beharreko seme-alabarik, jana prestatzen digute egunero... Goizeko seietan jaiki eta gaue-

ko hamarrak arte asti asko dago. Palan edo tenisean egiten nuen lehen egunero, baina kiroletan ematen nuen denbora kenduta, beste denbora guztia neuretzat. Horretan *milionarioa* naizela esan ohi dut.

**Aski askatasun ba ote du jesuita batek, halako erakunde baten barruan?**

Nik uste baietz. Dena dela, obediencia dago gurean. Nahiko zorrotza, gainera. Baina Nagusiek berehala ikusten dute gauzak nola diren, zertarako balio duzun eta zertarako ez.

Gu 32-33 urterekin egiten ginen apaiz. Gure karrera oso luzea izaten zen, eta denbora ematen zuen zein ezpalekoak ginen jakiteko. Esate baterako, eskolak ematera ikastetxeetara bidaltzen gintuzten, ea horretarakoak ginen jakiteko. Ni Zaragozara bidali ninduten. Zergatik? Euskal Herritik kanpora ikusi nahi nindutela. Bata eta bestea esaten da, baina egia da euskara kontuetan fraide eta mojak ez garela oso fin ibili. Egin genezakeen guztia ez dugula egin, hurrik emanik ere ez.

◆  
«Egia da euskara kontuetan fraide eta mojak ez garela oso fin ibili»  
◆

**Kritika da hori.**

Egia da, ez dakit kritika ote den. Nik barrutik ikusten dut gertaera hori eta min handia ematen dit. Oraintxe bertan ere, hemen Deustuko Unibertsitatean, ez gara euskaraz ehunetik hamar asignatura ematera iristen. Aita Santuak eta, barkamena eskatu izan dute, juduen kontuetan eta, Elizak erakutsitako jokaeragatik. Euskal Herriko moja eta fraideok barkamena eskatzeko gaude oraindik euskara nahiko zapuztua izan dugulako.

Euskararekin epeltxoak izan gara. Esaterako, geure komunitatean berrogei bat lagun gara, hamaika kazeta jasotzen ditugu egunero, baina *Beria* neuk bakarrik irakurtzen dut.

**Zuen Lagundian beti izan dira bi bide nagusi: ortodoxia eta liberazioarena.**

Bai, tradizionalistek, *descalzos* eta *no descalzos* eta halako bihurtu nahi izan gaituzte. Izan dira horrelako ten-

dentziak ere. Ordena guztietan daude batzuk zabalagoak eta besteak itxiagoak. Hori beti izango da horrela.

Konturatuko zinen oraingo kardinal gehienak Joan Paulo II.ak izendatutakoak direla. Ez da harritzekoa Ratzinger aukeratu izana Aita Santutarako. Nork bere irizki-dea du maiteena.

Jesuiton artean, denetariakoak gaudela uste dut. Ene iritziz, euskal kulturari atzeratutakoak gelditu gara jesuitok. Sekulako indarra eduki izan dugu hemen: ikastetxeak, argitaldариak, irratiak...

Horixe dut nik bizitzako penarik handienetako bat, guztira gutxi egin dugula euskararen alde. Esan nahi dut, ez dugula geure indarraren arabera euskal kulturaren alde lan egin.

### **Nola izan da hori?**

Jesuita sartzen ziren gehienak, jesuiten ikastetxeetatik etortzen ziren. Eta non zeuden ikastetxe horiek? Hiri handietan, jakina. Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean... Euskaraz egiten ez den hirietan. Gazte horiek ez zekiten euskaraz. Herri txikietako jende gutxi sartzen zen jesuita.

Zoritxarrez, nobiziatuan eta hurrengo urteetan jesuita gazte horiek latina, grekoa eta beste hizkuntzak ikasten zizuten. Euskaraz ez.

### **Fede krisirik ezagutu duzu?**

Denok ezagutzen dugu hori. Sinesmena zuzen ikusten ez den zerbait da eta sinesmen horren ardatzean ematen duzu zeure bizitza. Normala da krisiak izatea.

Haurtzaroan besteak esandakoa sinesten duzu, baina gaztetan sinesmenaren arrazoiak zeure baitan aurkitzen hasten zara. Zeure buruari galdetzen diozu: benetan Jaungoikorik ba ote dago? Ze oinarri dago hori sinesteko? Lehenago edo beranduago, denoi gertatzen zaigu hori. Hel-dutasunaren marka da.

### **Latza behar du izan, derrigor.**

Krisia alderdi askotan gertatzen da. New Yorken kontseilari ibiltzen naiz, eta gauza asko ikusten ditut han. Guraso askok eta askok, berrogei urte inguruko buelta horre-

tan, krisian (hots, grekoz *krisis* azterketa da) sartzen direla eta beren buruei galdetzen dietela: nire bizitza zer izan da?

Gaztetan idealismoa da nagusi. Deustuko Unibertsitate honetan ederki ikusten da hori, bikote gazteak nola ibiltzen diren, pozez eta itxaropenez beteak, lainorik ez duen zeru urdinean, ezkontza paradisua dela amets eginenez...

Batzuei ez zaie gustatzen gazteak laztantzen jardutea. Niri bai. Ederra da jendea maitasunean ikustea. Jaungoikoari eskatzen diot, txikle baten antzera kiribilduta dauden gazte horiek, jarrai dezatela beren bizitza osoan maitasun horretan...

New Yorkeko gure auzoan senar-emazteetan % 70 banandu egin dira. Zoritxarrez, hasierako maitasun hori puskatu egin da.

### **Fede krisiaz ari ginen, ordea.**

Bai, bizitzak erakusten dizu gaztetako ametsak ez direla beti betetzen. Sinesmenean tinko bazaude ere zeuri buruari galdetzen diozu: merezi du jesuita segitzea, bai ala ez?

Orduan zeure bizitzaren galdu-gordeak balantzan ipintzen dituzu. Alderdi neketsuak eta alderdi onak. Fedearen eta bizitzaren kontuak, biak, ezartzen dira balantzan.

Jesuita sartu zara jendea Jaungoikoarengana eramateko. Niretzat batez ere euskal kulturaren inguruan dabiltzanei laguntzea izan da horretarako bidea.

Ni apaiz izan ez banintz ez nintzen ia 40 urtez 23 balse ritan euskara aztertzen jardungo, eta ez nituen 30 liburu idatziko. Hori, adibidez, balantzaren plater batean ipintzen duzu. Bestean zeri uko egin diozun: emakume batekin elkartzea, familia izatea (ni oso haur zale naiz), independente izatea, hots, inongo nagusiren azpian ez egotea...

**Alabaina, komunitatean bizi zara, erretiraturik, no-labait. Segur naiz jendeak ikusten zaituenean, «hara, hor da to non hori abadea da» esango du, norberak abadeentzat dauzkan aurreiritzi guztiekin.**

Bai, bai, hori halaxe da. Gu ez gara besteak bezalakoak, ez dugu ezagutu aita izatearen eta seme-alabak edukitzea-

ren dimentsioa. Hori gauza oso garrantzizkoa da bizitzan eta uko egin diogu dimentsio horri. Dударik gabe gu motzak gara horretan.

**Zein da gaur abade batek, jesuita batek, daukan zeregina gizartean?**

Jesuita edo apaiz baten lana jendeari Jainkoarenganako bidea erakustea eta erraz egitea da.

Apaiz batek ezin du dimentsio espiritual hori ahaztu.

Beste aldetik apaizak justiziaren alde lan egin behar du. Justizia maitasunari lotua dago. Justiziarik gabe ez dago ez maitasunik eta ez bakerik.



«Apaiz bat beti saiatu behar da giza eskubideen alde ateratzen.

Batez ere zapalduen eskubideen alde»



Apaiz batek beti gogoan eduki behar du mundu honetako gauzarik handiena maitasuna dela. Oinarria: justizia.

Apaiz bat beti saiatu behar da giza eskubideen alde ateratzen. Batez ere zapalduen eskubideen alde: pobreen, emakumeen eta herri azpiratuen alde.

Euskal Herrian apaiza euskararen alde agertu behar da, hizkuntza hori baztertua eta desegina dagoelako. Eta lau hegaletara aldarrikatu behar du Euskal Herriak eskubidea duela bere etorkizuna erabakitzeko, hots, autodeterminazioaren eskubidea aldarrikatu behar du.

**Azkenean zerurik ez balego, hala ere, ontzat emango zenuke zeure bizitza?**

Niretzat hori hipotesi hutsa da. Baina halere, bai, se-guru asko. Hau da, badira jokabide etiko batzuk erlijioaz aparte daudenak eta balio dutenak. Justiziaren, maitasunaren, bakearen alde lan egitea... erlijioaren gainetik dago. Hau da, erlijiorik ez duten gizaki askok lan bikaina egin dute eta egiten dute balio horien alde.

Gure herrian ere asko dira sinesmenik ez, baina justiziaren, euskararen eta autodeterminazioaren alde lan txalogarria egiten dutenak.

Azken kontuan gizakien neurria beren eginek ematen dute. Ongiaren alde ahalegintzen direnak, bide zuzenetik doaz.

## IKASI, IKASI ETA IKASI

Jesuita hemeretzi urte bete nituen egunean sartu nintzen Loiolan. Nobizio bi urte egin behar ziren, nahiz eta beste ordena batzuetan urtebeteko nobiziatua izaten den. Nobiziatuan bizitza espiritualari sutsu ekin eta latina eta grekoa ikasten genituen.

Nobiziatua amaitutakoan, «junioratua» zeritzana egiten genuen. Bi edo hiru urte izaten ziren, ikasketa klasikoak egiteko, Lauaxetak egin zuen bezala. Hark eta biok berdin-berdin egin genituen filosofia arteko ikasketak. Idatzi nuen horretaz artikulu bat *Karmelen*: «Lauaxeta Jesusen Lagundian». Lauaxeta Filosofia egiten ari zela irten zen jesuistetatik, Oñako monastegitik. Ni azken urteotan Lauaxetaren jesuita lagunekin bizi izan naiz Deustun: Leon Lopetegirekin, Daniel Gastonekin...

*Elhuyar Entziklopediak* eta beste batzuek esaten dute apaiz egiteko zorian zegoela Lauaxeta, baina hori ez da horrela. Apaiz izateko zazpi urte falta zituen. Filosofia urte bete, hiru urte magisteritza, hots, ikastetxe batean irakasle jardutea eta hiru urte teologia egin behar zituen apaiz izateko.

Junioratuko urteetan, esan bezala, ikasketa klasikoak egiten genituen, Greziako literatura, Sofokles, Demostenes, Platon..., erromatar literatura, Virgilio, Horazio..., eta bai Espainiako bai munduko idazlerik onenak, Shakespeare, Dostoievski, Faulkner... ikasten.

Bestalde hizkuntzak ikasteko aukera handiak genituen. Nik lehendik frantsesa eta ingelesa lardaskatzen nituen eta alemana ikasten hasia nintzen. Junioratuan horiek hobeagotu eta alemanari eta errusierari gogor ekin nien. Geroztik hizkuntzak ikasteari eta praktikatzeari ez diot utzi sekula. Hizkuntzak ikastea izan da umetatik nire zaletasun handienetako bat. Mintzatzeko bederatzi ikasi nituen eta irakurtzeko bat, grekoa.



### **Atsegin zenuen hori guztia?**

Bai, asko. Eta mesede handia egin dit hizkuntzak jakiteak. Mundu zabalean ibiltzeko eta liburuak irakurtzeko. Europa guztian ibili naiz, Moskutik hasi eta Italiaraino, Afrikan, Asian eta ia berrogei urtez New Yorken eman izan dut uda.

Grekoz jakiteak bidea paratu zidan Zaragozako El Salvador ikastetxean greziar literaturaren irakasle izateko.

Ikastetxe horretan nengoela oso lagun egin nuen Co-rellako gizon bat. Espainiako gerla zibila zela eta, umetatik Errusiara joana zen. Errusieraz zoragarri egiten zuen eta berarekin aritzen nintzen errusieraz. Oso jatorra zen. Ni Innsbruckera joan eta eskutitzak idazten zizkidan. Oso pozik zegoela, motorra erosi zuelako. Luzaro gabe motorrez zihoala, Casetasen kamioi baten kontra jo eta hantxe bertan hil zen.

### **Latina ere garai hartan asko ikasi beharko zenuten.**

Bai horixe! Guk geure ume denboran, orduko batxilergoan, latin asko ikasi behar izaten genuen.

Jesuita sartu eta zer esanik ez! Behartuta geunden atsedendietan, errekreoetan ere latinez hitz egitera, praktikatzeko. Latin makarronikoa esaten dena hitz egiten genuen, ez oso klasikoa. Hori bai, erraztasun handiz. Sermoia ere latinez egin behar izaten genuen; gaztelaniaz ere bai, baina latinez ere bai.

Gero, hiru urtez, Filosofia egin nuen. Ez dakit entzuna izango duzun baina lehenago Oñan (Burgos) izaten zen. Gero, ordea, aldatu egin zuten eta nik Loiolan bertan egin nuen. Niretzat zoragarria izan zen.

### **Zer dela eta?**

Loiolan euskaraz sarri egiten genuelako. Niretzat euskara bizitzaren ardatza zen. Guk, euskaldunok, harreman estua genuen Loiolako umeekin eta umeen bidez beren familiarekin. Haurrei egunero ematen genien dotrina.

Jesuitok osteguna genuen geure egun librea, nora edo hara joateko. Goizean dotrina ematera Kukuerrri izeneko Azkoitiko auzora joaten ginen eta arratsaldean, berriz,

Urrestillara. Gustura ibiltzen ginen Urrestillako frontoian umeekin pilotan-eta. Orduan ezagutu nuen «Jautarkol» olerkari famatua. Adiskidetu ere bai. Urrestillako erretore zen. Gizon leuna eta atsegina eta abertzale zintzoa. Eta jakina, bai Kukuerrin eta bai Urrestillan euskaraz. Zoragarria!

### **Ez dirudi gauza oso handia denik.**

Ba, bai. Nik ordurako euskara oso maite nuen. Urrestillan bertan gauza aipagarri bat gertatu zitzaidan. Mutil batek lehenengo Jaunartzea egin behar zuen. Guk haur guztiak euskaraz preparatzen genituen.

Mutiko hark, ordea, erdaraz nahi zuen, euskaraz oso ederki jakinagatik. «Non bizi gara?», galdetu nion nik orduan. Mutikoaren gurasoak haserreturik Loiolako gure erretorearengana joan ziren eta nire kontra salaketa egin zioten, nik haurrak Jaunartzea euskaraz egitera behartzen nituela eta. Erretorea Francisco Ibiricu zen, euskarari inongo maitasunik ez ziona. Berarengana deitu eta gogortxo erasiatu ninduen.

### **Herritarekin izan zenuen harremanaz diharduzu.**

Bai, Loiolan bertan gauero joaten nintzen baserritarrei eskolak ematera Loiolatxo deitzen genuen gure etxe ondoko egoitzara. Baserritarrak, lana bukatu eta ikastera etortzen ziren. Han ezagutu nuen, esate baterako, ikasle jator izan zen Joxe Mari Bastida, urte askoan Azpeitiko alkate izango zena.

### **O rduko giroa eta gaurkoa berdinak al dira?**

Euskara kontuan handik hona asko aldatu dira gauzak, onerako. Nik uste oraingo gurasoek badakitela euskara ez jakitea beren seme-alabentzat kaltegarria dela. Orduan ezertarako ez zuela balio eta errazki uzten zen bazterrean. Jakina, euskararen etsaiak uste hori nonahi zabaltzen saiatzen ziren. Euskara boronoen eta ezjakinen hizkuntza zela.

◆  
«Euskararen etsaiak uste hori nonahi zabaltzen saiatzen ziren, euskara boronoen eta ezjakinen hizkuntza zela»

### Zure formazioaz ari ginen.

Esan dizut: bi urte nobiziatu, bi urte junioratu deitzen genuena, hiru urte filosofia Loiolan eta gero beste bi edo hiru ikastetxetan frogatu moduan. Nik bi urte egin nituen irakasle Zaragozan, El Salvador ikastetxean. Aurreko urteetan ikasitako gaiak erakusten genituen ikastetxeetan. Niri grekoa eta filosofia irakasteko esan zidaten. Beste batzuek matematika, edo espainol literatura edo... 17-18 urte inguruko ikasleekin aritu nintzen.

Zaragozako ikastetxe horretan bazen barnetegia ere, *internadoa*. Hor baziren Donostiako ikasle batzuk. Horiei nik igandetan euskara irakasten nien, beren lagunek zirenean ikusten zuten bitartean. Horien artean Eizagirre bat zegoen; orain Donostian mediku dela uste dut, Irungo Ur-dangarain, gero injineru izango zena, matematika kontuetan oso buru azkarra...

### Eta gero?

Gero Teologia ikastera Innsbruckera (Austria) joan nintzen. Karl Rahner, beharbada XX. gizaldiko teologorik onena, eta Jungmann irakasle izan nituen. Alemanez jarduten genuen egun guztian. Baina nik orduan eta gero Friburgon ere, eskoletan irakasleek alemanez esaten zutena euskaraz idazten nuen. Orduan ere nire bidea euskaraz zela ikusten nuen.

Ni beti oso kirol zalea izan naiz. Beti erdipurdikoa baina bai zaletua. Pilotan, palaz, tenisean urte eta urteetan jardun izan dut. Innsbrucken eskiatzen ikasi nuen. Nahi eta ez. Han elurra batzuetan irailean hasten zen. Niretzat kirol guztietan ederrena eskiatzea. Gero Suitzan bi urtez eta Deustuko Unibertsitatetik joanda Frantziako Alpeetan, Chamonixen eta, sarritan jardun nuen eskiatzen.

Innsbrucken lagunekin eskiatzen ari ginela, gelditu eta batzuetan kantatzen hasten ginen. Niri euskaraz kantatzeko eskatzen zidaten. Nik Iparagiriaren kantuak eta, kantatzen nituen. Ez ezagunak elkartzen zitzaizkigun eta galdetu egiten zuten zein hizkuntzaz ari nintzen. Euskara zela. Batzuek orduan lehengo aldiz entzun zuten bazela euskara deritzan hizkuntza bat.

### **Zenbat denbora eman zenuen Innsbrucken?**

Innsbrucken lau urtez egon nintzen, baina hirugarren urtean Euskal Herrira etorri nintzen orain Venezuelan da goen gure anaia Jose Luisekin batera apaiz egiteko Loiolan. Hura Oñan ari zen Teologia ikasten eta biok batera apaiz egitearren itzuli nintzen, baina laugarren kurtsoa ere atzera Innsbrucken egin nuen. Beraz, apaiz eginda itzuli nintzen hara.

Normalean, apaiztegietan, Teologia amaitu eta gero egiten zen apaiz baina gu ez; gu beti hirugarren urtean. Ni hogeita hamaika urterekin eta anaia hogeita hamahirurekin.

### **Apaiz egin ostean zer?**

Innsbrucketik etorri nintzen laugarren urtea bukatuta, eta gero hilabete batzuk Cordoban egin nituen. Jesuitok beti izan dugu karrera bukatu ondoren beste nobiziatu antzeko bat gogo-jardunak egiteko eta bizitza espiritualean sendotzeko. Lanean hasi baino lehenago, nolabait, espiritu aldetik fleitean eta sasoiko egoteko. Hori amaitu ostean, bi urtez egon nintzen Suitzako Friburgon marxismoan espezializatzen.

Friburgon zegoen orduan Ramon Sazarbitoria ekonomia karrera egiten. Orduantxe idatzi zuen *Egunero hasten delako*. Noiz edo behin musean elkarrekin jokatu genuen. Artean ez zen horren ezaguna.

Hantxe ezagutu nituen «Txato» Agirre eta Gaintzako gazte jator bat, biak Euskal Herritik ihes egindakoak.

### **Inaziora gerlari bat etsaiaren ikasgaiak ikasten.**

Nik ez nuen kontua horrela ikusten. Orain dela berrogei urte, mutil jator eta langileek uste hori zuten. Marxismoak eta komunismoak gizartea hobetzen lagunduko zutela. Halaxe hasi nintzen gai hori aztertzen. Errusieraz eta alemanez nekielako, nagusiek komunismoan espezializatzeke esan zidaten. Gero Deustuko Unibertsitatean irakasteko.

MARX ETA JESUKRISTO, BESTEAK BESTE

*(Gotzon Garateren bulegoan ari gara elkarrizketa hau egiten. Bizpahiru bider jo dio telefonoak mintzatzen hasi garenetik. Amatatu egin dugu grabagailua, elkarrizketa intimoak baitira. Nahi gabe ere entzun egin behar bere arrapostuak. Telefonoan beste aldean, ikasleak dira, edo ikasle izandakoak. Emakumezkoak, batez ere. Arazoak dituzte. Gotzonekin egiten dute hitz. Berari eskatzen diote aholku edo, bederen, berarekin aurkitzen dutela kontsolamendua dirudi. Gotzonek geroko uzten ditu hitzorduak. Orain ezin dituela artatu. Hala ere, animo hitzak dira bereak, egongo direla elkarrekin beranduago, hitz egingo dutela lasai, ez kezkatzeko...*

*Begiak galtzen zaizkit bulegoko bazterretan. Han hemen ka gurutzeren bat ageri da, Ama Birjinaren bat ere bai. Dekorazioa ez da beste mundukoa. Lanerako lekua da. Mundutik erretiratzeko zulo bat. Liburuak gainezka, trumilka, apaletan eta nonahi. Gehienek aspaldiko edizioak dirudite. Hizkuntza guztietan daude eta hizki zirilikoak eta nik ezagutzen ez ditudan beste hainbat grafia egiten zaizkit nabari. Ondamua sentitzen dut. Gizon honek munduko hizkuntza guztiak ezagutzen dituela dirudi. Jatorrizko hizkuntzetan ezagutzen ditu Literatutura Unibertsaleko lanik behinenak. Filosofo eta pentsalariak ere, itumetatik ezagutzen ditu baldin eta bere bulegoan dauzkan denak irakurri baditu. Eta badakit irakurri dituela. Horiek guztiak eta gehiago. Telefonoa eten eta apalategietako bat seinalatzen dit Gotzonek. Bilduma bat da, azal urdin iluna eta tipula-paper finezko orrialdeak dituzten horietakoak. Iruditzen zait bizitza baten erdia edo herena, gutxienez, behar dela horiek guztiak irakurri ahal izateko).*

Hor ikusten dituzun liburu urdin horiek guztiak Leninek idatzitako berrogeita hemezortzi liburu dira. Friburgotik Deustura itzuli nintzenean, Lenini buruz hitz egin behar nuenez gero, beraren lan guztiak eskuratu behar nituela pentsatu nuen. Moskura idatzi nuen, Alderdi Komunistara, eta liburu horiek guztiak hiru mila pezetaren truke lortu nituen. Jakina, beraiantzat ere propaganda zen. Errusieraz idatzita daude. Parisera bidali zituzten lehenengo eta handik Hendaiara, debekatuak baitzeuden hemen. Francoren denborak ziren. Beraz, lagun batekin joan nintzen furgoneta batean eta azpian ezkutatuta pasatu geni-

tuen liburuok. Nik ez dut uste Espainiar Estatuan toki askotan egongo direnik liburu horiek. Erlikia bat bezala dauzkat hor. Errusian bertan ere orain Lenini ez diote kasu handirik egiten eta ez dira berriz argitaratuko. Bibliofiloentzat balio handikoak dira.

**Abadea bekatuan orduan; horiek kontrabandoan ekartzen eta...**

Kar, kar, kar... (barre egiten du, ezer erantzun gabe).

**Hemengo gazteria Marxekin liluratuta zegoela ari zinen esaten. Zer eman dizu zuri Marx ikasteak?**

Lehenengo eta behin, komunistekin eta neure ikasleekin hitz egiteko bidea erraztu zidan. Soziologian, Komertzialean, Historian eta Filologian ematen nituen eskolak. Nik uste, Karl Marxek bizitza guztirako eman zidala justiziaren zentzua. Gaur egunean, esaterako, asko hitz egiten da bakeaz. Baina entzuten al duzu justizia eta maitasunari buruzko hitzik? Ez eta bat ere! Joera dugu bakea euria bezala, goitik behera, etorriko zaigula pentsatzekoa. Hori ez da horrela. Mundua hankaz gora dago. Begira Hego Ameriketara, Iraken, Asia Hurbilean, Afrikan, nonahi. Zer bake arraio itxaroten dugu sortzea?

**Zeuk jakingo duzu hori.**

Friburgotik etorri eta lagun batzuk kezkatuak aurkitu nituen. 1969 inguruan zen. Nerbioi Ezker Aldeko komunistek agiri bat argitaratu zuten, abertzaletasuna kalterako zela esanez. Abertzaletasunak langileak zatitu eta banandu egiten zituela esaten zuen agiri horrek. Alde batetik euskaldunak eta bestetik erdaldunak. Euskara eta Euskal Herriaren independentzia bigarren mailako kontuak zirela.

Erantzun agiri bat egiteko eskatu zidaten. Horrela egin genuen. Puntu batean arrazoia ematen genien. Komunista horien azterketa ona zen. Esan ere, Karl Marxek bere *Komunisten Agiria* famatuan horixe esaten zuen: ko-

◆  
«Nik uste, Karl Marxek bizitza guztirako eman zidala justiziaren zentzua»

◆

munistek nazioaren gainetik langileen batasuna, klaseen borroka eta iraultza ipini behar zutela.

### Hitz potolo-potoloak.

Bai. Kontua hauxe zen: ea Marxek esaten zuena egia ote zen. Bera judua zen eta nolabait aberri gabekoa, Alemaniatic alde egin eta Ingalaterran bizi izana. Ez zuen ulertu askorentzat aberriak zer-nolako indarra duen. Ikus ezazu orain juduak berak Israelen nola dabilzan. Marxen ustearen kontra, hain zuzen ere, hiru Internazional Komunistak horrexegatik hondatu ziren. Gerlak agertu zirenean, franko-prusiar gerla (1870) eta lehen eta bigarren mundu gerratea (1914 eta 1939), beti langileak lehenik bere aberriaren alde borrokatu ziren eta ez beste nazioetako langileriaren alde. Historiak erakusten du, edozeinentzat lehenago datorrela bere herriaren independentzia, klaseen borroka eta iraultza baino. Nork bere herria maiteago duela, kanpoko langileak baino.

Eta Euskal Herrian langile abertzaleak prestuago zeudela bere Herriaren alde lan egiteko, Espainiako langileen alde baino. Hain zuzen ere, Euskal Herria zapaltzeko, espainol langileak espainol burgesak bezain sutuki ari zirela. Euskara bera ere, errespetatzen, espainol langileak ez zirela nagusiak baino hobeak.

### Arraioa!

Horrelako puntu batzuk ukitu genituen eta Ezkerreko Aldean zabaldu genuen agiri hori. Nik puntu horiek neure *Marx y los nacionalismos separatistas* doktore tesian jorratuak nituen. Liburu horren erdia euskaratu egin zuen Dionisio Amundarainek euskara zoragarritz. Mensajero argitaletxeak argitaratu zuen *Marx eta nazioa* izenarekin. Gutxi dira Euskal Herri osoan euskaraz Dionisiok bezain ongi idazten dutenak.

### Euri apur bat egin du handik hona.

Orain giroa oso bestelakoa da, eta orduko komunisten agiria nahiko utopikoa iruditzen zaigu. Orduan, ordea, langile eta estudiante komunista zintzo askok, gizarteko problema nagusiak konpontzeko erremedio onena eta ba-

karra komunismoa zela uste zuten. Artean komunismoa, Sobiet Batasunean batez ere, indarrean zegoen. Nazio hori komunista askorentzat argi dorre distiratsua zen.

### **Marx ote da gaur ere bidea?**

Marx pentsalari oso handia da. Alde handia dago Marxen, Leninen eta Maoren artean.

Lenin langile amorratua zen. Bere trebetasunari esker eskuratu zuen agintea Errusian, Alderdi Komunista talde txikia izan arren.

Gizon oso zintzoa zen. Hots, komunismoan buru eta belami sinesten zuen. Komunismoa gizartearentzat egiazko soluzioa zela uste zuen. Azkenean, ordea, hil baino lehenago (1924), gauzak berak uste baino korapilatsuagoak direla ikusi zuen. Borondate ona ez dela aski. Orain ere gauza bertsua ikusten dugu Brasilgo Lula da Silvarekin.

Leninek, gizartea zuzen eraman ahal izateko, Alderdi Komunistari izugarriko boterea eman zion. Stalin botere horretaz baliatu zen, diktadura zorrotza ezartzeko. Ezin litezke berdindu, halere, Lenin eta Stalin. Leninen baitan ez ditugu ikusten Stalinen baitan ikusten ditugun botere egarrria, ankerkeria eta bengantza grina.

Mao Zedong estrategia handia izan zen. Hortxe daukat gerrillari buruzko bere liburuak. Hor esaten dituenak ipini zituen berak praktikan. Horrela eman zion egurra Txan Kai Xeki, inork uste ez zuena. Bere estrategia nonahi erabilia izan da. Baina teoria aldetik ez da hain ona.

Gauza batekin asmatu zuen Maok. Marxek uste zuen Europako nazio industrializatuek egingo zutela iraultza komunista. Maok garbi esan zuen ezetz. Europako nazioetako langileria ongi bizi zela eta ez zuela iraultzarik egiteko gogorik.

### **Gauza garbia dirudi horrek gaur.**

Nazio pobreetan, hirugarren munduko nazioetan gertatuko zela iraultza komunista. Horixe esaten zuen, eta horretan nahikoa zuzen ibili zela esan liteke. Iraultza mi-seriak ekartzen zuela, ez industriako aurrerapenek.

Egun jende gutxik irakurtzen ditu Leninen eta Maoren lanak. Txinan bertan ere ez gehiegi. Moskun bizi izan nint-



zenean, orain Lenin oso baztertua dutela ikusi nuen. Nire Moskuko etxeko lagunak komunista sutsuak dira. Ez zuten, baina, Lenin irakurtzen, gizartean orain pisu txikia duelako.

Komunismoa indarrean zegoenean, eztabaidetan argumenturik handiena Leninen hitzak ziren: «Leninek gai honetaz hauxe esan zuen....». Kito! Ez zegoen kontra egiterik.

### **Baina, Marx?**

Marx beste kontu bat da. Filosofo zorrotza zen. Pent-salari argia. Idazten zuena sakon idatzita dagoela ikusiko duzu. Ongi ezagutzen zituen gizarteko egiturak eta nahas-menduak.

Esate baterako, prentsa askatasunari buruz esan zuena irakurtzen badiozu, konturatuko zara gaur egunerako ere balio dutela hark esandakoek. Asko ikasten da haren idazkiak irakurritz.

### **Ez zen oso normala izango abade bat Marx estudiantzen ikustea.**

Ez, egia esan behar bada, ez da hain ohikoa. Ni ez naiz bakarra, hala eta guztiz ere. Joxe Azurmendik ere ongi aztertu zuen Marx eta liburu bikainak idatzi zituen hari buruz.

Marx ikasi nuenean, bere alderdi onak ikusi nituen. Marxek gizarte kapitalistaren gaixotasuna oso ederki ikusi zuen. Sendatzeko eman zituen erremedioak, ordea, ez ziren egokiak.

### **Nola da hori?**

Gauza bat da norbaitek pankrean min-bizia duela garbi ikustea, eta beste bat sendatzeko erremedioak aurkitzea.

Marxek, esan ere, Owen, Saint-Simon eta Fourier *sozialista utopikoak* zirela esaten zuen. Bera ere, justiziaren alde lan bikaina egin arren, gizarteko gaixotasuna sendatzeko eman zituen erremedioetan nahiko utopikoa izan zen. Erremedioak ez ziren onak izan.

◆  
«Marxek kapitalismoaren gaixotasuna oso ederki ikusi zuen.

Sendatzeko erremedioak, ordea, ez ziren egokiak»



Marxek uste zuen, gizarteko produkzio indarrak, hau da, fabrikak eta lan egiteko iturriak, nagusiei kendu eta herriaren eskuetan ezarri gero etorriko zela justizia. Zoritxarrez, gauzak askoz korapilatsuagoak dira.

### **Zer gatik korapilatsuagoak?**

Geroxeago beste judutar batek, Sigmund Freud-ek idatzitako *Ametsen interpretazioa* izeneko liburuan eta beste liburu batzuetan, gizonaren beste alderdi batzuk oso sakon aztertu ziren.

Gizakia ez da soilki gogo eta buru, Marxek uste bezala. Arazoia gauza bat da, baina grinek eta kontzientziaren azpiko indarrek ere osatzen dute gizakiaren izaera. Produkzio indarrek jauntxoei kendu arren, gizakien grinak eta joerak hor daude bizi-bizirik. Sarri injustiziara eramaten dutenak. Gizartean ekonomiak eragin handia du, bai, baina ekonomia sendaturik ere, hor dago gizakia, bere alderdi on eta txarrekin.

Bide batez esan dezagun, gaur egun, oso kritikatuak direla Freuden teoriak, Ameriketako, Europan eta baita Austrian bertan ere, baina hark esandako puntu batean bete-betean asmatu zuela uste dut: gizonaren baitan kontzientzia azpiko grinek, irritsek, gorrotoak eta gutiziek eragin handia dutela.

### **Giza-abereaz diharduzu.**

Zaharra naiz, abade naizelako asko entzuna eta gizarte-kontseilari moduan egin izan dut lan New Yorken eta... gauza garrantzizko bat daukat argi eta garbi, mila kasutan ikusi baitut gauza bera: Freudek ongi esaten zuen bezala hautzarko esperientziek izugarrizko indarra dute. Bamean geratzen dira betiko, nahiz eta batzuetan konturatu ez.

Gertatu izan zait, esate baterako, Donostian hitzaldi bat egitea kontu hauen inguruan, nola umetako esperientziek, norbera konturatzen ez bada ere, indar handia izaten dutela geroago... Eta guraso batzuk etorri, esanez bere alabari gertatu zitzaioala horrelako zerbait. Euren alaba oso txikia zela, bera baino zaharxeago zen mutil batek bortxatu egin zuela bera konturatu ere egin gabe, baina geroztik

izugarritzko beldurra ziela gizionezkoei. Gertatutakoa alabari esatea komeni ote zen galdetu zidaten.

Umetako gorabeherak betiko geratzen dira norberaren baitan. Nola edo hala.

**Erljioa, ordea, herrien opioa omen. Zer pentsatzen zuen horretaz Garate gazteak?**

Hara, Marx judua zen, aita errabinoa zuen, gainera. Krisia izan zuen fede kontuetan. Engels bere lagun minak askoz handiagoa. Sinesmena galdu zuten. Sinesmena, oinarritu ere, zuzen ikusten ez denaren gainean oinarritzen da.

Azken kontuan teologiaren galdera nagusia hauxe da: Jesukristo Jaungoikoa ote den. Hortxe dago kakoa, hortxe laburbiltzen da problematika guztia.

**Kristo Jaungoikoa izan ezean, Jaungoikorik ezin dela izan ari zara esaten?**

Probatzen zail dela. Jakina, hor egongo da beti galdera bat. Zerbait betidanikoa, eternoa dela. Materia eternoa ez bada, beste zerbait da eternoa, materia sortu duena. Eta munduko eboluzioa eta ordena nork zuzendu dituen.

Baina puntu nagusia ilunpetan legoke. Jaungoikoa bada ere, ea gurekin harremanik ba ote duen. Ze ardura guri Jaungoikoaz, Bera gutaz arduratzen ez bada?

Jaungoikoa gutaz arduratzen dela sinesteko, Berak hitz egin behar digu. Nik Jesukristo Jaungoikoa dela sinesten dut eta horregatik esaten duena ere bai. Nire bizitzan ondorio horretaraxe iritsi naiz. Jesukristo Jaungoiko dela sinesten ez duen pertsonak oso erraz agnostizismora joko du.

Gure kultura greko-latinoan bizi direnez ari naiz. Jakina, hor daude musulmanak eta, Jesukristogan sinetsi ez eta Jaungoikoarengan sinesten dutenak.

**Zer gertatzen da orduan beste erlijioetako Jaungoikoekin? Diozun bezala, haiek ez dute Jesukristorekin sinesten.**

Jaungoikoa definizioz bat eta bakarra da; bestela ez da Jaungoikoa. Bi baleude ez legoke Jaungoikorik. Gure gaitetik dagoen hori nondik ikusten den dago ezberdintasu-

na; batzuek budismotik, Koranetik... guk beste alde bate-  
tik, baina Jaungoikoa bat eta bera da.

Diferentzia hementxe dago: erlijio horiek guztiak gi-  
zonek sortuak direla. Beraiek aitortzen dute hori. Gurea Je-  
sukristok, hots, Jainkoak sortua dela aitortzen dugu. Hori  
katoliko guztiak eta protestante adar guztiak sinesten du-  
gu. Protestanteetan 600 adar diferente omen daude. Baina  
guztiak Jesukristo Jainkoa dela sinesten dute.

Dena dela errespetu handia izan behar diegu beste er-  
lijioetan daudenei. Hemen eta batez ere New Yorken Jeho-  
varen Lekukoekin, mormoiekin eta protestanteekin harre-  
man oso onak izan ditut beti, komunistekin bezalaxe.

### **Erljioaren egoera nola ikusten duzu?**

Hemen, Europan, Euskal Herrian batez ere, erlijioak  
beherakada handia izan du. Euskaldunok erraz jotzen du-  
gu muturretara. *Euskaldun fededunetik* erlijioa baztertera.  
Beste kontinenteetan pixka bat diferenteak dira kontuak,  
Asian, Ameriketean eta.

Ipar Ameriketean, adibidez, erlijioari errespetu handia  
diote oraindik ere. Han ez da sekula gertatu Espainian ger-  
tatu izan den antiklerikalismoa. Aldiz, behintzat, erlijioa  
eta Estatua berezirik ibili direlako.

Han giroa ezberdina da. Bistakoa da hori. Bush da et-  
senplua.

### **Jesuitak gerlariak zarete, teoriar behintzat.**

Nahikoa zabalak ere bai. Horregatik hil zituzten Ellaku-  
ria eta bere lagunak El Salvadorren. Ezin dugu ahaztu Jesu-  
kristok sortu zuen erlijioan maitasuna dela nagusi. Hori  
behin eta berriz, nekatu gabe esan zigun. Zoritxarrez, ez du-  
gu oinarri-oinamizko eta lehen-leheneko agindu hori bete.

Jesukristoren esana gogoan edukita, jendearekin tra-  
tatzerakoan beti pentsatu izan dut bi baldintza bete behar  
direla: maitasuna eta errespetua. Biak dira beharrezkoak.  
Bata bestea gabe herren gelditzen da. Horregatik hemen  
Deustuko Unibertsitatean, ni ikasleekin 37 urtean prime-  
ran konpondu naiz beti. Lagun asko egin ditut ikasleen ar-  
tean. Etsairik bat ere ez, uste dut.

Erljioarekin ere gauza bera. Beste erlijioen alderdi onak ikusi behar dira. Jehovaren Lekukoak, konparazione, langile porrokatuak dira. Beti erakusten diet neure estimua. Beren fundatzailea, Russell, gizon karana zela esaten diet, borondate onekoa, baina gizona, geu bezalakoxea. Edonork sor dezake *Bere moduko Eliza bat*. Baita neuk ere. Ordea, ni katolikoa naizela, Jesukristo Jaungoikoa dela sinesten dudala eta nik Jaungoikoak esandakoa onartzen dudala. Jesukristo Jaungoikoa ez dela uste izango banu, erlijio guztiak utziko nituzkeela. Sekula ez nukeela onartuko gizon batek sortutako erlijiorik.

New Yorken holakoak esan Jehovaren Lekukoei eta beti adiskide gelditu izan gara.

### **Erljio guztiek bat egingo al dute?**

Horixe nahi zuen Jesukristok. «Denak bat izan zaitezten nahi dut; badira ardi batzuk nire artaldekoak ez direnak eta horiek ere...». Nik, ordea, oso zail ikusten dut batasun hori. Protestante eta ortodoxoekin errazago, baina musulmanekin batez ere, zaila baino zailago.

◆  
«Globalizazioak alde oso txarrak ditu, baina on batzuk ere bai. Kultura zabaldu egiten du eta kulturak egia ekartzen du»

### **Horiekin nola konpondu behar da?**

Beti maitasunez eta errespetuz. Musulmanak buru beroak, fanatikoak direla esaten dute batzuek. Musulmanen kontuan politika eta erlijioa nahasturik daude kasu batzuetan. Israelen eta palestinarren arteko istiluak oso latzak dira. Ia musulman guztiak palestinarren alde daude eta Israelen kontra.

◆  
Nik Estatu Batuetan garbi ikusi izan dut, amerikarrak eskuarki eta batez ere juduak, Israelen alde daudela. Diru piloa bidaltzen diete israeldarrei.

Orduan, musulmanen artean dagoen israeldarren kontrako ezinikusia amerikarregana zabaldu da. Horretaz gainera, Iraken inbasioak areagotu egin du musulmanen mina.

Problema latza da palestinarrena. Paperaren gainean ere zaila. Israelek palestinarren lurak hartu ditu. Zer egin? Israeldarrek ez dizkiete atzera emango.

Euskal Herriaren problema paperaren gainean erraz konpon liteke. Autodeterminazioa onartuz gero, Euskal Herriko talde armatuak garbi esan du armak utziko dituela.

Ingeles Gobernuak Iparraldeko irlandarren autodeterminazioa onartu du.

Musulmanak denborarekin bigundu egingo dira. Globalizazioak alde oso txarrak ditu, baina on batzuk ere bai. Kultura zabaldu egiten du eta kulturak egia ekartzen du. Eta egiak izugarriko indarra du luzera begira. Nik beti esan izan dut: egiak, maitasunarekin batuz gero, pentsatu ezinezko indarra eta eragina ditu.

### **Zurea ere eliza da, ordea, bere hierarkia guztiarekin.**

Jesukristok berak esaten dio garbi Pedrori: «Zu Pedro zara, hau da, *hamia*, eta harri horren gainean *neure eliza* eraikiko dut». *Eliza* hitza *Ecclesiatik* dator eta *biltzarra* esan nahi du grekoz. Munduko kristau guztiok biltzar bat osatzen dugu, ekipo bat bezala.

Jakina, gauza asko gertatu dira elizaren antolamenduan. Hierarkiak eta karguek jauntxokeria ekar lezaketek. Berez, Jesukristoren esana betez gero, zenbat eta kargu handiagoa izan, zerbitzari apalagoa izan beharko litzateke. Aita Santuaren beraren izena ere, *Servus servorum* da, hots, *Zerbitzarien zerbitzaria*. Jesukristok berak esana da: «Ez naiz etorri inork ni zerbitza nazan, neronek besteak zerbitzatzera baik». ».

### **Nola ikusten duzu, beraz, Eliza ideala? Ez dirudi Ratzinger eta zeu kaiola bereko txoriak zaetenik.**

Ratzingenek, Fedearen Defendatzaile zenean, fedea defendatu behar izan zuen. Horixe zuen bere lana. Zuk kargu bat onartzen baduzu, badakizu ze ondorio izango dituzun. Ertzaintzaren buru bazara, badakizu aurretik kritika gogorak jaso beharko dituzula. Berez gizon jatorra bazara ere, kargu horrek erabaki mingarriak hartzera behartzen zaitu.

Gauza bera gertatu da Ratzingerrekin. Defendatzaile izendatu baino lehen idatzi zituen liburuak benetan bikainak dira. Irakur ezazu, adibidez, *Introducción al Cristianismo*. Ez dago ukatzerik gizon azkarra dela. Hori guztiek airtortzen dute.

Orain ikusi beharko dugu nola jokutzen duen. Aita Santuaren eta Fedearen Defendatzailearen lanak oso ezberdinak dira.

Elizak tradizio bat du, gizaldi askotan barna kristautuentzat arau izan dena. Ezin du goizetik gauera leihotik kanpora bota. Bestaldetik Eliza gaurkotu egin behar da. Zenbateraino gaurkotu? Elizaren lana Kristoren mezua aurrrera eramatea da. Zein da Kristoren mezua eta zein da gizarateak sartutakoa, gainetik erantsitakoa? Hori jakin behar da.

Dena dela, azken finean, hemen erabakitzailea norberaren kontzientzia da. Kristau kontzientziarik ez duena ez da asko axolatuko elizaren erabakiekin. Giristinoak izango ditu problema handiagoak bere kontzientziarekin. Azken erabakitzailea, ordea, bere kontzientzia izango da.

## HERRI BAT, HIZKUNTZA BAT (GUTXIENEZ)

Gure etxean aita eta amak ezin zuten behar bezala ahoskatu *corazón* hitza. Nik sekula gurasoei elkarren artean ez nien entzun hitz bat ere erdaraz, baina gure etxean politika aldetik-eta ez ziren abertzaleak; ez eta kontrakoak ere. Ez zuten sentitzen eta hamaika seme-alaba eta...

Gure etxean euskaraz egiten zen, baina batere kontzientziarik gabe. Nik orain dela gutxi esaten nuen euskal kontzientzia guztiz beharrezkoa dela, bestela gazteek ez dutela euskaraz egingo.

Gainera, giroa kontrakoa zenez gero, batxilergoa ikastera Durangora joan nintzen artean, euskara benetan hutsaren hurrengotzat jotzen nuen. Baina suerte hori izan nuen: Durangora joan nintzen eta lagun jator batzuk izan nituen han. Etxetiko abertzaleak ziren haiek.

Lehenago aipatu dut Jabier Bastida, gero Elgoibarren praktikantea izan zena, beste bat horren lagun Iñaki Bereziartua azpeitiarra, orain Indian dagoena misiolari. Horiei

eta beste batzuei esker, euskalduntasuna erne zitzaidan. Erabakigarria gertatu zen Durangoko aldi hura niretzat.

Frantsesa ere hasi ginen ikasten —gure garaian uni-bertsitate aurreko ikasketak *séptimo* eta *reválida* izaten ziren, hau da zazpi urte egin eta errebalida—, eta laugarren urtera arte frantsesarekin aritu ginen. Handik aurrera, in-gelesarekin, batxilergoa amaitu artean.

Nik izugarrizko zaletasuna neukan hizkuntzekiko, eta esan nuen: «Hizkuntza guztiak ederrak dira baina, zein da nire hizkuntza? Euskara!». Eta horrelaxe hasi nintzen euskarari lehentasuna ematen.

Baina beste hizkuntzak erabiltzen saiatzen nintzen. Esaterako, Elgoibarren oporretan nintzela, frantsesak-eta etortzen zirenean, maleziarik gabe joaten nintzaian ondora, entzutera eta ahal banuen hitz batzuk esan eta... pozik!

Abdon Gabilondo izeneko jaun batek denda bat zeukan herriaren erdian. Ikusten bazuen frantsesen batzuk etortzen zirela bere dendara zerbait erosteko-eta, bazekien nik frantsesez zerbait banekiela eta deitu egiten zidan frantsesekin mintza nendin. Elkarrekin nahiko ondo moldatzen ginen. Abdonek ogerleko bat ematen zidan ordainetan. Hura poza nirea!

Beranduago, Filosofia ikasten genuen garaian, euskararentzako maitasunak eraginda, aldizkaritxo bat multikopistaz ateratzen hasi ginen. Jesuita kide genuen Joseba Agirre azpeitiarra («Borbolla» famatuaren anaia) zen bultzatzailea. Oso zen jatorra eta euskaltzalea. Xabier Arzallus ere inguruan zebilen. Idatzi ez zuen idazten, baina hitz egin bai. Aldizkari hartantxe hasi nintzen artikuluak idazten Agirre horrek bultzatuta.

Nire lehen artikulua, dena dela, inprimatua, Jokin Zaitegik Guatemalan ateratzen zuen *Euzko-Gogoa* aldizkari famatuan agertu zen. 1959an izan zen. Hementxe dut originala neure begien aurrean, makina zastar batekin idatzia. Anton Hilckman aleman hizkuntzalariak artikulua bat idatzi zuen, euskara goratuz. Nik euskaratu eta Jokin Zaitegiri bidali nion Guatemalara. Horrela hasi nintzen artikuluak idazten.



Gaztetatik euskaraz entzuteak eta hitz egiteak bihotza alaitu egin didate. Adibidez, autobusean sartu, bi laguni euskaraz hitz egiten entzun eta arnasa lasaiago hartzen dut. Hemen Deustu auzoan nahikoa dira euskaraz dakite-nak. Elkarrekin euskaraz egiten ari direla ikusi, hurbildu eta zorionak emateko ohitura dut: «Ni zaharra naiz eta poztu egiten naiz zuoi euskaraz entzunda». Ni poztu eta nire hitzak entzunez beraiek ere poztu egiten dira.

### **Hizkuntzaren kontu horretan kontzientzia politiko-rik bazegoen?**

Bai, bazegoen, gure artean, jesuita euskaltzale talde horren barruan bai behintzat. Erabatekoa, gainera. Lehenago eta orain ere hizkuntza nazio guztietan politikari lotua ibili da eta dabil. Nazio bakoitza bere hizkuntzari laguntzen saiatzen da agindu politikoen bidez. Irakur itzazu Espainiako Konstituzioaren aurreneko artikulua. Ikus ezazu Frantziako Gobernuaren jokabide politikoa euskarekin.

Gure gazte garai hartan «Gora Euskadi Askatuta!» zen abertzaleen eta euskaltzaleen oihua. Orain ere noizbehinka entzuten da oihi hori, baina ezkutatu egin da asko. Niretzat, egia esan, *Euskadi* baino *Euskal Herria* esatea egokia da. Baina ezin dugu ahaztu *Euskadi* hitzaren inguruan zenbat lan eder eta zenbat odol isuria izan den. Abertzale-tasuna *Euskadi* izenarekin sortu zen.

Gu, filosofo ginela, elkar hartutako taldetxo bat ginen, benetan abertzaleak, hau da, euskaltzaleak, euskare-aren aldekoak eta independentziaren aldekoak erabat.

Aldi hartan, Federiko Krutwigek lehendabiziko *Basko-nia* idatzi zuen eta guk ezkutuan irakurri genuen. Gogorak esaten zituen han, Leizaola Lehendakaria bizkarretik fusilatu beharko zela bere seme-alabei euskara ez erakusteagatik eta horrelakoak. Ez dut uste hau egia zenik. Krutwig hala-koxea zen, baina: suharr a.

### **Zeuk ere idatzi dituzu liburuak, dozenaka.**

Hogeita hamar liburu baino gehiago idatziak ditut da-goeneko. Bederatzi urte egin nituen Euskal Herritik kanpo-ra, eta berandu hasi nintzen idazten. Friburgotik etorri

nintzenean esan nuen: euskarari nola lagundu behar diot nik?

Garai hartan marxismoa irakasten nuen eta hortixe hasi nintzen. Marxismoari buruzkoak dira nire lehen liburuak.

Euskarari nion maitasunak eraginda idatzi nituen horiek guztiak. Iruditzen zitzaidan horixe nuela gure hizkuntzaren alde egiteko aukerarik behinena.

*Marxen marxismoa* izan zen euskaraz marxismoari edo komunismoari buruz idatzia izan zen lehen liburua, oker ez banago. Atzo mediku batekin egon nintzen eta harritu xe esan zidan: «Zu zara orduan Gotzon Garate, *Marxen marxismoaren* egilea!». Garai hartan liburu nahiko ezaguna izan zen.

### **Ematen du, zugar, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna batera zihoazela.**

Erabat. Gaur egunean ere bai. Horretan ez naiz aldatu. Niretzat, nire mentalitatean ez dago abertzaletasunik euskararik gabe. Mila bider esan izan dut: abertzale izatea euskararen alde eta Euskal Herriaren independentziaren alde egotea da. Eta euskara independentziaren aurretik, elkarri estu-estu lotuak badaude ere.

### **Eta kontrakoa? Gorde liteke euskara abertzale izan gabe?**

Bai, badugu kasu bat baino gehiago. Gabriel Aresti eta Antonio Zavala, adibidez.

Aresti ezin uka euskaltzale izan zenik. Hor dago bere lan handia. Abertzale zenik, ordea, ezin esan. Hori behin Deustuko Unibertsitatean hitzaldi bat egiten ari zela aurpegira egotzi zion Ablitasko Daniel Lopez euskaltzale eta abertzale jatorrak. Ez zela abertzale. Arestiren ohoretan esan behar da, eraso hori egin arren, gero olerki bat egin ziola Danieli, izen eta guzti.

Beste kasu bat Antonio Zavala nire lagun txit estimatua duzu. Zavalak egundoko lana egina du: hirurehunik gora liburu, benetako euskaraz idatziak, argitaratu. Baserritarren eta euskararen jabe direnen kontakizunak jaso ditu.

◆  
«Nahiago ditut Zavalaren antzekoak, izenez abertzale baina euskaraz eta euskal kulturaz axolatzen ez direnak baino»

Eta bertso mordoa. Kontu horietan, Euskal Herri osoan, gutxi izango da berak bezainbat dakienik.

Zavalak jesuiten ikasketa luzeak ditu baina ez du bestela, nik dakidanez, beste karrera berezirik egin. Ez zeukan doktore titulurik. Baina Deustun *Doctor Honoris Causa* egin genuen neuk bultzatuta. Neuk egin nituen eskaera guztiak, errektoreari-eta, izenda zezaten. Jai ederra izan zen, bai horixe!

Gauza jakina da Zavala ez dela Euskal Herriaren independentziaren zalea. Zavala egiazko euskaltzalea da, ordea. Nahiago ditut Zavalaren antzekoak, izenez abertzale baina euskaraz eta euskal kulturaz axolatzen ez direnak baino. Horrelako asko ezagutu dut neure inguruan.

**Beraz, zer duzu nahiago, euskaldun ez-abertzalea ala abertzale ez-euskalduna?**

Aukeran, euskaraz dakien eta euskararen alde ari den ez-abertzalea nahiago, kontrario sutsua ez bada, behintzat. Euskara beti aurretik. Euskalduna ez den abertzalea oso motz geratzen da. Euskararen alde egongo da, *baskista* izango da gehienez ere. Bilbon ugari dira horrelakoak. Gi-roak ez die lagundu euskara ikasten. Jaio zirenean ez zen ikastolarik, ez euskaltegirik.

Nik beti esan dut eta berriz ere esango dut: euskara aurretik. Nahiago dut euskaraz mintzo den Euskal Herri azpiratua, Euskal Herri independente erdalduna baino. Euskara galduz gero, dena galdu dugu. Eta euskarari eusten badiogu, ni ziur nago goiz edo berandu lortuko dugula independentzia.

Halere, euskaltzale espainolista eta euskaraz arduratzen ez den nazionalista, biak motz gelditzen dira.

Nik, bestaldetik, Euskal Herriaren independentzia geure nortasunari eustearren nahi dut. Espainolen azpian bagaude, euskara galduko dugulako.

**Espainiaren alde dituzu gogoko, ala?**

Ez, ez da hori. Bestelakoan, espainolak jatorrak begitantzen zaizkit. Oso maite ditut. Ni Zaragozan, Cordoban eta Madrilen (hemen doktore ikastaroak egiteko) bizi izan naiz. Jende gisakoa eta adiskidetsua! Munduko lau hegale-

tan ibili naiz eta espainolak egiatan maitagarriak direla iruditzen zait. Halere, nik Euskal Herria Espainia baino askoz maiteago dut, nire ama delako, nolabait esateko. Espainia espainolentzat ama oso ona dela badakit. Espainolek oso ongi egiten dute Espainia beren ama maitatuz. Nork lehen-lehenik bere ama maite behar du.

### **Eta baserrietako hizkuntza biltzeko egin duzun lan hori?**

Hori garrantzi handikoa izan da niretzat. Esan bezala, bederatzi urtez egon nintzen kanpoan, bi urtez Zaragozan, lau urtez Innsbrucken, zazpigarrena Cordoban eta beste bi Suitzan.

Friburgon maisuek eskolak alemanez ematen bazituzten ere, nik apunteak euskaraz hartzen nituen. Euskaraz idazten saiatzen nintzen, bai, baina hizkuntzak heritik kanpora atzendu egiten dira. Erabiltzen ez den edozein hizkuntza moteldu egiten da.

Hori garbi ikusten da, konparazione, J.A. Irazustarekin. 1946an Euskal Herritik ihes egina, Hego Ameriketara zegoela, *Joanixio* eleberria argitaratu zuen. Eleberri bikaina eta, nire ustez, Euskal Herriko eleberri errealistari hasiera eman ziona. Handik lau urtera *Bizia garratza da* idatzi zuen. Euskara aldetik pixka bat txepelago da. Lau urtez erdal giroan bizitzeak badu eraginik.

Niri ere gauza bertsua gertatu zitzaidan. Bederatzi urte kanpoan igaro eta hona etorri nintzenean, pentsatu nuen, zein da biderik onena berriz ere euskararen jabe egiteko? Hoberena baserrietara jotzea zela erabaki nuen eta horretan erdi-erditik asmatu nuen, bai horixe!

Lehenengoa Azpeitiko Odriozolatxo baserria izan zen. Gutxi nekien orduan zer-nolako altxorra jasoko nuen baserrietan. Lexikoa, atsotitzak, esapideak-eta, biltzeko, magnetofoiak baino gehiago, koadernotxoarekin ibiltzen naiz ni toki guztietan. Oroimenik onena papera da.

«Nola esan duzu hori?», galdetzen diet eta gero apuntatu, gorde. Unibertsitatera etorri, garbira aldatu eta sailkatu. Hasieran idazteko makinaz, gero ordenagailuz. Zazpi

probintzietan bildutako gaiekin karpeta mordoak beteta dauzkat.

### Hasieran ez al zen inor harritzen zu bisitan ikusita?

Pentsa ezazu berrogei urte badirela hasi nintzela. Hasieran, kezkatxoarekin joaten nintzen, nola hartuko ninduten. Banituen, baina, izan ere, bi alderdi on neure alde: gazte izatea eta apaiza nintzela. Gaztea toki guztietan da onartua. Zaharrok gara edonon traba egiten dugunok. Eta garai hartan, baserrietan batez ere, apaizentzat orain baino estimu pitin bat gehiago zegoen. Dena dela, besoak zabalik hartzen ninduten.

◆  
«Nonbaiten idatzia  
dut, baserrietan  
ikasi dudala  
euskaraz, baina ez  
hori bakarrik:  
gizon eta  
emakume  
jatorrekin bizitzen  
ere, han ikasi dut»

Gogoan dut Aramaioko Ipurtotz base-  
rria. Aitona zaharrak, Emeterio Bergaretxek,  
arrosarioa errezatzen zuen egunero eta illo-  
bak eta bilobak, denak belauniko berarekin!

Ni ondo konpontzen nintzen eurekin.  
Harro puntarik ez nuela esaten didate. On-  
do konpondu eta gero eta adiskideago. La-  
gun handiak egin ditut, zinez. Nik beti esa-  
ten diet euskaraz nik baino hobeto dakitela  
eta nire maisuak direla. Eta poztu egiten di-  
ra. Egia galanta da, gainera.

Nonbaiten idatzia dut, baserrietan ika-  
si dudala euskaraz, baina ez hori bakarrik:  
gizon eta emakume jatorrekin bizitzen ere,  
hantxe ikasi dut.

Jakina ikusi ditudala gauza izugarriak ere. Izugarriene-  
takoa, neu nengoeneko auzoan gertatu zen: emakume ez-  
kongabe batek, bere nebarekin eduki zuen umea. Jaio ze-  
nean, hantxe bertan hil zuten.

Salbuespenak dira horrelakoak. Oro har, jende jator  
askoa aurkitu dut nik baserrietan. Eta ez pentsa, aldrebes-  
keria hori egin zuten horiek ere, bestelakoan gaiztoak zire-  
nik. Emakumea batez ere, oso laguna dut. Batzuetan egoe-  
rak eta inguruak bultzatzen du jendea gauza deitoragarriak  
egitera.

Urtero maiatzaren lehenengo egunean ni ibiltzen nai-  
zen baserrietako jendearekin bilera izaten dugu. Urtero toki

ez berdin batean biltzen gara. Azpeitian, Aramaion, Aralarko San Migelen, Urkiolan, Zuberoan, Aiherran, Arizkunen... Meza bat izaten dugu eta gero bazkaria. Giro oso adiskidetsua izaten da. Zazpi probintzietako jendea biltzen gara, nor bere euskalkiz mintzo dela. Huraxe bai egiazko Euskal Herri euskalduna!

**Agian, hizkuntzalari baino, antropologo zenuen hobe.**

Behin baino gehiagotan esan didate hori. Orain konaturatzen naiz zulo bat utzi dudala bete gabe, ez naiz ibili izan Barandiaran eta bezala, ipuinen atzetik baserrietan. Egia da batzuk bildu ditudala, baina oso gutxi. Hori muga bat izan da.

Orain arte esan ez badut ere, filologia karrera ere egin nuen gero. Friburgotik etorri eta Deustun irakasle hasi nintzenean, ikusi nuen hemen bagenuela filología hispánica (erromanikoa deitzen zen orduan), aleman filologia, ingelesa eta frantsesa ere bai... Orduan esan nuen: «Hau zer arraio da? Gure herrian euskal filologiarik ez?». Nik orduan filologia erromanikoa ikasi nuen, hain zuzen ere, euskal filologia sortu ahal izateko. Eta sortu, sortu genuen ikasketa hori ere.

Errektoreari-eta, esaten nien, beste filologiengatik aurka ezer ez nuen arren, bidegabekeria iruditzen zitzaidala geure etxean euskal filologiarik ez izatea. Denbora aurrera eta ezer gertatzen ez zenez gero, 1977ko maiatzean edo, artikulua bat idatzi nuen eta Euskal Herriko egunkari guztietara bidali: «El próximo curso comienza la filología vasca en la Universidad de Deusto».

Hura izan zen zalaparta! Errektoreak deitu zidan bere aurrera eta oso haserre txantajista nintzela esaten hasi zitzaidan. Kataluniarra zen, jatorra oso, baina gure problemak ez zituen ulertzen. Jendea animatuz joateko egin nuela hori, esan nion. Eta halaxe hasi ginen, eta gaur arte.

**Nortzuk izan zenituen kide?**

Urtero kurtso berri bat sortu behar genuen. Jende oso jatorra aurkitu nuen irakasle izateko. Ezagunak deitzen nituen. Mikel Zarate, adibidez. Hemen ikasia zen Filología

Hispánica. Zein ondo idazten zuen euskaraz! Oso apustu-zalea zen. Gauza guztietan, kiroletan ere bai, beti lehena izan behar. Ikasleek oso maite zuten irakasle ona eta lagun jatorra zelako. Hil egin zen Aste Santuan, leher eginda, lan gehiegi egiten zuelako.

Bere ordez Santi Onaindia hartu nuen. Santik asko zekien euskal kulturari eta euskarari buruz. Langile porrokatua, hauxe ere. Eta abertzale zintzoa.

Hasiera-hasieratik Alfontso Irigoien izan zen irakasle. Oso langilea zen eta asko zekiena. Nik Filología Románica karrera egin nuenean, irakasle izan nuen. Niretzat on-onenetakoa. Ez zeukan, ordea, metodologiarik. Hasiko zen euskal aditzaz mintzatzeko eta bukatuko zuen Euskal Herriko zubiak nola egin zituzten azaltzen. Ikasle asko galdu egiten ziren. Ni zaharra nintzen, ordea, eta esaten zuena oso jakingamia zela ikusten nuen, berak aztertutakoa zela hura guztia, ez hango edo hemengo liburutatik jasoa. Bat-batean hil zen eta Adolfo Arejitak hartu zituen haren eskolak.

Rikardo Badiolak, Adolfo Arejitak, eta Jon Kortazarrek nirekin batera ikasi zuten Filología Románica. Rikardok orain lanpostu garrantzitsua du Euskaltzaindian. Adolfo Arejita eta Jon Kortazar irakasle sartu nituen Euskal Filologian. Adolfo orain ere hemen dago. Euskarari buruzkoetan asko daki. Orain Euskaltzaindian sartu dute.

Jon Kortazar, Deustuko Euskal Filologian irakasle urte batzuk eman eta Gasteizko unibertsitatera joan zen. Gaur egunean Euskal Herriko literatura kritikari on-onenetakoan artean dago.

### **Hori guztia Deustun.**

Deustuko Unibertsitatean euskal giroa ez da sekula oso nabarmena izan. Halere, izan dira euskal kultura inguruan ibili direnak. Batzuekin oroitzen naiz. Andres Mañarikua Bizkaia osoan oso ezaguna da. Zuzenbide fakultatean irakasten zuen eta batez ere Bizkaiko historia alorrean lan estimagarriak idatzi zituen. Josetxo Urrutia ere abokatuen irakasle zen eta oso abertzale sutsua. Jesuita. Gero lehen-dakari izango zen Ardantzari, Deustuko Unibertsitatean

zuzenbidea ikasten ari zela, asko lagundu zion, Ardantzak batzuetan polizia atzetik omen zuen eta.

Gregorio Monrealek Deustun ikasi zuen zuzenbidea eta gero fakultate horretan irakatsi zuen. Euskaltzale fina. Nafarra zelako are estimatuago genuen. EHUko errektore izendatu zuten. Txema Auzmendik ere eman zituen eskolak hemen, ongi eman ere. Egiazko abertzalea. Nire tenis kontrarioa zen. Zoritxarrez, beste lan batzuk egitera bidali zuten. Adrian Zelaia oso aditua zen Bizkaiko Foruaren kontuetan. Zeberioko semea izan arren, ez nion sekula hiztxo bat ere euskaraz entzun. Maria Angeles Larrea, berriz, Historian zen irakasle. Beti prest euskal kulturako lanei laguntzeko. Makina bati lagundu izan zion diruz eta aholkuz. Honek ere euskara zapuztua edo ahaztua zuen. Bestela Deustuko Unibertsitatean, 500 bat irakasletatik euskal kulturaz arduratuak ez ginen hamabost izango. Errektore guztietatik ez dut ezagutu bat euskaltzalerik. Abertzaleen etsai amorraturik bai.

### **Nortzuk ikasle?**

Ikasleen artetik hiru aipatuko ditut, gero neuk Euskal Filologian irakasle hartu ditudanak. Bata Jose Manuel Etxebarria. Zeberioko baserri bateko semea. Euskaraz zoragarrri daki, liburu nahikorik idatzi du eta oso maitatua da ikasleen artean. Nik galdera asko egiten dizkiot, Bizkaiko euskara dela eta.

Bestea Rosa Miren Pagola. Orain hemen, Deustuko Unibertsitatean errektore bigarrena dena, Azpeitian esaten duten bezala (errektoreordea). Irakasle bikaina eta EAJ barruan kargu handiak izan ditu.

Hinugarrena Xabier Kaltzakorta. Markinarra. Anaiak ditu zesta-puntako jokalaria bikainak. Bera, ordea, intelektual hutsa da. Asko eta asko daki. Ikasle nuenean ere, zenbait puntutan nik baino gehiago zekiela ikusten nuen. Azkueren gramatika-eta, buruz dakiela esan liteke.

Orain hemen Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian irakasle estimatuak diren neure beste hiru ikasle ere gogoan ditut: Joseba Abaitua, karrera Deustun hasi eta gero informatika ikastera Ingalaterrara aldatu zena eta Esti-



balitz Amorro rtu eta Josu Bijuesca. Biok Estatu Batuetan egin zuten doktore tesia. Jakinduriaz oso jantziak dira.

Beste batzuekin ere oroitzen naiz. Markos Balentziagarekin hasiko naiz. Orain Irungo Institutuan dago irakasle. Angel Ugarteburu eta Andres Alberdi rekin ikastetxeetako gazteentzat literatura liburu biziki estimagarriak idatzi ditu. Nola ahaztu Joseba Sarrionandia. Deustun karrera egiten ari zela ere, nabarmendu egin zen euskaraz oso ongi idazten zuelako. Oroitzen naiz horretaz mintzatu ginela Alfontso Irigoien eta biok. Zorrotza zen eta euskararen jabe. Ez zuen karrera bukatu, orduan behintzat, polizia harrapatu zuelako. Gero jakin genuen nola ihes egin zuen Martutenetik bozgorailu baten barruan sartuta. Ni ez naiz harritzen izan duen arrakastarekin. Koldo Zuazo, Eibarko euskara horren ederki aztertzen ari dena. Bingen Zupiria Euskal Telebistan goian dabilena. Gizon atsegina, trikitixa jotzetik goiko karguetara aldatu dena. Amatiño. Horra hor gizon buru argia, zinez! Ez zuen karrera bukatu Euskal Telebistan lan egitera deitu zutelako. Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldunditik euskararen alde lan biziki ona egiten ari dena. Andres Urrutia, oraingo Euskaltzaindiaren burua ere ikasle izan nuen. Notario zen eta lan handia zuelako ez zuen karrera bukatu. Martin Orbe, karrera sari bereziarekin bukatu zuena eta Bizkaia osoan ezaguna dena, euskal kulturaren alde eta justiziaren alde egiten duen lanagatik. Juan Ramon Madariaga, olerkigintzan liburu sonatuak idatzi dituena. Begoña Bilbao, Bermeoko euskara sakonki aztertu zuena. Jon Arretxe, bere eleberriekin arrakasta handia izan duena. Asel Luzarraga, azken aldi honetan sariak irabazi eta oso goraiatua izan da. Eta seguru meritu handiak dituzten banaka batzuk ahaztu ditudala. Arkarazo, euskal telebistako *Goenkale* sailean dotore lan egiten duena. Eta egia esan, Bizkaiko ikastetxeetan hitzaldiak egitera joaten naizenean, ia beti aurkitzen dut nire ikasle izan den bat edo bat.

Komertzialean Joxe Elorrieta izan nuen ikasle, orain ELAko buru dena. Gizon serioa eta azkarra. Harreman onak ditugu elkarrekin. Pello Salaburu, berriz, soziologian eduki nuen ikasle. Gizon zintzoa eta langile handia. Ariz-

kundarra. Bere baserrian aldi bat eman nuen, hango euskara aztertzen. 23 baserrian nabil, baina ez dut inon ikusi bere aita Tadeo bezalako gizon garbirik. Harrigarria! Zerri-  
tegia bera ere zilarra bezain txukun edukitzen zuen. Ezin sinets! Pello EHUKo errektore izan zen. Nik uste nuen politikara joko zuela. Jo izan bazuen, goi-goiko postuak esku-ratuko zituen. Asko balio du.

**Hizkuntzalari moduan ibili zara baserrietan, baina aurkituko zenuen bestelako lurrinik ere.**

Tradizio bat badela ikusten da. Agian azken denbora hauetan erabat galtzen ari dena. Auzolanarena eta. Artazu-riketa zela-eta, adibidez, txandaka etxe batean biltzen zi-  
ren gauean. Artaburuak zuritu edo aletu bi-  
tartean, ipuin zaharren kontaketa jarduten zuten. Hau Hegoaldean eta Iparraldean ere bai. Hango kontakizun ederrak! Hango eus-  
kara zoragarria! Noiz eta behin eskusoinulari-  
ren bat eramaten zuten eta lana bukatu on-  
doren dantzan. Orain dela gutxi arte, Sunbi-  
lla edo Goizueta aldeko zenbait baserrian ikus zitekeen horrelakorik.

Dena den, orain orduko lan asko galdu dira. Lihoa ez da egiten, garia toki bakanetan bakarrik eta artoa bera ere oso gutxi. Lan horiei lotutako lexikoa, esamoldeak eta atsotitzak ez dira erabiltzen. Nik zorte on hori izan dut, denak biltzekoa. Atsotitzak nire hizte-  
gian gelditu dira betiko eta esapideak ere ho-  
rrelaxe geratuko dira, urte batzuk barru aterako dudan li-  
buruan. Lan luzea izango da, hala ere.

Astoa bera zail da ikusten egungo egunean baserrie-  
tan. Astoa gai dutela, baditut ehun eta hoge atsotitz bil-  
durik.

**Zeuk ere baserriko lana egiten al zenuen?**

Ez, bat ere ez, sekula ere ez. Nire lan bakarra euskara aztertzea izaten da. Eta nire lantokia beti sukaldea. Ez naiz inoiz logelan egoten, lo egiteko ez bada. Zeregina erama-  
ten dut, esaldi hauek eta besteak nola esango zituzketen

◆  
«Baserriko  
zaharrenak  
izan dira eta  
dira nire  
irakaslerik  
onenak.  
Euskaraz eurak  
dira ongien  
dakitenak»

galdetzeko, halako edo honelako atsotitz edo esapidea erabiltzen dutenentz. Sukaldean egoten dira preseski etxeko andrea eta etxeko zaharrenak: aitona-amonak. Zenbat eta zaharrago, hobeto. Horiek izan dira eta dira nire irakaslerik onenak. Euskaraz eurak dira ongien dakitenak. Logikoa da hori. Lan zaharrak-eta, haiek egiten zituzten. Baserriko gazteek, orain hiru rogei urte ingurukoak direnak, esaterako, ez dute ezagutu lihoa egiten. Aitona-amonak zaharrak ezagutu nituen hori egiten zekitenak.

Esate baterako, Aramaion, Ipurtotz baserriko aitonak, hil zaharra ez den Emeterio Bergaretxe laurogeita hamar urteko aitonak esandako guztia gordeta daukat magnetofoian lihoa egiteari buruz. Lan oso gogorra zen hura.

Bestalde, lehen batez ere, neguan sukaldeak bakarrik egoten zen bero. Horregatik hantxe egoten dira zaharrak eta ni beraiekin.

Hori bai, egunero, mendirantz joaten naiz, nire lagun maiteekin, zakurrekin. Batzuetan, Goizuetan, adibidez, bost zakurrekin. Baserrietan zakurrekin izan ditudan harremanak liburu batean azaldu ditut, *Zakurra zeure laguna* liburuan.

**Hizkuntzalaria, baina beti aparte. Mitxelena eta konpainia lagunak izan al zenituen?**

Ez, lagun izan nuenik ez dezaket esan. Bitan berarekin eztabaidatxoak izan nituela bai. Aurrena unibertsitatea zela eta, izan zen. Artikulu bat idatzi zuen unibertsitate pribatuak gutxietsiz. Nik beste artikulu bat idatzi nuen, esanez, Estatu Batuetan unibertsitaterik famatuenak pribatuak zirela: Harvard, Georgetown... Bigarrena *hasiera* edo *hasera* behar ote zen, horixe izan genuen eztabaida. *Hasera* defendatzen nuen nik. Ez dugu *etorriera* esaten, *etorrera* baizik. Berak, ostera, *hasiera* defenditzen zuen eta Euskaltzaindiak hori onartu zuen. Egia da, guk Elgoibarren eta bestela ere gehienek *hasieran* esaten dutela. Ba ote zekien, ordea, Goierrin eta, ni ibiltzen naizen baserrietan *haseran* bakarrik esaten dutela? *Hasera* hori neuk asmatutako kontua zela ez ote zuen uste?

Lagunak ukaitea eta aldi berean independente izatea ez da erraz. Problema hau biziki ongi planteatua dago Her-

mann Hessereren *Der Steppenwolf* elebemi zoragarrian. Bide batez esango dut, orain ere unibertsitateko estudianteek Hesse sarri irakurtzen dutela, beste Nobel saridunak ukitzen ere ez dituzten bitartean. Arrazoiz, Hessereren eleberrien problematika gaur-gaurkoa baita. Hesse neure gogarakoa da, oso.

Mitxelena, berriz, gizon azkarra zen eta asko zekiena. Bere inguruan jende esanekoa izaten zuen. Txisteak ere egiten zituzten bere menpeko horiei buruz. Horietako batzuek, behar ez zenean ere, Mitxelenaren autoritatea ekartzen zuten: «Mitxelenak oso ongi dio, asteazkenaren atzetik osteguna datorrela».

Nortasun irmokoa zen Mitxelena eta aginte handia zuena euskara kontuetan. Doktore tesietan hantxe egoten zen, literatura sarietan ere bai, Euskaltzaindian berea zen azken hitza, beraren gogoaren kontra ez zen erraza inor euskaltzain sartzan.

Deustuko Unibertsitatera urte ro etortzen zen Euskal Filologiako errebalidan epaimahaian egoteko. Erretiroa hartuta ere, deitu egiten genion eta asko estimatzen zuen horrelako gauza bat.

### **Alabaina, ez zara sekula Euskaltzaindian eta ibili.**

Patxi Goenagak, Euskaltzaindiko idazkariak, eskaini egin zidan ohorezko euskaltzain izatea. Ezetz esan nion. Gero izan dira beste batzuk ere, Txillardegi kasu, uko egin diotenak titulu horri.

Une hartan iruditu zitzaidan ez nuela izendapen horren beharrik. Telefonoz deitu eta eskaintza ustekabean etorri zitzaidan, egia esan. Izendatze horrek ze eskubide eta ze betebehar ekartzen zizkidan ez nekien.

Nik Euskaltzaindiarekin ez dut harreman handirik izan, baina beti konpondu naiz ondo euskaltzainekin: Antonio Zavalarekin, Lizundiarekin, Krutwigekin, Xarritonekin, Emile Larrerekin... Gainera lan oso bikaina eta beharrezkoa egiten dutela uste dut. Gogoan eduki behar da, araudiak-eta, sortzen, oso lan gutxi dagoela eginda aurretik. Euskaltzaindia ari da orain serioски behar-beharrezkoena egiten.

Euskaltzaindiko Andolin Eguzkitzak, hemen, Deustun, ikasi zuen filologia erromanikoa nirekin batera. Gizon amultsua eta jatorra zinez. Eskoletan, batzuetan, irakasleari entzunez gainera, bi liburu izaten zituen aldameanean, batari eta besteari tarteka begiratu bat egiten ziela. Gehiegi ez ote zen?

### Zerbait leporatzen diozula diudi.

Aitzitik. Harrokeriarik gabeko pertsona eta kultura handikoa zen. Ingeleseztan eta alemanez ongi zekien eta asko irakurria zen. Konturatu naiz, Andolin ezagutu zuten guztiek hartaz laudorio handiak egiten dituztela, arrazoiz. Gailera handia izan da euskal kulturarentzat horren gazte hil izana.

### Euskaramen bidean nortzuk izan dituzu lagun (edo maisu)?

Bereziki lau aipatu nahi nituzke.

Lehena Plazido Mujika, *Erdara-euskara* hiztegi bikainaren egilea. Oraindik ere ez da sortu hiztegi hoberik. Nobiziatua igaro eta 21 urterekin (1955) junioratua egiten hasi nintzenean Loiolan, Plazido izan nuen neure bizitzako euskarazko lehen maisua. Ordura arte nire euskara etxean, Elgoibarren, ikasitakoa zen. Euskal gramatikarik bazen ere ez nekien. Mundu berri bat agertu zen nire begien aurrean. Gizon jakintsua, apala eta bildotsek baino malezia gutxiago zeukan gizona izan zen Plazido. Aho batez gorai patzen dugu ezagutu dugun guztiok.

◆  
«Hasieratik euskara  
batuaren alde  
agertu nintzen.

Behar-  
beharrezkoa zen»

◆  
Bigarren maisua Sebero Altuberen *Erderismos* liburua izan zen. Liburu horrek egin zidan mesedea! Arraio beltzak! Lehendabiziko aldiz neure bizitzan aurkitu nuen *galde-gaia* ren arazoa ongi esanda. Ongi idazteko oinami-oinarrizko kontua da *galdegaia*. Orduantxe ikasi nuen hitzen joskera nolakoa den, Seberoren esanak itsu-itsuan hartu behar ez badira ere.

Txillardegiren *Sustrai bilak* ere mesede handia egin zidan. Nik aztertuak ez nituen alderdi askotan argi handia

egin zidan. Txillardegiri honengatik ere eskerrak eman behar nago.

Eta laugarrenez, *last but not least*, baserritarrak eta laborariak. Hauek izan dira nire goren-gorenko maisuak. Ia berrogei urtean Euskal Herriko zazpi probintzietan ibili naiz. Ez dago eskertzerik hauen maisutza.

### **Eta etsai?**

Ez dut uste etsairik izan dudanik. Euskararen alde ari garenok elkarri maitasuna diogu. Batzuetan gerta liteke eztabaidaren bat, baina huskeriak izaten dira. Euskara galtzeko zorian dugunean, ezin dugu indarra elkarri erasotzen galdu.

### **Euskara Batuaren auzia, nola bizi izan zenuen?**

Hasiera-hasieratik euskara batuaren alde agertu nintzen. Behar-beharrezkoa zen. Euskaldunok gutxi gara, eta politikan bezala, eta areago, hizkuntzaren batasuna behar genuen. Elkar ulertzeko eta liburuak argitaratzeko zazpi probintzietakoek euskara batua behar genuen.

Ni ordurako Alemanian eta Suitzan ibilia nintzen eta han ere Hoch Deutsch, hau da, *aleman batua* erabiltzen zutela ikusi nuen. Suitzan ikusten nuen alemanek ez zietenla suitzarrei ia ezertxo ere ulertzen, suitzarrak beren dialektoz mintzatzen zirenean. Batez ere Vallis kantoikoei. Aleman batuaz, ordea, oso ongi.

Orain oso atsegingarri da Zuberoara joan eta euskara batuaz dakitenekin mintzatzea. Hizkuntzaren batasunak batasun politikoari asko lagunduko dio.

Bestalde, ni euskalkien defendatzaile amorratua naiz. Batez ere euskalki gutxietsienarena, bizkaierarena. Euskal Filologia sortu genuenean, hastapenetik hasi nintzen bizkaieraren alde lan egiten. Neure ikasleei —gehienak bizkaitarrak ziren—, bizkaiera euskalki bikaina zela esaten nien. Batez ere egitura aldetik beste euskalkiek galdu dituzten alderdiak gorde dituela: intentsiboak, erakusleen aniztasuna, erreflexibo molde bikaina, Axularrek eta Leizarragak erabiltzen zuten bezalakoa.

Euskara zazpi probintzietan da bikaina, baina hautatzekotan, estrukturari begira, nik Aramaioko, Arrasateko,

Oñatiko... eta eskualde horietako euskara hautatuko nuke. Beste guztiok galdu ditugun molde zaharrei eutsi diete. Zoragarria!

Eta beste puntu bat. Gero eta garbiago ikusi dut Eibar-ko euskara, horren gaitzetsia izan dena, primera-primera-koa dela. Hitz batzuk erdaratik sartzen baditu ere, egitura aldetik ezin diozu huts bat ere aurkitu. Eta hizkuntzetan ez da lexikoa erabakigarria, egitura baizik.

### **Hori etxetik datorkizu.**

Eta biok elgoibartarrak garenez gero, gure herriko euskara on-ona dela aitortu behar. Dena dela, puntuok zehatzago *Karmel* aldizkarian (244. zenbakian) artikulua luzetxo batean azaldu ditut, «Bizkaiera eta gipuzkera». Deba Ibarreko euskara txalo-txalagarria da.

Bizkaierari, Zeanuriko baserrietatik hasi eta ia Ondaroraino, izurri handia sartu zaio, baina. Ez dute bereizten iragan hurbila eta aldi burutugabea. Hau da, *zegoen, zetorren...* ez dute erabiltzen. Honelaxe esaten dute: «Ni etxean sartu nintzenean, ama sukaldean egon zen», *zegoen* esan beharrean.

Markinako baserrietan ere entzuten ditut nik horrelakoak. Ez duzu holakorik entzungo Eibarren, Markinako euskara *ofizialki* askoz hobea izan arren. Bizkaitik kanpora ez da inon izurri hori sartu, zorionez. Ez eta bizkaieraz mintzo den Gipuzkoako eta Arabako herrietan ere.

### **Nola ikusten duzu euskararen egoera gaur?**

Bereizi egin behar dira eskualdeak. Hiru probintziotan nahikoa ongi. Nafarroan gaizki eta Iparraldean oso gaizki. Hemen ere politika hizkuntzari lotua dago, munduko bazter guztietan bezala. Gure probintziotan euskarak Gobernuaren laguntza du. Nafarroan gutxi eta Iparraldean are gutxiago.

**Erabilpen akademikoa eta abar, ziurtatuta daudela dirudi. Beste kontu bat da, ordea, erabilera soziala.**

Halaxe da. Euskaltzaindia lan ederra egiten ari da euskarari oinarri sendoak ezartzen. Problema lazgarria hauxe da: jakin gero eta gehiagok dakiela euskaraz, baina askok

ez duela erabiltzen. Gaztetxoek ikastola barruan egingo dute (ez beti) baina kanpoan ez.

Hor eten ezinezko soka bat dago. Batzuek erdaraz errazago egiten dutelako, baztertu egiten dute euskara. Jakina, baztertuago eta zailago egiten zaie euskaraz egitea. Nola hautsi soka hori? Kontzientzia emanez. Haurrei ikastetxeetan euskara erakutsi ez ezik, euskara erabili behar dutela buruetan sartu behar zaie. Modu onez sartu, bai, baina gogoan harturik euskal kontzientziarik gabe ez dutela euskaraz egingo. Ibaia erdararantz doa eta kontzientziarik gabe, jendeak errazera jotzen du. *Euskal Herrian Euskaraz* taldeak lan oso ederra egiten du alderdi honetatik.

Bestalde garbi esan behar zaie euskaraz egitea kulturaren marka dela gaurko egunean. Euskaraz egiten duenak bi alderdi erakusten ditu: nortasuna duela eta bi hizkuntzaz mintzatzeko gauza dela, euskaraz eta erdaraz (euskaraz gainera espainolez edo frantsesez).

### **Iparraldekoak eta Nafarroakoak buelta zaila du.**

Bai, oso zaila. Batez ere Iparraldean. Zuk horretaz asko esan dezakezu, Hendaian bizi baitzara. Iparraldeko euskaldunek oso aintzakoztat dute frantses izatea. Hementxe dago aldeia: guretzat, Espainiako Estatuan bizi garenontzat, euskaldun izatea, espainol izatea baino askoz estimagarriago da gaurko egunean. Iparraldean ez dago horren garbi. Iparraldean frantsesak turismoan agertzen dira, hots, dirua ekartzen diete. Euskaldunek haien aldean beren buruak apal ikusten dituzte. Beraz, ez dute guk bezainbateko euskal kontzientziarik.

### **Etorkizuna nola ikusten duzu?**

Iragarle izatea zail da. Nik uste dut luzarotan Euskal Herriaren independentziarik gabe euskara galdu egingo dela. Zergatik? Independentziarik gabe euskara ez delako beharrezkoa izango. Ni Europako eta Estatu Batuetako unibertsitate nahikotan ibilia naiz, eta hizkuntzalari guztiek esaten dinate gauza bera, hizkuntza beharrezkoa ez bada, galdu egi-

◆  
«Nik uste dut luzarotan Euskal Herriaren independentziarik gabe euskara galdu egingo dela, ez delako beharrezkoa izango»

◆



ten dela. Eta euskara Euskal Herrian bertan ez da beharrezkoa. Gaztelania eta frantsesa dira beharrezkoak.

### **Independentzia, beraz, ezinbestekoa.**

Hortxe dator galdera: izango al da independente Euskal Herria? Batzuek ezetz diote. Ez dago garbi. Suitzan neure doktore tesia preparatzean espezialista jakintsuenen usteak aztertu nituen, Karl Lowith, Roderick von Ungern-Sternberg, Jakob Barion... Inork ez zuen uste Sobiet Batasunean horrenbeste naziok independentzia lortuko zutenik: Estonia, Letonia, Lituania, Ukraina, Armenia, Georgia, Azerbaijan... oraintxe orain lortu dute independentzia. Gaur pentsaezina iruditzen zaiguna gero egia bihur liteke: Euskal Herriak independentzia eskuratzea. Gauza bat dago garbi: euskaldun guztiok abertzale bagina, goiz edo berandu, lortuko genukeela independentzia. Eta independentziarekin, ez automatikoki, baina euskara errazago salbatuko genuke.

## MUNDUAREN NEURRIAZ

Asko ibilitakoa naiz munduko bazterretan. Nolanahi ere, euskaldunok ez gaituztela ezagutzen ikasi dut atzerrian. Estaturik ez daukan herririk, ez dute ezagutzen. Estatu txikiak ere, maiz bat ere ez. Estatu Batuetan gazteei galdetu Espainiako hiriburua zein den, eta usu ez zekitela konturatu naiz.

Ni espainoltzat hartu naute ia beti eta espainolak toki gehienetan oso gutxietsiak dituzte. Espainia nazio behartsua da eta behartsua inon ez da ohoratu.

Nik jokabide bat hartu nuen gazetetik: argitasun edo zerbaiten beharrean nagoenean, Frantzia eta Alemanian beti ingelesez mintzatzen naiz eta amerikarra naizela uste izaten dute; Ingalaterran frantsesez, eta frantziarra naizela uste dute. Horrela kasu askoz handiago egiten didate.

Estatu Batuetan behin baino sarriago ikusi izan dut, neska latinoak kafetegian sartu eta zerbitzariak jaramonik ez egitea, beltzaranak zirelako.

Azken denborotan Euskal Herria ezagunago egin da euskal talde armatua dela-eta. Alde batetik talde horrek egin dituen erasoengatik eta bestetik Espainiar Gobernuak talde hori madarikatzeko egiten duen propagandagatik.

Interesantea da, bai Ingalaterran eta bai Estatu Batuetan, nola deitzen dituzten horko bazkideak: *Basque Separatist Group*. Espainiar Estatuan, ordea, bai irratietan eta bai telebistan, ez dira nekatzen talde hori ahal duten gehien laidotzen. Horiek ez dute sekula separatismoaren kontua aipatzen; horiei sinetsiz gero, *banda terrorista* hutsa da, inongo asmo politikorik gabea.

### **Austria eta Alemania aldean egin zenituen lehen atzerri-ibilerak.**

Hogeita lau urterekin egin nuen aurreneko ibilaldia. Gure anaia Roman Innsbrucken meza emateko zen. Gurasoak hara joan behar ziren eta ni beraiekin joan nintzen, itzultzaile, Jenaro anaiarekin batera. Meza eman eta gurasoak eta anaia atzera Euskal Herrira.

Nik hilabete bat eman nuen Innsbrucken, alemana praktikatzeko. Handik hiru urtera atzera joan nintzen Innsbruckera. Oraingo honetan, ordea, teologia ikastera. Lau urte eman nituen hartan.

Teologoak nazio askotakoak ginen, europarrak, amerikarrak, asiarrak... Hiru talde nagusi zeuden, ordea: alemanez mintzo ziren austriarrak eta alemaniarak, espainolez mintzo zirenak, eta estatubatuarak. Oso ongi konpontzen ginen elkarrekin.

Udan oporrak atzerrian ematen genituen. Uda batean Venezian aste osoa igaro genuen. Zinez, hiri ederrak daude munduan eta horien artean Venezia ez azkena. San Markos Plaza bezalakorik gutxi. Inguruko hiriak ikustera ere joaten ginen, Muranora eta.

Beste uda batean Berlinera. Bai jakingarria Berlinaldi hartan. 1966 zen eta Sortaldeko Berlin komunisten eskutik zegoen. Harrigarria! Guk ez genuen inongo oztoporik komunisten aldera igarotzeko. Alemanek beraiek, ordea, ezin. Sartaldeko eta Sortaldeko Berlin zeharo ezberdinak ziren. Sartaldekoan erosotasun guztiarekin, komunisten al-

dean, berriz, dena eskas. Aleman jesuitek ia guztiek zeuzkaten ezagunak komunisten aldean eta erregaloak ematen zizkiguten, ezagun horiei emateko: usain oneko xaboiak, nylon galtzerdiak, jantzi dotoreak... Hura poza sortaldeko neskena oparitxo haiek eskuratzean. Beraien artean luxu hutsa ziren holakoak. Ezin eskura!

### **Gure begientzat, antzekoak dira austriarrak eta alemaniarrek.**

Innsbrucken ikusi nuen zein alde dagoen austriarren eta alemanen artean. Austriarrak goxoagoak, italiarren antzekoagoak, Mediterraneoaren haizeak hartuagoak ziren alemanak baino.

Alemanak diziplinatuagoak ziren eta oso elkartuak. Gure irakasleen artean Karl Rahner famatua zen, alemaniarra bera, XXgarren gizaldiko teologorik handienetako bat eta zenbaiten ustez, handiena. Oso zen apala eta amultsua. Nire gela ondoan bizi zen. Teologo bat zeukan berarekin, laguntzaile, esaten zuen guztia apuntatzen zuela. Behin arrangura egin nion, neure gelan nengoenean traba egiten zidala bere laguntzailearekin izaten zuen berbeta hark. Besterik gabe aldatu egin zuen gela, gela hartan urte askoan egon arren. Harrituta gelditu nintzen bere ontasunaz.

Alemanek Karl Rahner jainkotzat zeukaten. Alemanek, bai politikan, bai jakintzan, bai gizarteko gorabeheretan, buruzagi bat behar dute. Hori ez baduzu gogoan hartzen, ezin dituzu alemanak ulertu. Horregatik jarraitu zioten horren zintzo Hitlerri.

Egun batean nik haxe esan nuen alemanen aurrean: «Karl Rahnerren latina eskasa da». Egia zen. Esan banuen, esan nuen! Alemanak sutu egin ziren eta han zegoen Philadelphiako amerikar batek umore onez esan zidan: «Gotzon, emazu esker Hitlerren denboran ez gauden, bestela alemanok Inn ibaira botako zintuzten».

Alemanak lagun egitea zaila zen. Baina behin eginez gero, bai leialak eta zintzoak. Ez zaituzte salduko, ez horixe. Betiko lagunak dituzu. Haas historiako gure irakasleak esaten zigun Europara etorri ziren barbaroen inbasioetan,

germaniar taldeetan bertuterik handiena *Die Treue* zela, hots, buruzagiarekiko fideltasuna. Hori alemanen odolean sartua dago. Horregatik eutsi zioten leialki Hitlerren hitzari azkeneraino.

Alemanen artean italiarrentzat ezinikusi handia sumatu izan dut beti. Zergatik? Batez ere aldakorak direlako, jaka erraz aldatzen dutelako. Gerla alemanen alde hasi eta aliatuen alde bukatu. Norat haize, harat aise! Ezin dute hori ulertu.

Behin Persiako Sha-k eskiatzen zuen Austriako Sankt Anton am Alberg herrixka fama-tuan eskiatzen ari nintzela, alemaniar neska batekin adiskidetu nintzen. Haurdun zegoen eta gurasoak prest zeuden haurra hartzeko. Haurraren aita, ordea, ez zuten inola ere onartu nahi. Zergatik? Italiarra zelako.

#### Leku guztietan bada zerbait.

Teologo guztien artean berezianak frantsesak eta ingelesak ziren. Frantsesak beti Frantziaren herriminez ibiltzen ziren, desterrura kondenatuak baleude bezala. *La France, la France!*, hartzen zuten sarri ahotan.

Ingelesak, berriz, taldean eta beti batera ibiltzen ziren, ia beste inorekin nahasi gabe. *Gentlemen* ziren, beti zere monietan ari zirela ematen zuen.

Innsbruckeko lau urte horiek ez ditut sekula ere ahaztuko. Bai urte zoragarriak! Teologia ikasi, alemanez jo eta ke jardun eta eskiatzera joan. Elurra ez zenean, mendira, Alpeetara. Gazteak ginen. Ez zen gure izatearen zeruan laino izpirik ere. Innsbruck, berriz, munduko hiririk politenetako bat da, Alpeetako zulo batean sartua dagoen arren.

*Föhn* hego-haizeak jotzen zuenean, presioa erabat aldatzen zen eta asko buruko minez ibiltzen ziren, bertakoak ere bai, loak hartu ezinik. Niri, berriz, logura gehiago ematen zidan. Hango legeak eta Bizkaiko Foruaren legeak puntu batean bat zetozen: hego-haizeak jotzen zuen egunean kri-

◆  
«Innsbruckeko  
lau urte horiek  
ez ditut sekula  
ere ahaztuko.  
Neguko Joko  
Olinpikoak  
ikusteko  
aukera ere izan  
nuen»



men bat eginez gero, auzian kontuan hartu beharra zela, zigorraren aringarri.

Innsbrucketik maiztxo Munichera joaten ginen, erosketak egitera. Idazteko makinak eta, Espainiakoen aldean merkeagoak ziren han.

Neguko Joko Olinpikoak ikusteko aukera ere izan nuen Innsbrucken. Banuen lagun bat jesuita, turkiarra, oso laguna. Kaniatsi zuen izena. Munduan zegoen turkiar jesuita bakarra zen. Jokoetarako bi sarrera eman zizkieten eta bat neuri eman zidan. Elkarrekin joan ginen inauguraziora eta ondorengo jokoetara ere bai.

**Ingelesak atzerrian nola ibiltzen ziren aipatu duzu, baina Ingalaterra ezagutzeko aukera ere izan zenuen.**

Bai horixe! Hurrengo bi urteetan Liverpoolen eta Londresen eman nituen udak. Bertatik ezagutu nituen ingelesak.

Nire ustea beti izan da, edozein pertsonarengandik bezala, edozein naziotatik ere gauza on asko ikas daitezkeela. Erleak bezala izan beharko ginateke. Erleak lore onen mimikotik ezta xurgatzen du. Lore txarrak, ostera, ukitu ere ez.

Ingelesak beren bidetik doaz, Europako inori jaramon handiegirik egin gabe. Trafikoa ezkerretik, dirua difere ntea, neurriak ere bai... Europakoei ez, baina Estatu Batuetakoei begirunez begiratzen diete, eta beraiek baino maila goragoan daudela aitortzen dute. Eurak, ordea, Europako beste nazio guztiak baino gorago daudela uste dute. Beharbada arrazoia izango dute, gainera.

Liverpoolgo oroitzapen berezi bat badut. Ni bizi nintzen St. Timothy's parrokiari bingo bat zegoen. Ni gaztea nintzen eta gitarra jotzen nuen. Anaiak ziren beste irlandar gazte birekin musika taldetxo bat osatu genuen. Anaietatik batek gitarra jotzen zuen eta besteak mandolina. Bingo aretoan jotzen genuen. Ni nintzen solista. Batez ere Mexikoko kantuek kantatzen genituen, *De la sierra morena, Solamente una vez amé la vida...* Eta euskal kanturen bat ere bai: *Aurtxo txikia seaskan dago...* Arrakasta handia izaten genuen. Hain zuzen ere, orduantxe hasi ziren, Liverpoolen bertan, Beatles taldekoak fama handia egiten.

### **Eta Frantzia?**

Frantzia baino gehiago, Paris ezagutzen dut nik, han ere egonaldiak egin izan ditut eta, frantsesez mintzatzeko. Guk jesuitok Rue de Grenellen daukagun etxean egoten nintzen, Eiffel Dorrearen ondoan.

Frantsesak dohain askotako jendea dira. Artistak eta alor askotan oso aurreratuak, zientzia kontuetan ere bai. Ez nuen beraiekin Euskal Herriaz mintzatzeko. Espainola nintzen beraiantzat. Frantsesak oso zilbor zaleak dira, Frantzia oso zentralizatua maite dute eta hobe hizpide ez-tabaidagarriak bazterrean uztea.

Alemanak ere etortzen ziren Rue de Grenelleko etxe horretara eta beraien aurrean frantsesak gizagaixo sentimenduaz, konplexuaz ibiltzen ziren, alemanek azken hiru gerretan jipoi ederra eman zitelako.

Bestela ere alemanen aldean filosofian, teologian, teknikan, musikan... atzeratuak daudela badakite frantsesek. Pinturan, ordea, alemanak baino gorago.

### **Eta bien artean, Suitza.**

Suitzan bi urte eman nituen, Friburgon, marxismoa ikasten, hango unibertsitetean. Hara hogeita hamabi urterekin joan nintzen. Nik ordurako Suitza ezagutzen nuen, *Solothurn* umezurtz etxe batean egonaldiak eginak bainituen.

Nik zerua nola izango den pentsatzen dudanean, Suitza bezalakoa izango dela pentsatzen dut. Hango edertasuna, hango txukuntasuna, hango ordena zoragarria! Errepideak ere erregela batekin eginak direla ematen du. Errepideen bazterrak ere inongo zaborrik gabe. Ez duzu sekula ere lurrian papertxo bat edo zigarro mutur bat ikusiko.

Bizimodua garestia bai, arranopola! Alemanek, etortzen zirenean, nazio hura beraiantzat garestiegia zela esaten zidaten. Pentsa guretzat zer izango zen!

Ni Bernara astero-astero joaten nintzen neure doktore tesirako gaia biltzera. Madrilen aurkeztu banuen ere, Bernan osatu nuen ia osorik neure tesia, *Karl Marx y los nacionalismos separatistas*. Euskal Herriari begira egin nuen tesi

hori, garai hartan marxismoa eta abertzaletasuna zirelako gure herrian indarririk handienak.

Geroztik bai aldatu dela Euskal Herriko giroa. Komunismoa ia zeharo galdu dela esan liteke. Abertzaletasuna hor dago tinko.

Beñako trenbide geltokitik Die Schweizerische Osteuropa Bibliothek-eraino tranbiaz joaten nintzen. Bai gustura! Europa osoan huraxe zen garai hartan marxismoari buruzko gaitan liburutegirik onena, Sobiet Batasunekoak kenduta, jakina.

Neure bizitzan ez dut horrenbeste eskiatu. Suitzian bagenuen estudiante txartel bat eta horrekin oso merke erabiltzen genituen Suitzako eski toki guztietako funikularrak eta eserleku arruntak. Banuen lagun bat Estatu Batuetakoa, unibertsitatean fisika ikasten ari zena, ni bezala oso eski zalea, eta elkarrekin joaten ginen hango eta hemengo mendietara. Berak autoa zeukan.

Friburgen estudiante etxe batean bizi nintzen. Esaterak dioen bezala, «Itsuen herrian begibakarra alkate». Futbolearen beste bat eta biok ginen onenak. Grekoen kolonia bat bazegoen eta haien kontra ere jokatzen genuen.

Suitzian lagun onak egin nituen eta geroztik ere joan izan naiz bisitarekin bat egitera. Garai hartan Suitzako konstituzioaren arabera, jesuitek debekatuta zeukaten ikastetxeak-eta irekitzea, jesuitok oso erraz indar handiegia eskuratu eta istiluak antolatzen omen ditugu eta. Gero erreferendum bat izan zen eta jesuiten kontrako lege hori kendu egin zuten.

### **Beti Europan?**

Ez, ez, ibilia naiz beste hamaika lekutan ere. Afrikan ere ibili naiz, esaterako. Marokon, Senegalen, Mauritania...

Mauritania bidea nahiko galdurik ibili nintzen, egia guztia esan behar bada, baina lasai, hala ere. Gaztea izateak hori dakar, ez duzu arriskurik ikusten. Motorrean ibiltzearen antzekoa da. Motorra hartu eta Bilbotik Puerto de Santa Mariaraino joaten nintzen. Sekula ez zitzaidan bururatu

gauza txarren bat gertatuko zitzaidanik. Baserrietara ere, urte askoan, Amaiurreraino eta, motorrez joaten nintzen.

Alde handia dago Afrikan ibili edo Asian ibili. Afrikan ez duzu aurkituko Asian, Indian, adibidez, aurkituko dituzun arkitektura, tenpluak, filosofia, ohiturak, jantziak...

Niri beti askoz gehiago gustatu zait Afrikan beltzekin ibiltzea mairuekin baino. Musulmanak askoz buru beroagoak dira eta kontuz ibili behar zara zein tokitan zabiltzan edo zer egiten duzun. Borondaterik onenarekin min ditza-kezu musulmanak. Musulman ez diren beltzak oso adiskidetsuak dira. Neu bizi izateko azken-azkeneko lekua, musulman nazio batean aukeratuko nuke. Musulmanen artean emakumeak zein baztertuak dauden ikusteak berak bakarrik kalte egiten zidan.

#### **Asia ere aipatu duzu.**

Indian bi txandatan egon nintzen. Guztira bost hila-bete eman nituen, Ahmadabaden eta Ranchin, Kalkuta ondoan. Hindi praktikatzera joan nintzen. Aurretik Deustuko Unibertsitatean gogor ekina nion hindi hizkuntzari. Egonaldi bikainak izan ziren. Hizkuntza ikasiz gainera, gauza berri asko ikusi nituen. Kalera irten eta beti ikusiko zenuen harrituko zintuen zerbait. Jendea oso bihozta eta karana.

Hindi hizkuntzak, euskarak bezalaxe, egitura panoramikoa dauka, hots, handitik txikira doa: «Donostiako etxeko zakurraren buztanaren zorria». Euskaraz bezala ez du preposiziorik, posposizioak baizik: «Mendi-ko».

Artikulu bat idatzi nuen honetaz *Argia* aldizkarian. Bilbora etorri eta liburu bat idatzi nuen, *India harrigarria*. Liburu horretan eman nituen nazio zoragarri horretan ikusitakoen berri eta neure hausnarketak ere bai.

#### **Alabaina, beti Marx buruan, Errusia ezin bazterrean laga.**

Moskuko egonaldia ere oso aberasgarria izan zen. Ho-geita lau bat urterekin hasia nintzen errusiera ikasten eta geroztik beti ahalegintzen nintzen errusiera hobetzen. Zaragozan eta gero Innsbrucken izan nituen lagunak hizkuntza horretan mintzatzeko.



Moskura heldu nintzenez aireportuan nire zain zeuden familiako gurasoak. Ni Moskura Madrileko Pushkin Institutuaren bidez joan nintzen eta guraso horiek ez zekiten ni errusieraz nola moldatzen nintzen. Keinuz mintzatzeko liburu bat ere erosi omen zuten. Aurreneko egunetik ez nuen mintzatzeko inongo eragozpenik izan.

Guraso horiek unibertsitateko fisika irakasleak ziren biak. Bazituzten hiru alaba. Zaharrena Kati ezkondua zegoen. Alemanek esaten duten bezala *Bildhübsch* zen, izugarri polita eta jatorra, zinez. Besteak Nadia eta Taniuxa ziren. Nadiak hamabost urte zituen eta Taniuxak bederatzi bakarrik. Taniuxa lehenengo egunetik nire lagun min-mina egin zen. Ni paseatzera ateratzen banintzen, bera nirekin. Zirkora ere biok joaten ginen elkarrekin.

◆  
«Komunismoa galdu zutenean gizarte hobea izango zutela agindu zieten. Ez da hori gertatu»

◆  
Familia horretan bizimodu latza zera-maten. Lehenengo egunean, aireportutik etorri eta galdetu egin zidaten zer nahi nuen afaltzeko. Abioian ongi eman ziguten jaten eta nik zer edo zer esatearren esan nien: «Baso bat esne». «Guk ez dugu esnerik edaten, udan *dashan* gaudenean bakarrik», erantzun zidaten. Amak biharamunean, hizketan ari ginela, honelaxe esan zidan: «Taniuxari arrautzak asko gustatzen zaizkio, baina guretzat garestiegiak dira.»

### **Bizimodu arraioa, beraz.**

E rrusian medikuek eta irakasleek gutxi irabazten zuten. Langileek baino gutxiago. Orain gauzak aldatzen ari dira. Oso gaizki jaten genuen. Egunero pasta eta barazkiren bat. Okela ikusi ere ez. Postre, sagartxoren bat. Edateko deus ere ez. Postrean tea edaten genuen, ura ongi irakin eta gero. Iturritik edateko ura arriskutsua zen. Fruituak oso garestiak ziren, urrutitik zetozen eta, independente egin diren hegoaldeko nazioetatik: Ukraina, Armenia...

Taniuxa aingerutxoarekin merkatura joaten nintzen eta bananak erosten genituen. Taniuxak bular gainean eramaten zituen etxera, trofeoak balira bezala, bere laguntxoek

eta, ikus zitzaten. «Hara, guk bananak jaten ditugu», esanez bezala.

Moskun jana Indian baino txarragoa zen. Indian beti daukazu arroza eta bananaren bat. Eta noizbehinka okela pusketaren bat ere bai. Oilaskoa zen Indian jaten ez genuena. Europan merkeena dena, han luxua zen.

Moskuko etxeko guraso horiek komunista amorratuak ziren. Bai zintzoak eta elkar maiteak, horratio! Gorvaxov ezin zuten argazkian ere ikusi. Traidoretzat jotzen zuten, Sobiet Batasuna desegin eta komunismoa pikutara bidali zuelako. Bazuten guraso horiek lagun oso jator bat, umoretsua, hura ere unibertsitateko irakaslea, vodkari nahiko emana, adarra jotzen ziena. Komunismoaren akats guztiak aurpegira egozten zizkien eta besteek sutsu defendatzen zuten komunismoa. Sekula haserretu gabe, ordea.

Gurasoek, nire ustez, arrazoia zuten. Komunismoaren garaian bazekiten pobre biziko zirela, baina dena ziurtatuta zuten, hala ere: etxebizitza, lana, soldata...

Komunismoa galdu zutenean gizarte hobea izango zutela agindu zieten. Ez da hori gertatu. Etxe zahar bat duenari esaten bazaio «Zure etxea txarra da, desegin eta etxe eder bat emango dizugu», etxe txarra txikitu eta berri-rik eman ez. Horixe gertatzen da, usu. Ez zerurako eta ez lurrerako gelditzen zara.

Etxeko gurasoekin baletak ikustera joaten nintzen. Han oso merkeak dira sarrerak. Dostoievskiren *Idiot* e re ikusi nuen. Berez eleberria dena, antzerkian eman zuten. Hiru o rduko emanaldia. Ni pozez zorutzen, Dostoievski oso maite baitut eta bere lanen artean *Idiot* hori gustukoen.

Egunero emakume bat etortzen zitzaidan familiara errusiar gramatika erakustera eta mintzatzera. Baina niretzat inportanteena etxeko hizketa zen. Goizetik ohetik jaiki orduko atzera ohera joan arte, denbora guztian errusieraz mintzatzen. Hori zorzea! Nik atzerrira hizkuntzak ikastera doazen Deustuko estudianteei beti esaten diet, ahal izanez gero, familietan bizitzeko. Garestia bada ere, askoz gehiago ikasten da. Moskun nik ez nuen hitz bat egin gaztelaniaz. Euskaldun bat aurkitu nuen, jatorra, tolosarra, gaztea

**HASIER ETXEBERRIA**

eta harekin ibilaldira batzuk egin nituen. Euskaraz egiten genuen, jakina. Bestela denbora guztian errusieraz.

**Ederra izango da, Mosku.**

Oso ederra. Ia egunero joaten nintzen Plaza Gorri famatura. Metroz joaten nintzen gure etxetik. Metroa merke-merkea da. Hilabeteko txartela atera ia hutsaren truke, eta nahi adina aldiz ibil zaitezke. Jende guztia metroz ibiltzen da. Autobus gutxi daude eta auto askorik ere ez.

Metroan ahal duten guztia eramaten dute. Nire aurrean emakume bat katuarekin zihoan. Argazkia ateratzeko baimena eskatu nion. Baietz. Hementxe dut argazki hori, polit askoa.

Eta harrigarria! Metroan berrogeita hamar segundo oroz etortzen da tren bat. New Yorken, berriz, batzuetan aspertu egiten zara hurrengo trenaren zain. Geltoki batzuk, berriz, oso dotoreak dira. Stalinek nazio kapitalistei inbidia eman nahi izan zien Moskuko metroarekin.

Bai plaza bikaina Plaza Gorria! Hantxe dago Leninen mausoleoa ere. Beti jendez betea. Turista asko. Kremlin inguru guztiak zoragarriak dira pasieran ibiltzeko. Batzuetan Nadiak laguntzen zidan.

Hamabost egun familiaren *dasha* batean, hau da, udarako opor etxean, eman nituen. Moskutik bostehun bat kilometrora zegoen, Uralak alderantz. Bai gustura egun haietan ere, eltxoek ia jan bagintuzten ere.

Egun batean gurasoekin eta lagun batzuekin auzoko sauna batean sartu ginen. Guztiok larrugorri, ur bero-beroan arbasta batzuk sartu eta arbasta horiekin zipli eta zapla, gorputza astintzen zuten nire lagunek. Nik zartako bat eman nion neure sorbaldari eta min handia. Neure baitan esan nuen, «Hau ez duk hiretzako, motel», eta atseginez izerditu nintzen, baina arbasta zoko batean utziz. Beraiek neguan saunatik atera eta erreka izoztuan sartzen omen ziren. Kontraste hori oso ona omen da osasunerako. Mutilak!

Lehenengo egunean *dashan* geundela, Taniuxkak ibaian igerian egitera gonbidatu ninduen. Ez naiz oroitzen zein ibai zen, Wjatka edo. «Bai, *galúbuxka*» (usoino), esan nion.

Sartu naiz uretan eta hura hotza. Eta nire laguntxo, bederatzi urte bakarrik izan arren, lasai asko uretan. Gainera oso argala zen, bere hezurtxoak agerian zituela. Igerian, oso ederki zekien. Esan nion: «Taniuxka, ezin dut iraun hotzarekin». Alde egin genuen eta ni gehiago ez nintzen uretan sartu.

Benetan oroitzapen izugarri ona dut familia horretaz eta harremanetan gaude oraindik ere. Ezkondu berria da nire Taniuxka maitea.

Errusiarrak zinez eta benetan maitagarriak iruditu zitzaizkidan. Apalak. Eta bertute handi batekin, pazientziarekin, *terpienie*, beraiek esaten duten bezala. Hemeretzigarren gizaldira arte Errusiako gizartean nagusiak eta esklaboak zeuden eta komunismoa etorri zenean, Stalinekin batez ere, gauzak ez ziren askoz hobeto jarri.

Miseria eta bizimodu latza pazientzia handiarekin eramaten dute. Lehenago ere bai, baina bertan egon geroztik batez ere, errusiarrak maite-maiteak ditut. Bilbon errusiar asko sartu dira eta kalean errusieraz mintzo direnean, beti agurtu egiten ditut eta neure begirasuna eta maitasuna agertzen dizkiet.

Etxekoandreak esaten zidanez, Errusian bi arraza daude: eslaboak eta mongoliarak. Aita eslaboa zen eta alaba zaharrena eta Taniuxa eslaboak ziren, erabat. Ile horria, begi urdinak eta azal txuria, ia zurbila. Amak zioenez, bera mongoliarra zen. Eta bigarren alaba, Nadiuxka, bera bezalakoa. Aurpegi borobiltxoago, matrailezurak irtenak eta azalaren kolorea beltzatxoagoa. Ama oso hiztun ederra zen. Niretzat, errusieraz ikasteko oso mesedegarria. Aita, ostera, isilagoa.

**Eta komunismoaren hiriburu izandakotik, kapitalismoaren hiriburura.**

New Yorken ia urtero-urtero, uda eman izan dut. Bi hilabete eta erdi igarotzen ditut, ia beti Manhattanen, dorre bikiak erori ziren auzoan. Baina bost urtean Bronxen eman nituen. Bronxen hegoaldean egoten nintzen, garai hartan dena, etxeak-eta, desegina zegoen auzoan. Bomba atomikoa eroria zela ematen zuen. Hura toki oso arriskutsua zen,

gauetz batez ere. Drogazalez eta lapurrez beteta zegoen auzo hura.

Nik gauetz apaiz lanak egin behar nituen eta sarritan deitzen zidaten Lebanon Hospitalera, Grand Concoursen, Intensive Care Unityra joateko, larrialdian zeuden gaixoen-gana.

### Film beltzetako kontua dirudi.

Bi modu zeuden hara joateko. Oinez edo poliziarri deituta. Poliziarri deitu eta gauean lan egiten duten horietako auto bat etortzen zen nire bila. Poliziek laket dituzte ibilaldi horiek apaizekin, batzuetan aspertuta egoten direlako. Kontu kontari eramaten ninduten ospitalera. Baina, gehienetan, oinez joaten nintzen. Joan eta etorri, ordubetetxo bat. Han apaiz lana bada, beti ibiltzen gara apaiz jantzita. Drogazaleek eta prostitutek bihotzez agurtzen ninduten.

### Edera lekua bakarrik ibiltzeko!

Behin, espaloian barna nindoala, beltz handi bat hurbiltzen ikusi nuen. Handia zen, indartsua, bular zabala. «Hau duk hire azken gaua», pentsatu nuen neure kolkoan. Ondoratu zitzaidan eta burua makurturik esan zidan: «Father, give me the blessing», «Aita, emaidazu benedikazioa». Gustura eman nion.

◆  
«Niretzat munduak daukan problemarik latzena ekologikoa da. Ze planeta utziko diegu gure atzetik datozenei?»

◆  
Gero, ordea, Manhattanen lan egin izan dut. Nire lan nagusiak bi izaten dira: gure *Counseling Centerean* jendea hartu eta Fordham unibertsitatean lan egin.

Ez dut honetaz gehiago esango, bi liburu idatziak baititut gaiaren inguruan: *New York, New York* eta *New Yorkeko kronika beltza*.

◆  
**Nolakoak dira, hala ere, estatubatuar-  
rrak, oro har?**

Zerbait esango dut amerikarrei buruz. Nik badakit amerikarrek huts galantak egin dituztela eta egiten dituztela, oraindik ere. Halere, maiz pentsatu dut, beste nazio-

ren batek amerikarrek daukaten indar ekonomikoa eta militarra izango balu, askoz astakeria handiagoak egingo zituzkeela eta askoz harroago jokatuko lukeela.

Amerikan juduek indar ikaragarria dute. Ekonomian, komunikabideetan eta ikuskarrietan (*entertainment*) jaun eta jabe dira juduak. Banku handienen jabe dira, munduan den kazetarik onena, *The New York Times*, albiste kanal onena, CNN, eta Hollywood eskuan dituzte... Spielberg, Paul Newman, Elizabeth Taylor, Warner... juduak dira.

Ameriketako juduak kontra izanez gero, ezingo luke Presidente batek gauza handirik egin. Ameriketako juduek Israelgo juduei laguntzen diete eta horrek sutu egiten ditu palestinarrak eta beste nazioetako musulmanak. Niri New Yorken amerikar askok esan izan didate, Irakeko inbasioa judutarrek eraginda egin zutela.

Musulmanek israeldar juduei dieten gorrotoa Estatu Batuetako juduei pasatzen diete eta hortik Estatu Batu guztietara. Konponbide zaila.

**Hala ere, beste arazo batzuk ere kezkarriagoak zaizkizu.**

Niretzat munduak daukan problemarik latzena ekologikoa da. Oso kezkatua nago honekin. Euskara guretzat kezka handia da, baina mundu zabalera begiratuz gero, euskara galduta ere, eskualde txiki baten kontua izango litzateke. Problema ekologikoa planeta guztiari dagokio. Mundua apurtzen, hondatzen eta alferrik galtzen ari gara. Ze planeta utziko diegu gure atzetik datozeinei? Zaborregi bihurtutako bat?

Alde handiz, diruak eragiten du hondamen hau. Dirua tartean badago, beste balioak zapuztu egiten dira. Amazonasko basoak, munduko birrikak, mozten ari gara, hor petrolioia omen dago eta. Itsasoan urtero ez dakit zenbat milioi tona zikinkeria botatzen dugun. Erreketan ezin dugu igerian egin, guk geure ume denboran Deba ibaian egiten genuen bezala. Animaliak, txori mota asko... akabatzen ari dira, gizakien ankerkeriagatik. Niri beti esan didate optimista naizela, baina ekologia kontuetan etorkizun iluna ikusten diot gizadiari.

### **Etorkizun beltza ikusten diozu, beraz, planetari.**

Jauntxokeria betidanik izan da. Indartsuak oso sari ahula zapaldu egin izan du. Orain badago eztabaida gogor bat, batzuentzat behintzat: Iparraldeko Koreak eta Iranek ezin omen dute bonba atomikorik eduki. Zergatik? Bonba atomikoak dituztenek nahi ez dutelako. Estatu Batuek, Ingalaterrak, Frantziak, Israelek... ez dute nahi. Beraiek badi-tuzte bonba horiek, baina eurak *onak* dira eta onek *gaiztoek* ezin eduki ditzaketen armak eduki ditzakete. Ez ote litzate-ke askoz hobeto guztiek bonba horiek desegitea eta mundua mehatxu horretatik libratzea?

Bertrand Russellek esaten zuen, ongi esan ere, giza-kiek orain arte egin zituzketen astakeria guztiak egin di-tuztela. Ikusiko dugu, edo gazteek ikusiko dute, ea ez ote den gerla atomikorik etortzen.

Gauza bat da garbia: debekatu edo ez debekatu, gero eta nazio gehiagok eskuratuko dituela bonba horiek, agi-rian edo ezkutuan. Zenbat eta nazio gehiagok eduki, gerla atomikoa sortzeko arrisku handiagoa. Bide bakarra: guz-tiek deuseztatu bonba horiek. Nazio *gaiztoei* debekatzea bakarrik, ez da bidea.

### **Droga ere aipatu duzu lehenxeago.**

New Yorken ia 40 urtez droga ondo-ondotik ikusi dut. Gure auzoan, Washington Heights-en (Goi aldeko Man-hattanen), barra-barra saltzen da. Gure ondoan, Washing-ton zubia igaro eta New Jersey dago. Hor kasinoak daude, batez ere Atlantic Citykoak. Handik gure auzora etortzen dira droga erostera, merkeagoa delako. Zenbat hilketa, zenbat miseria ekarri duen drogaren salmentak!

Oroitzen naiz uda batean ama batek bere alaba hil zuela New Yorken. Alabak droga hartzen zuen eta familia guztia goitik behera hondatzen ari zen. Amak beste se-me-alabak aurrera ateratzeko erabaki hori hartu behar izan zuela esan zuen.

Debekatu egin behar al da droga? Niretzat inola ere ez. Droga zilegi ez den bitartean negozio handiak munta-tuko dituzte mafia taldeek. Milioika eta milioika euro as-

tero-astero. Droga libre utzi behar da, ze ondorio txar dituen ondo jakinarazi eta gero, jakina.

Droga hartzen duenak jakin behar du, argi baino argiago, bere burua hondamendira daramala. Debekatzearekin ez da gauza handirik egiten. Droga garestiago egin eta negozioa biribilago.

Estatu Batuetan alkoholarekin izan zuten ipurdikoak erakutsi behar liguke hau. *Prohibition* denboran sekula baino istilu gehiago izan zen eta Al Capone eta beste batzuentzat aldi izugarri ona izan zen negozioa egiteko.

Droga libre utziz gero, gehiagok hartuko lukeela esan ohi da. Hori esaten zen alkoholarekin ere, *Prohibition* denboran. Ez dago frogaturik. Debekatuak beti dauka lilura berezia. Eta droga saltzaileak orain biziki saiatzen dira nola edo hala hartzaile berriak egiten. New Yorkeko gure auzoko eskola baten aurrean saltzaileek 13 urteko haurrei droga ematen zieten, dasta zezaten...

New Yorken nire lagun polizia batek esaten zidan, bera sinetsirik zegoela nazio askori ez zaiela komeni droga libre egotea. Libre egonez gero, milaka eta milaka polizia, aduanako jendea eta beste brigada asko, lanik gabe geldituko lirakeela. Bestalde, bahitutako drogarekin eta ematen dituzten isunekin, Estatuek diru pila galantak irabazten dituztela.

## LETRAK ETA LITERATURA

Gaztetxo nintzenetik interesatu izan zait literatura, hots, literatura liburuak irakurtzea. Maiz denborarekin ibili naiz larri. Orain ere, esate baterako, Indiako bi emakume famaturen lanak dauzkat hemen neure gelan irakurtzeko. Taslima Nasrin-en *La hermana de Nupur* eta Arundhati Roy-ren *El dios de las pequeñas cosas*. Irakurtzeko asti handirik ez, ordea. Hil berria den Saul Bellow-en lau lan badi-tut irakurriak eta beste bi neure ondoan izan arren, irakurri gabe. Ahal dena segitzen dut. Udan Ameriketara ere joaten naiz unibertsitatera eta gaurko literatura beti segitu izan dut. Hemen, ikusten dituzun liburuetatik gehienak nobelak dira; ehunka.



## Zeintzuk dituzu idazle edo obra maiteenak? Zergatik?

Nik uste dut guztiok maite ditugula goen-gorenera igo diren idazleak. Askoren ustez munduko idazlerik handiena Shakespeare izan da. Nik ez nuke ezetz esango. Beraren tragediak behin eta berriz irakurri izan ditut. Beste idazle apartekoa: Cervantes. *El Quijoteri* irizten diote batzuek sekula idatzi den eleberririk onena. Agian, zuzen dabilta. Bi idazleotan hizkuntza zoragarria eta pentsamendu sakonak elkarturik ikusiko dituzu. Niretzat ongi idazteak pisu handia du.

Euskal eleberriak irakurtzerakoan ere euskarari inportantzia handia ematen diot. Euskara ona izan dadin, hiru baldintza bete behar dira: hutsik gabekoa, ulertteraza eta aberatsa izan behar da. Ulertteraza izateari batzuetan ez diogu behar lukeen inportantzia ematen. «Lar guztiak txar», baina, bere txarrean, hobe da mordoilokeria, garbizalekeria baino. Mordoilokeria ulertzen da. Garbizalekeria ez. Eta hizkuntzak elkar ulertzeko dira.

Eleberri egileetan Dostoievski dut gustukoa. Baina beste asko eta asko ere bai. Dickens lan nagusiak behin baino gehiagotan irakurri ditut. Faulkner zehatz-mehatz aztertu dut, estilo aldetik asko ikas litekeelako beragandik, *stream of consciousness*-eta. Neure bizitzan milaka eleberri irakurri ditudala uste dut. Aldi batzuetan denbora handia izaten nuen irakurtzeko. Gutxiago idazten nuen.

### Euskal literatura ere jarraitu duzu?

Bai, berri-berri guztiak ez badituz irakurri ere. Orain nahiko idazten da eta ezin eleberri guztiak irakurri. Zeure lanak ere ezagutzen ditut, jakina. Bai eta gure herriko Jasone Osororenak ere.

Euskal idazlerik aipatuenak hurbiletik segitzen ditut, Bernardo Atxaga, Jose Mari Iturralde, Patxi Ezkiaga, Saizarbitoria, Txillardegia, Edorta Jimenez, Anjel Lertxundi... Jon Juaristi ere bai, bere garaitxoan. Jon Kortazarren kritika lanak ere ez dituz bazterrean uzten. Literatura kritika, ongi egina dagoenean, atseginez irakurtzen dut.

**Oraintsu idatzi duzu, behar beste euskara jakin gabe argitaratzen duela zenbaitek.**

Halaxe da. Badira nobela batzuk euskara kaxkarrez idatziak. Huts asko dute. Horrenbeste hutsekin erdaraz idatziak balira, ez lituzkete argitaratuko. Halere, ni poztu egiten naiz horrelako liburuak idazten dituztelako. Euskal idazleak behar ditugu. Gogoa badute, idazle horiek euskara hobetu eta osatu egingo dute eta etorkizunean gauza ederrak idatz litzakete.

Txarrenak, gaizki idatzi eta dena dakitela uste duten horiek izaten dira. Ez dute erremediorik. Hil arte euskara hobegotu egin behar dugu. Neu ere lan horretan etenik gabe ari naiz. Irakurri euskaraz ongi idatziak dauden liburuak eta baserri ta męngandik ikasi. Nik beti aholkatzen ditut klasikoak eta Auspoa bildumako liburuak. Gramatika berriak eta euskara hobegotzeko ateratzen diren liburuak ere arretaz irakurtzen ditut, bai Euskaltzaindikoak eta bai beste batzuek idazten dituztenak ere.

◆  
«Baserrietan ia berrogei urtean mila eta milaka erregistro bildu ditut. Ehun mila esapide izango dira»  
◆

**Euskal eleberrigintzaren historia egin duzu. Nola laburbilduko zenuke?**

Nahiko behartsuak gara. Olerkigintza aspaldidanik daukagu. Zer esanik ez bertsolaritza. Lauaxetaren aldikoak hasi ziren poesia modernoaren urratsetan.

Eleberrak idazten hogeigarren gizaldian hasi ginen. Geroztik aurrerapen handiak egin ditugu. Olerkigintzan ere bai. Lehenago eleberri gutxi idazten zuten eta ezin esan dena ona zenik.

Hor daukazu, adibidez, J.M. Lertxundiren *Polli eta Pello bi euskaldun bikain eta zintzoen kondaira*. Eskasa. Jose M. Etxeitaren eleberrak ere, bera euskararen jabe izan arren, txepelak dira.

Egungo egunean eleberri nahikorik idazten da eta batzuk onak dira. Hor eztabaidan ari dira batzuk ea ez ote den euskaraz eleberri gehiegi idazten. Inola ere ez. Askok idatziz gero, horien artean banaka batzuk oso onak izan li-

tezke. Gutxi direnean aukera gutxiago izaten da. Zenbat eta gehiago idatzi, lan onak aurkitzea errazago izango da.

Beraz, guztira, bide zuzenetik goaz. Aurreratu egin du-  
gu bai kopuruan eta bai kalitatean ere, literatura genero  
guztietan.

**Orain esapideekin zabilta, modismoekin, lan ho-  
rrek denbora asko hartuko dizu?**

Neuk nahi baino gehiago. Ez dakit noiz amaituko du-  
dan. Baserrietan ia berrogei urtean mila eta milaka erregist-  
tro bildu ditut. Ehun mila esapide izango dira. Sailkatzen  
hasi naiz. Gero gaztelaniazko ordezkioak bilatu behar di-  
tut. Detektibe lana. Eta azkenean Erdaraz-euskaraz zatia  
osatu. Lan handia, urte batzuk eskatzen dituen, baina us-  
te dut merezi duela. Atsotitzak bezala, BBK-k argitaratuko  
du, Joxerra Bilbaori esker. Liburu hau ere, atsotitzena beza-  
la, Lasarten dagoen Adur etxeak prestatuko du. Hor dabil  
buruargi Josu Landa.

**Ongi bereizten dituzu esapideak atsotitzetatik?**

Oso garbi. Atsotitzek beti filosofia dute azpian. Esapi-  
dea, oster, sinonimo bat da, molde errazaren ordezkioa.  
«Zoaz hemendik» esan beharrean sinonimo bat erabiltzen  
duzu, horren ezaguna ez dena, «Zoaz antzarrak ferratzera».  
Esapide honetan eta besteetan, ez dago filosofiarik. Esaldi  
xingleak dira.

Ostera, «Azeriak buztana luze, besteek horrela dutela  
uste», esaldian pentsamendu mamitsu bat adierazten du-  
zu: «Zu nolakoa zaren, besteak ere zure modukoak direla  
uste izango duzu». Iritzi bat adierazten duzu.

*Marxen marxismoa* argitaratu zenuenean, mugarr i  
moduko bat ikusi genuen. Literaturan, ez dizugu ikusi  
antzeko mugarririk. Hala ere, zure fikzio lanak —*Oroit -  
zapenetan* (1977), *Esku leuna* (1977), *Elizondoko eskutit -  
zak* (1977), *Goizuetako ezkongabeak* (1979), *Lehortean*  
(1979), *Muskillak* (1980), *Nafarroako Ezkurra n* (1982),  
*Aldarte oneko ipuinak* (1982), *Izumi berria* (1984), *Alaba*  
(1984), *Hadesen eresumarantz* (1986), *Zilarezko gazte -  
luen kronika urratua* (1992)— eta bidaia eta bestelakoe-

tan oinarritutakoak —*New York, New York* (1988), *India harrigarria* (2001), *Zakuma, zeure laguna* (2002), *New Yorkeko kronika beltza* (2004)—, erruz saldu eta berrargitaratu dira, polizia-nobelak batez ere. Alabaina, idazleen artean, ematen du ez daukazula garrantzizko lekurik.

Egia da. Nire lanik ezagutuenak polizia eleberriak dira. Horiek ez dute mugarririk ipintzen. Eta besteak, ipuinak eta gizarteko eleberriak, ez dira ezagunak. Halere, nire ipuin bildumetan batzuk bikainak direla esan didate unibertsitateko irakasle batzuek. Horietako bat japonierara eta ingelesera itzuli didate...

Gauza bat esaten didate guztiek: bai ipuinetan eta bai eleberrietan nire euskara oso ona harrapatzen dutela. Base-rietan urte luzeetan egotearen ondorioa da hori. Ni neure kontakizunetan zazpi probintzietako euskararen aberastasuna sartzen saiatzen naiz. Eta, jakina, hutsik gabe eta euskara errazez idazten.

Baina, jeneralean ez naiz idazleen bileretara eta bazkarietara joaten. Beti pentsatu izan dut Bilboko idazleen deietara eta gonbidatzen nautenean, emazte bat-edo izango banu, errazago joango nintzatekeela. Emakumeek goxatu egiten dute holako elkartzeetan. Lagunekin egotea, jendearekin mintzatzea, pertsonaia famatuak ezagutzea... laketa berezkoa dute. Gu baino lagun artekoagoak dira. Eta gonbit horietan ere egiten da fama. Nire erruz da hori, nire biziorik handiena denboraz baliatzea delako.

Seguru halako gauzak ez direla denbora galtze hutsa. Ez dut halakorik esan nahi, baina, esaterako, Galeuscako bilera ordaindu horiek, hiru-lau egunetakoak, nahiago ditut neure gelan lanean ematea.

#### **Aparte xamarrean, beraz.**

Ez dut harreman handiegirik idazle jendearekin, Euskal Idazleen Elkartearen sartuta egon arren. Halere, beti euskal kulturaren murgilduta ibili naizelako, idazle asko ezagutu izan dut.

Gaztetan guk jesuitok estimu handitan genuen frantziskotar talde bat: Joxe Azurmendi, Joan Mari Torrealdeai, Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi... Niretzat eredu zi-

ren, batuak ikusten nituelako. Guk, jesuitok, nor bere aldetik jotzen genuen. Talde horretakoek gero ere lan ederra egin dute euskararen eta euskal kulturaren alde.

Gipuzkoako idazleak urrutixko gelditzen zaizkigu Bilbon bizi garenoi. Bestaldetik, Bizkaian ez da hainbeste euskal idazlerik, Gipuzkoan dira gehiago.

Azken berrogei urteotan Bilbon bizi naiz eta harrez geroztik Bilbo da nire epizentroa. Eusebio Erkiaga, Mikel Zarate, Nikolas Alzola, Augustin Zubikarai... adiskide izan ditut. Gipuzkoako idazleak ere ezagutu ez ezik, beren lanak irakurtzen ditut, beraiekin harreman esturik ez izan arren.

Bizkaiko euskal kultura mugimenduen barruan bizi naiz. Hemen bada, esate baterako, *Mendebalde* izeneko talde bat, batez ere Bizkaiko euskararen alde lan handia egiten diharduena. Harreman estua dut eurekin. Iaz, esaterako, omenaldi bat egin zidaten. Hor daude sartuak Juan Luis Goikoetxea, Luis eta Pilare Baraiazarra, Patxi Uribarren, Maribi Unamuno, Idoia Alzibar, Rikardo Badiola... Bizkaiko euskal kulturaren oso ezagunak direnak.

Labayru Institutuak ere lan oso estimagarria egiten du euskal alorretan. Hor lanean ari diren asko nire ikasle izandakoak dira, *Mendebalde* taldekoak bezala. Adiskide onak gara elkarrekin.

**Beti izan zara Maverick moduko bat, beti zeure pausoa...**

Nahiko independente izan naiz, bai. Hori, neurri batean, jesuiton formazioagatik ere badela uste dut. Guk bazkaldu eta afaldu lagunekin egiten dugu, komunitatean. Bestela, nor bere gelan. Otoitza ere bai. Behin, Alemanian, Düsseldorf ondoko parrokia batean, hilabetea eman nuen jatorduak bakarrik egiten. Egonaldia bukatu eta itzulingeruka ibili gabe garbi esan nion hango parrokoari, ni ez nindoala gehiago hara. Umetatik familia handian ohituta nengoen eta gero, nobiziatutik aurrera ere bai, talde handian ginen beti. Mahaian eseri eta bakarrik bazkaltzea ez da niretzat egina.

Hortik aparte, kirol egiteko ez bada, gusturen neure gelan lanean egoten naiz ni. Eta hor bai, hor bakar-bakarrik.

### **Kritika literarioa aipatu duzu lehentxeago...**

Bestela ere, literaturan nik neure iritziak ditut eta zerbait sinesteko arrazoiak izanez gero, ez naiz kikiltzen bes-teen esanengatik. Kritika egitean, adibidez. Usu isildu egiten naiz, baina zerbait esan behar dudanean, nik ez dut inork esan duena, besterik gabe, errepikatzen. Bada kriti-kari entzutetsu bat J.M. Etxeitaren *Jaioterri maitea* eleberri errealista dela esan zuena. Ez nator bat inola ere uste ho-rrekin. Hori egia balitz, Emilio Salgariren eleberriak errea-listak direla esan beharko genuke. Eleberri errealista Euskal Herrian J.A. Irazustarekin hasi zen.

Etengabe entzuten dut Lauaxeta modernista edo sin-bolista izan zela. Hitz politikak dira, baina besterik ez. Garbi dago guztira Lauaxeta erromantikoa izan zela. Honetan ere, eleberrian bezala, oso atzeratuak ibili gara. Erromanti-zismoa aspaldi zen galdua.

Dena dela, aurten agertuko da nire liburu bat, Laua-xetari buruzkoa, eta hantxe frogatzen dut zehatz-mehatz, Laukizko seme hori, beste edozer baino lehen, erromanti-koa zela, inork hori esaten ez badu ere.

Maiz galdetu didate zergatik ez ditudan euskal elebe-riren kritikak egiten, euskal literaturaren katedraduna izani-k eta urte askoan euskal liburu klasikoen kritika egiten eman arren. Arrazoiak haxe duzu: batzuetan oso goraipa-tuak diren eleberri batzuen hutsak argi eta garbi azaldu be-harko nituzke, bai egituran, bai pertsonaietan eta bai eus-karan. Eta ez zait gustatzen inori min ematen ibiltzerik. Beraz, isildu egiten naiz. Kritikan, serioa izateko, liburu kritikatuaren alderdi onak eta hutsak esan behar dira.

**Eskertuko zenuke, baina, nolabaiteko idazle aitort-za publiko bat egitea zeuri.**

Aitortzek eta omenaldiek beti ematen digute poza. Gure lana aintzakotzat hartzea da, estimu ematea da, mai-tasun agiria da eta hori guztioi gustatzen zaigu. Elgoibarko herritar jator batzuek aurten esan zidaten ea nahiko ote nuen Elgoibarko «Seme kutuna» izendatzea. Poz handia eman zidaten. Ez naiz tituluen gose baina elgoibartaren aldetik datorren guztia niretzat txit estimagarria da.

Munduko lau hegaletan bizi izan naiz baina niretzat ez dago munduan Elgoibar bezalako herririk. Hor jaio nintzen eta hemeretzi urte arte hortxe bizi izan nintzen. Beste bi herri ere badira markatu nautenak, baina ez Elgoibarrek moduan. Azpeitiak eta Bilbok. Azpeitian sei urte eman nituen eta nire euskararentzako erabakigarriak izan ziren. Gero ere Azpeitiko baserrietan bizi izan naiz, batez ere Odriozolatxon. Baserri hori izan da nire euskararen unibertsitatea. Eta Bilbon bizi naiz aspalditik. Oso maite dut Bilbo eta Bilboko jendea. Eibartarrak bezalakoxeak dira, adiskidetsuak eta bihotz zabalak. Eta... Bilbo gero eta ederragoa da. Ezin sinets! Iñaki Azkuna alkate honek lan zinez goresgarria egin du!

Dena dela, jadanik lau omenaldi egin dizkirate. Bata Iñaki Zabaletak eta Euskal Unibertsitatekoek Durangon antolatua, unibertsitatean lan egin eta erretiroa hartuta geundenoi. Han zeuden Patxi Altuna eta Txillardegia ere. *Cámara del Libro*k, berriz, orain bost bat urte, Asier Muniategiren eskutik, Urrezko Luma eman zidan, euskararen alde egin dudana lanagatik. Iaz ere, alde batetik Deustuko Euskal Irakasleak bere sorreraren 25. urteburua ospatzean eta, bestetik, Mendebalde taldekoek egin zidatena. Guztio-kin zorretan gelditu naiz.

### **Nondik datorkizu literaturarekiko zaletasuna?**

Gure etxean, Roman anaia batez ere, oso kontu zalea zen. Hamar urteren aldea genuen. Auzoko hurrei ipuinak kontatzen zizkigun. Guk ahoa zabalik entzuten genion. Jakina, gure ume denboran ez zegoen telebistarik. *Tebeoak* (komikiak) bai, ordea. Nire etxeakoak kezkatuta egoten ziren komiki gehiegi irakurtzen nuela eta.

Gure jostundegi-denda, beheko solairuan, San Bartolome kalean zegoen eta logelak lehenengo pisuan. Askotan amari esaten nion ez nengoela oso ondo eta ohera nindoala. Gainerako neba-arrebak jostundegian lanean ari ziren bitartean, ni ohera, ihesi, komikiak irakurtzera. Komikiekin hasi eta gero eleberriei ekin nien, jo eta ke.

Urte asko igaro eta Deustuko Unibertsitatean marxismoari buruzko eskolak eman bitartean, bi nobela eta ipuin

mordoxka bat idatzi nituen. Kaxoi batean gordeak neuzkan. Hiru lan horiek hiru lehiaketara bidali nituen 1977an. Egundoko zortea izan nuen, hiruekin lehen sariak irabazi nituen eta.

### **Zein sari ziren?**

Lehena *Oroitzapenetan*. Ipuin bat zen eta Donostia Hiria irabazi zuen (1977). Bigarrenari, *Esku leunari*, Irun Hiria Saria eman zioten. Polizia eleberria duzu. *Elizondoko esku-titzak* Txomin Agirre lehiaketan irten zen irabazle. Hau ere polizia eleberrietakoa da.

Geroztik beste sari batzuk eman zizkidaten. *Lehortean*, Azkue saria, 1979. Ipuin bilduma zen. *Izurri berria*, Azkue Saria, 1981. Polizia eleberria...

**Sariak, idaztera bultzatzeko orduan, lagungarri direla esaten dute.**

Eztabaidak izan dira literatura sariak direla eta. Bai, badute alderdi onik eta txarrik ere. Askori sariak bihotza altxatu digute idazten jarraitzeko. Sari horiek irabazteak benetan bultzada bat eman zidaten aurrera begira.

Kasu batekin oroitzen naiz. Pello Salaburuk bertso batzuk erakutsi zizkidan. Nire ustez bikainak ziren. Lehiaketa batera bidali zituen. Ez zioten saririk eman. Harrez geroztik ez dut uste bertsozik idatzi duenik. Ni zeharo sinetsita nago, saria irabazi izan balu, jarraitu egingo zukeela idazten, eta egungo egunean oso goian ibiliko zela olerkigintzan.

**Fikzioa idazteko lan horrek denbora asko hartuko dizu.**

Bai, baina gustura ematen dut denbora literaturgintzan. Gogozko tokian aldaparik ez. Deustun nire eginbeharra eskolak ematea zen. Hasieran eskolak preparatzen denbora handia eman behar izaten nuen. Sarritan gauez goizeko orduak arte. Urte batzuk igaro eta eskolak nahiko ongi osatuak nituenean, literaturari ekiteko denbora gehiago gelditzen zitzaidan. Nik neure bi-

◆  
«Nik idazten  
dut gustatzen  
zaidalako eta  
bide batez  
euskarari  
laguntzen  
diodalako»  
◆



zitzan ez dut denborarik galdu. Beti edo kirol egiten edo ikasten, irakurtzen edo idazten.

**Hala ere, Marxi buruzko saiakeratik fikziora, bada salto askirik.**

Nire lehenengo obligazioa Marxismoa erakustea zen, eta, beraz, Marxismoaz idatzi nituen aurreneko liburuak. Baina beste alde batetik, zaletasun hutsez bestelakoak ere idazten nituen tarteka-marteka.

Batzuek, zergatik idazten duten galdetu, eta filosofiazko eta «oilozopiazko» erantzun sakonak ematen dituzte. Nik ez daukat horrelako filosofia sakonik eman beharrik. Nik idazten dut gustatzen zaidalako eta bide batez euskarari laguntzen diodalako. Kirola egitean bezala. Etengabe egin dut baina ez osasunagatik, gustatzen zitzaidalako baizik. Hori bai, idaztean sortzaile, kreatzaile sumatzen duzu zeure burua. Libre zara istorioak asmatzeko, pertsonaiak moldatzeko, egiturak aldatzeko. Sentimendu oso berezia eta sakona da.

**Zergatik hainbeste polizia-eleberri? Zer ekarri nahi izan duzu horrekin?**

Bost polizia eleberri idatzi ditut. Kontuan hartuta hogeita hamar liburu baino gehiago idatzi ditudala, ez dira asko ere. Baina horiexek dira nire lanetan irakurrienak. Sinensten badiogu Mari Jose Olaziregik 1995ean egin zuen inkesta bati, Atxaga eta biok ginen aldi hartan idazlerik irakurrienak.

Nik gaztetan polizia eleberri asko irakurri nuen. Hizkuntzak praktikatzeko onak ziren. Hasten zara irakurtzen eta maiz azkeneraino jakin-minez egoten zara, eleberria eskutik utzi ezinik. Innsbrucken, adibidez, alemanez piloa irakurri nuen.

Gero ikusi nuen polizia eleberria dela mundu osoan, alde handiz, gehien irakurria den eleberri mota. Gazteek, zaharrek, unibertsitateko irakasleek eta langile aruntek irakurtzen dituzte. Moskun, Indian, New Yorken... garbi ikusi dut hori.

Eleberri mota hori ongi ezagutzen nuenez gero, eta jendeak gustura irakurriko zituela gogoan harturik, idazteari ekin nion. Eta izan duten arrakasta ikusita, nahiko ondo asmatu nuela uste dut.

Azkenean polizia eleberriei buruz teoria liburu bat ere idatzi nuen: *Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria*.

Poz bat badut: Jose Antonio Loidi ezagutu izana. Loidi izan da Euskal Herrian lehendabiziko polizia eleberria idatzi zuena: *Amabost egun Ugainen*. Nire ustez ona, bukarari buruz eztabaidak izan badira ere. Euskaraz denaz bezainbatean, berriz, itzelezkoa. Donostian hitzaldi bat egin nuen polizia eleberriei buruz, Euskal Herriko botikariek antolaturik. Loidi botikaria zenez gero, hantxe agertu zen. Geroztik adiskideak izan ginen. Baditut orduko argazkiak berarekin ateratakoak.

Halere baditut beste eleberri batzuk polizia eleberri ez direnak. Literatura aldetik baliotsuagoak. Ez dira horren ezagunak, baina.

### **Nola ikusten duzu gure literatura, beste hizkuntza batzuetakoekin alderaturik?**

Kaxkarra da gure literatura beste literatura handien aldean. Kantitatez eta kalitatez.

XIV. gizaldiko Italian Dantek, Petrarca eta Boccaccio lan bikainak sortu zituzten. Shakespearek XVIgarren gizaldian literatura goi mailara jaso zuen. Gerturago joanez, Espainian 1140 inguruan entzun zitekeen *El Cantar del Mío Cid*. Hurrengo gizaldian agertu zen Hitako Artzipretea, eta XVgarren gizaldian niretzat horren atsegina eta gailur-gailurrean dagoen *La Celestina*. Hurrengo gizaldietan Espainian, bai lirikan eta bai kontakizunetan, izugarritzko loramena aurki liteke, guztien artean Cervantes gailentzen delarik.

Gure literatura hasi berria da, nolabait esateko, eta ezin liteke berdindu Europako beste nazioekin, ez eta hurririk emanik ere. Katalanen aldean ere atzeratuak gabilta.

Lehenengo euskal eleberria, erdi eleberria erdi santu-bizitza, Txomin Agirrearena da, 1898an idatzia, *Auñamendiko lorea*. Ordudanik gerra zibilera arte (1937), hamai-ka eleberri edo ipuin luze bakarrik idatzi zituzten.

1937tik 1946ra ez zen bat ere argitaratu. Eta 1955era arte sei bakarrik. Nazio aurreratuetan milaka argitaratzen ziren bitartean.

Orain arte euskaldunok ez dugu geure hizkuntza aintzakotzat hartu. Arrazari, abizenei eta horrelako huskeriei bai, baina hizkuntzari ez diogu merezi zuen estimua eman. Gure aurrekoek euskarak etxean egiteko bakarrik balio zuela uste zuten eskuarki.

Oraingo gaztediak, ordea, beste uste bat du. Euskara gizarteko egitura guztietara hedatu behar dela. Aldaketa kuantitatiboa ez, kualitatiboa gertatu da Euskal Herrian azken aldi honetan. Geure onerako.

## EGOERA BETIEREKOA

Ez da erraza izango espainolek Euskal Herriaren independentzia onartzea. Begira nola ibili diren Perejil bezalako irla txiki baten gorabeheratik.

Oraindik ere espainol batzuek sufritu egiten dute Portugalen kausaz. Felipe IV.aren denboran, Portugalek eta Kataluniak independentziaren alde egin zuten gerla. Portugesek irabazi eta katalanek galdu egin zuten. Beste aldeira izan balitz, gaurko egunean Katalunia independentea zatekeen eta Portugal Espainiaren zati bat baino ez. Nazioaren batasuna maiz gerla irabazteak ekarri du, eta ez herri-tarren borondate hutsak.

### **Guk beti galdu, ordea.**

Frankismoak errotik harrapatu ninduela esan dizut lehen. Egia da hori. ETA ren sorrera ere ezagutu nuen. Atzerrian nengoen eta hogeit hamar bidali zizkidaten. Hantxe biltzen ziren ETAREN printzipioak eta asmoak. Urte nahikotan bi joera nabarmen ziren talde armatu horren barruan: independentzia aurretik ipintzen zutenak eta borroka sozialari lehentasuna ematen ziotenak. Marxismoa indarrean zegoen urte horietan eta marxismoari jarraitzen ziotenek internazionalismora jotzen zuten. Azken kontuan, ordea, internazionalismo hori Madrilen bukatzen zen. Mario Onaindia eta beste batzuk etsenplu garbiak dira.

**Badakit zuk esana dela gerra guztiak ez direla berdinak, batzuk defentsarakoak direla...**

Dударik gabe. Espainolen *Guerra de la Independencia* eta Hitlerren gerra ez dira berdin saldu behar. Hau da, batzuetan garbi ikusten da nazio batek bestea azpiratu nahi duela. Ez da harritzekoa bigarrenek kontra egitea.

Maiz esan ohi da «Hobe bakerik txarrena, gerrarik onena baino». Esaldi hori *Cum mica salis* hartu behar da, hau da, *baina* batzuk erantsiz. Guk umetan Bernardo López García-ren *Dos de Mayo* poema ikasi behar izaten genuen. Betiko gelditu zitzaizkidan hitzok Napoleoni esanak: «y no llegó a percibir / ebrio de orgullo y poder / que no puede esclavo ser / pueblo que sabe morir». Euskal Herriarentzako ere egoki-egokiak dira hitzok.

**Begi berdinekin ikusi duzu beti ETA, ala aldatu egin da beraren inguruko analisisia eta juzkua?**

Gauza batzuetan aldatu egin dira nire usteak. Bai ETA barruan daudenenak ere. Gaurko egunean talde horretan daudenek ez dituzte gauzak ikusten orain 30 hamar urte bezala. Ez gaude Francoren garaian.

ETAren sorrera bere testuinguruan ulertu behar da. ETA sortu zenean, Euskal Herriaren egoera oso larria zen. Alderdi politiko guztiak debekatuak zeuden eta jakina, areago EAJ. ETA egoera horren kontra jaiki zen, independentziaren alde lan egiteko. Izenak berak ere hori garbi adierazten du, Euskadi Ta Askatasuna.

Nik beti uste izan dut eta orain ere bai, talde horretan daudenak euskararen eta independentziaren alde ari direla. Izan dira salbuespenak, jakina. Batzuek ez dute horrelakorik sinesten. Talde horretakoak mafiosoak eta komunista hutsek direla esaten dute. Nik inola ere ez ditut horrela ikusi. Samionandia, adibidez, ikasle izan nuen. Euskaltzale zintzoa zen eta gure herriaren askatasunaren maitasuna bihotz zolan zeukana. Ezagutu ditudan beste batzuk berdin.

◆  
«Euskal Herriko problema soziopolitiko guztia hortxe dago bildua: autodeterminazioa onartzean ala ez»

◆

Talde armatu horrek garbi esan du: Espainiak autodeterminazioa onartzen badu, guk armak utziko ditugu. Lehenago autodeterminazio hitz hori oso bakan entzuten zen. Hala ere, beti izan da garrantzizkoa. Neuk 1980an *Lenin eta nazioen autodeterminazio eskubidea* argitaratu nuen.

Dena den, nire jokabidea beti, bai politikan eta bai bestela ere, lagunekin eta kontrarioekin haxe izan da: maitasunez eta errespetuz tratatzea.

### **Panorama soziopolitiko nola ikusten duzu?**

Euskal Herriko problema soziopolitiko guztia hortxe dago bildua: autodeterminazioa onartzean ala ez. Gero eta askatasun gehiago da dibortziazeko, abortatzeko, homosexual ezkontzak egiteko, eutanasia egiteko... Emakumeak ere, zorionez, poliki-poliki munduko bazter guztietan beren eskubideak eskuratzen ari dira, ezkontzeko edo ez ezkontzeko, harekin edo honekin egoteko... Lanean ere gero eta justizia handiago egiten zaie, oraindik zapalduak egon arren... Dena onartzen dela esan liteke, autodeterminazioa ezik. Garbi-garbi egon arren, herri bakoitzak berak erabaki behar duela bere etorkizuna, ez kanpotik bortxaturik.

Autodeterminazioa ez den bitartean, Euskal Herrian istiluak izango dira. Ez da bakerik izango. Autodeterminazio gabeko bakea euskaldun askok ez dute nahi, justizia gabeko bakea izango litzatekeelako.

Bestalde, gizarteari begira, Hego Euskal Herrian oinarritzko problema bat dago. Espainiatik jende asko etorri da. Batzuk bertakotu egin dira eta gu bezain jatorrak dira. Beste batzuk, ordea, oraindik ere Espainiara begira daude eta ez dute bertakotu nahi. Hauekin jokatzeko dute alderdi espainolistek. Horien espainolismoa suspertzen saiatzen dira.

Beraz, egia da Euskal Herria zatitua dela.

**Bestalde, gure gizartea aberastu eta egonkortu egin dela dirudi. Inork ez duela nahi gaur iraultzarik. Nondik etor dakiguke konponbidea?**

Askoren ustez Hegel izan da munduko filosoforik handiena. Berak uste zuen historiaren mugimendua askatasunari lotua zihoala: gero eta askatasun gehiago iristera. Orain arte horrela izan da. Erromatarren gizartean nagu-

siak eta esklaboak zeuden. Egungo egunean ia sinestezina egiten zaigu. Indian oraindik ere gurasoek erabakitzen dute kasu askotan seme-alabak norekin ezkondu. Euskal Herrian ere bazen garai batean horrelako zerbait.

Ni erabat sinetsirik nago gizaldi batzuen buruan zail egingo zaiela sinestea Europako nazio batzuetan herri batzuek libre izan nahi zutela eta ez zietela uzten. Libertatea gero eta handiago izan behar da eta izango da.

### **Iparraldea eta Nafarroa, zer?**

Nafarroan eta Iparraldean euskarari eusten badiote, gurekin ibiliko dira. Euskarak eta euskal kulturak elkartu behar gaitu. Nik kulturari sinetsmen handia ematen diot. Zenbat eta kultura handiago izan, garbiago ikusten duzu euskarak eta gure kulturak zenbat balio duten.

Gure arbasoek ez zuten euskara aintzakotzat hartzen, beraren balioa ezagutzen ez zutelako. Nik ikusi izan dut baserri batzuetan, aspaldiko kutxa zoragarriak, zaharrak zirela eta, errekarra botatzen edo ijitoei merke baino merkeago saltzen.

Gaurko egunean ez dute horrelako astakeriarik egiten, kutxa horien balioa ezagutzen dutelako. Euskal kontzientzia ezagutzatik sortzen da. Esaera zaharra da, ezagutzen ez dena ez dela maitatzen.

### **Etorkin berrien auzia ere hortxe da. Nola babestu gure kultura eta notasuna.**

Problema latza da etorkinena. Besoak zabalik hartu behar ditugu, baina geure nortasunari uko egin gabe. Guk, independente bagina, etorkinei erraztasun gehiago emanago genieke gure hizkuntza eta kultura ezagut dezaten. Orain besomotz gabiltza.

Etorkinetan gogorrenak latinoak dira. «España, la Madre Patria» esan, eta zail egiten zaie Espainiako Estatuan lau hizkuntza daudela onartzea. Dena dela, beraiek ez dira errudun, inola ere. Etorkinak beharrezko hizkuntza ikasten du eta Euskal Herrian beharrezko hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira.

### **Zer irizten diezu gure politikariei?**

Ezin guztiak zaku berean sartu. Alderdi batzuetan abertzale gehiago daude, besteetan baino.

Euskal nazionalista batzuentzat dirua, karguak eta boterea dira lehenengo kontua, nazionalista kolorea hartzen badute ere. Beste politikari batzuek, berriz, euskararen eta independentziaren alde zintzo jokatzeko dute, askotan beren askatasuna eta osasuna arriskutan ezarriz. Txalogarriak dira, benetan.

### **Globalizazioaren garaian, merezi du norberarenagatik hainbeste neke bizitzea?**

Bai, dudarik gabe. Guk geure nortasuna atxiki behar dugu, geure izateari eutsi. Hori beti izango da mundu honetako baliorik handienetako bat.

Gauza bat esango dizut. New Yorken batez ere, etsipenak jota eta depresioarekin dabilen jende askorekin izaten dut tratua, aholku eske gure *Counseling Center*era etortzen direlako.

Depresioa alderdi askotatik etor liteke. Nire ustez, bizitzan ilusiorik ez edukitzetik batez ere. Baserritarrek oso ederki deitzen diote «bizi-poza» bizitzeko ilusio horri. Hori ez daukana, jota dago.

Nik gauza bat garbi eta argi ikusi dut Euskal Herrian. Euskararen alde eta Euskal Herriaren independentziaren alde ari direnek ez dutela depresiorik izaten. Ehunka kasutan ikusi dut hori. Badute *bizi-poza*. Mundu honetan badutela eginkizun bat ikusten dute eta horrek uraren gainean edukitzen ditu, etsipenaren barruan sartuta ito gabe.

### **Zein ote da gure herriaren lekua munduan?**

Konparazioekin kontuz ibili behar da, baina Euskal Herria arbola eder eta berezi bat dela esango nuke. Zer irabazten du munduak zuhaitz mota bat galduz?

Gure hizkuntza zaharrena ez bada, Europako zaharretako bat da. Eta dudarik gabe oso berezia. Gure kulturak zenbait alderditatik aberastu egiten du munduko kultura.

Munduak gure hizkuntza eta kultura onetsi dezan, gu izan behar gara lehenak geure kultura ederresten eta goratzen. Adibidez, hogeitau euskaldunen artean erdaldu bat badago eta erdaraz egiten badugu horrekin garbi erakusten

dugu geure hizkuntza hutsaren hurrengotzat daukagula, koldarrak eta euliak garela eta espainol edo frantsesen menpekoak garela. Inork zu ohoretan edukitzeko, lehen-dabizi zeuk zeure burua ohoretan eduki behar duzu.

Bestaldetik hauxe erantsi behar dut. Ez dut ezagutu euskaldun bat gaztelaniari edo frantsesari gorrotoa dionik. Euskal Herrian bizi diren ehunka eta ehunka espainolek, o rdea, euskarari gorroto bizia diotela ikusi dut. Eta hau frai-de eta mojen artean ere bai. Asko, gainera. Eta gorrotoak, kasu askotan, eztabaida, aharra eta gerla sortzen ditu. Bat-zuek Euskal Herriko indarkeria eta biolentzia euskal talde armatuari leporatu nahi dizkiote, iturria beste toki batean dagoela ezkututzen dutela: espainolek eta frantsesek Euskal Herria<sup>ren</sup> independentziari eta euskarari dioten gorrotoan.

### **Eta mundu honetarako zeure lekua?**

Nire lekua apala da. Jesukristok egiten zuen bezala maitasunez eta egiaz hartu jendea, guztiei lagundu, ahal dudan neurrian, eta hil arte euskararen alde lan egin.

Marxismoari buruz idazten hasi nintzenean, askok esan zidaten erdaraz idazteko, askoz famatuago izango nintzela. Inola ere ez. Ni euskalduna naiz eta ez dut neure euskalduntasuna diruagatik edo izenarengatik salduko. Li-buru bat bakarrik idatzi dut gaztelaniaz, neure doktore te-sia, Madrilgo Complutense unibertsitatean defendatu be-har nuelako. Ez zegoen beste erremediorik. Ez naiz sekula ibili «Norat haize, harat aise», Iparraldean esaten duten be-zala. Jainkoarekin batera, euskara izan da beti nire bizi-po-za. ¶



## GOTZON GARATEREN ARGITALPENAK

### MARXISMOA

- Marxen marxismoa*, Mensajero, Bilbo, 1971.  
*Marx eta nazioa*, Mensajero, Bilbo, 1972.  
*Marx y los nacionalismos separatistas*, San Miguel, Bilbo, 1974.  
*Marxen ondoko errebisionismoa*, Mensajero, Bilbo, 1974.  
*Maoren marxismoa: maoismoa*, Mensajero, Bilbo, 1977.  
*Leninen marxismoa: leninismoa*, Mensajero, Bilbo, 1983.  
*Lenin eta nazioen autodeterminazio eskubidea*, Mensajero, Bilbo, 1980.

### LITERATURA

- BARRE ERAGITEKO IPUINAK

*Nafarroako Ezkurran*, Mensajero, Bilbo, 1982.

- GIZARTE-IPUINAK

*Oroitzapenetan*, Donostia Hiria Saria, 1977.

*Lehortean*, Azkue Saria, Mensajero, Bilbo, 1979.

*New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk*, Elea, Bilbo, 2004.

- POLIZIA ELEBERRIAK

*Esku leuna*, Irun Hiria Saria, Elkar, Donostia, 1977.

*Elizondoko eskutitzak*, Txomin Agirre Saria, Mensajero, Bilbo, 1977.

*Goizuetako ezkongaiak*, Elkar, Donostia, 1979.

*Izurri berria*, Azkue Saria, Elkar, Donostia, 1981.

*Alaba*, Elkar, Donostia, 1984.

- GIZARTE ELEBERRIAK

*Muskillak*, Mensajero, Bilbo, 1980.

*Hadesen erresumarantz*, Elkar, Donostia, 1983.

*Zilarrezko gazteluaren kronika urratua*, Mensajero, Bilbo, 1992.

- ERREPORTAIK

*New York, New York*, Elkar, Donostia, 1988.

*India harrigarria*, Elkar, Donostia, 2001.

*Zakurra, zeure laguna*, Elkar, Donostia, 2002.

• LITERATURA KRITIKA

*Euskal eleberrien kondaira I*, Mensajero, Bilbo, 1983.

*Euskal eleberrien kondaira II*, Mensajero, Bilbo, 1985.

*Euskal eleberrien kondaira III*, Mensajero, Bilbo, 1991.

*Atzenko eta Euskal Herriko polizia eleberria*, Elkarlanean, Donostia, 2000.

• HIZKUNTZALARITZA


*Erdarakadak*, Mensajero, Bilbo, 1988.

*27.173. Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbial*, BBK, Bilbo, 1998.

*Euskarazko tradizioa eta molde berriak*, Mensajero, Bilbo, 2003.

*Egunen*

*gurpilean*



*literatura • 111*

Jardun hilak

- Izena eta izenik gabeak
- Sortzaileak, idazkariak eta «pitzatuak»

JON BENITO



*soziolinguistika • 116*

III. Mapa Soziolinguistikoa

PABLO SUBERBIOLA



*telepolis • 121*

Erakutsiguzu bidea, Isabel

- *Wazemank*
- Gatza eta piperra. ETB1, oraina eta geroa
- Cat eta punto

PATXI GAZTELUMENDI



## Jardun hilak

**N**orena da liburua: egilearena ala argitaratzailearena? Noiz arte da egilearena, izatekotan? Noiz arte balio dute idatzitakoek? Liburuek badute materialki iraungitze data-rik? Eta argumentuak, egilearen errekurtoek, landutako gaiak? Modu berean irakur daiteke liburu bat kaleratu eta astebetara, kaleratu eta bost urtetara, edo mende bat geroago? Kontestuak, denborak ez dute zer esanik horretan guztian?

Zergatik? Edo zergatik ez?

Liburuak kaleratu ondoren zuzendu al daitezke? Eta inoiz egilea damutzen bada zer? Nola begiratzen diete, zer esaten diete Andu Lertxundiri *Hunik arrats artean* edota *Ajea du Urturik* liburuek? Eta Koldo Izagirreri *Zergatik bai* eta *Itsaso ahantziak*? Eta egileak behin beltzean jarri, eta urtetara idatzitakoaz duen iritzia aldatzen badu? Liburu batean agertzen diren iritziak egilearenak dira ala egilea ez da liburuan ager daitezkeen —eta agertzen diren— iritzien erantzule? Iritzi horien jabe izan behar du gaur eta beti egileak? Betirako da momentu batean idatzitakoaren jabetza intelektuala? Eta iritziz aldatzen badu, zama bat bezala eraman behar du behin idatzitakoa? Ez dago absolutiorik?

Eta egileak iritzi horien bidez fikzioa egin nahi badu? Eta eztabaida sortu nahi badu bakarrik? Eta probokatu nahi badu? Eta irakurleak ez badio ironiaren amuari kosk egiten? Egileak ez badu azaldu nahi duena azaltzerik lortzen liburu horretan?

Zer demontre gertatzen da liburuekin orduan? Letra hilkutxa hutsak dira liburuak? Entretenitzeko pilatutako hitzen presondegiak dira?

Galdera horiek eta gehiago etorri zaizkit Iñaki Seguraren *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo* (Alberdania, 2005) liburua irakurtzen ari nintzela.

Interesgama da nola deskribatzen duen Iñaki Seguro-lak bere liburu atariko ate abisutik. Hona lehen puntua dena: «Zurian beltza jarri ezkerro, han gelditzen da. (Esaera da)». Hori badaki Seguro-lak, eta jakinaren gainean idazten du. Badaki zer ondorio dituen hitzak paperean hilobira-tzeak. Ez direla joaten, han geratzen direla aingura bat be-zala, iltze bat bezala. Hari jarraiki Seguro-lak: «Zuriaren gai-neko letra beltza jardun hila da». Beraz, kalaka hutsa da li-burukoa, ondoren ikusiko dugun legez. Hirugarren puntu gisa: «Gutako inor ez da jardun hilaren hiltze horren erru-duna». Liburuetako jarduna hila da, hitzaren norabidea bakarra delako, hitza preso geratzen delako, betirako, zu-riaren gainean, zuzentzeko, aldatzeko, urte batzuk geroa-go, liburu berean berridazteko aukerarik gabe, honen be-rra argitalpenean edo beste liburu batean ez bada.

Hemen goiko galdera batzuei erantzuten die Seguro-lak berak *Ostiel!* (38. zenbakia, 2005eko uda) aldizkariari emandako elkarrizketan. Gorka Setien ari zaio galdezka:

Galdera: Zertaz erditu zara?

Iñaki Seguro-lak: Ufaa! Ume batez, hildako ume batez. Li-buruaren eta umearen konparazioa beti hor zegok. Hik, hezur-haragizko ume bat ekartzen baduk mundu honeta-rra, hori bizirik zegok. Nik eduki dudan sentsazioa hau egin eta gero duk: hor zegok eta hilda zegok. Niretzat bu-katu duk eta sentsazio arraro bat eduki dut. Lotsa ere bai. Aurkezpenean esan nuen, lotsa zuria. Lotsa gorria baldin bada, aurpegian odol guztia juntatzen zaizula, aurpegia gorritu egiten zaik. Aldiz, nire aurpegia zurbilduta bezala ikusten nian. Ez nauk oroitzen, ez diat sinisten. Hire izen bat eta hor gauza mordo bat geldik, jada geldik, behin betikotasun, sakratasun bat... naturala ez den puntu bat ematen zio. Naturala duk hizketa, normalean elkarrizke-ta duk naturala eta pentsamendua hori duk, korala, dia-lektikoa eta bizia, anizkorra, aldakorra eta bai baina ez eta ez baina bai. Hire izenak errebindikatzen dituen hitz eta esaldi mordo bat, hola eta beti hola, halaxe duk behin be-tiko... hori duk... baina ez zeukak erremediorik...

Segurdak erabiltzen dituen hitzak eta kontzeptuak in-teresatzen zaizkit: betikotasuna, *sakratasuna*, hitzak geldik daude... Liburu hila jaio da. Eta galdera dator berriz:

inoiz ba al daude liburuak bizirik? Zer esan nahi dugu liburu bat bizirik dagoela esaten dugunean? Prentsan agertzen direnean, asko saltzen direla esaten zaigunean? Nola daki-gu bestela bizirik daudela? Fedez? Egileak berak dioelako?

Otu zait, egileek izan beharko luketela klausularen bat, hamar urtera edo, denbora batera damutzen diren liburu, esaldi, poemez desjabetzeko, alargun uzteko guraso intelektualik gabe, ideia galduen munduan. Amnesiare n itun bat beste idazleekin, irakurleekin, editoreekin liburu bat bazter dezaten, desager dadin jendearen memoriatik.

Esango zait ezinezkoa edo zaila dela. Baina zailagoa zirudien Espainiako trantsizioak, eta lortu zuten gehienen jukutriak zuritzea isiltasun itunaren bidez.

Lot nakion gaiari, jarrai dezadan *Ostiela!*ri emandako elkarrizketarekin. Seguroa mintzo da:

I.S.: Pertsonak zeuzkak fazeta bat baino gehiago. Lagunekin, jendearekin, tabernan, ohean, etxean, kalean gauzak esaten dituk eta elkarrizketa batzuk zeudek, bazegok hizketa modu bat, diferentea. Hik, bakarka botatzen ditukenean gauza diferente bat duk, zaila esplikatzeko borondatearekin botatzen dituketak eta hori duk hizketa sakralizatu bat bezala.

Liburuak, bere sorreran sakratua duk, hitz gatzatuak, ritual moduan hor gelditzen direnak. Horren ondorioa zein da? Ba norbaitek galdetzea: hik benetan hau pentsatzen duk? Emakumeari buruz pentsatzen dukena, hau duk benetan hiretzat bizitza, euskara, jainkoa, erlijioa? Eta erantzuna: nik benetan ehuneko ehun pentsatzen dut ez zekiat zertaz? Ufa! Igual gauza batzutan hau da formulazioa eta konbentzitzen natxik baina ez duk hori. Momentu horretako burutazioa duk eta puntu. Ez, hori ere ez duk baina ez da definitiboki nik hontaz pentsatzen dudana eta askotan, idatzi duk, esan duk edo bota duk ez hire ehuneko ehunak, hire osotasunak, pertsona moztu koherente osoak benetan ehuneko ehuneko hori pentsatzen duelako baizik eta hiri momentu hortan ahots bat, esateko modu bat interesantea iruditzen zaielako hor egotea edo botatzea...

Liburuko hizketa sakralizatutzat du Seguroak, «ritual moduan geratzen dira». Ez du ehuneko ehuneko diogen ho-

ri defendatzen. Baina orduan norena da iritzi hori? Beste norbaitena? Edo ez da iritzi bat? Fikzioa da? Zer da?

Liburuan gustatu zitzaidan txikieria bat orain, horri loturik. Hedabideetan kaleratutako artikulu bilduma bat ere bada *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo* liburua. Baina Seguroiak berak, bi artikulutan gutxienez, onartzen du «damutzeraino iritsi gabe ere, ez nukeela gaur holakorik idatziko» (75. orria) edota «Duda franko ibili ondoren deliberatu naiz hemen berriro ateratzera, nahiz horko zenbait esan-moduk ez nauten orain batere atsegin-kontentuz betetzen» (81. orria).

Ez dudana ongiegi ulertzen da, zer arazorengatik biltzen dituen orain, urte batzuk geroago, liburuan artikuluo Seguroiak, ez badute betetzen. Argudio bezala edo, balioko du agian, aurkezpenean lagun izan zuen Juan Luis Zabalaren adierazpen honek: «liburu bat idazteko gogorik ez duen baten liburua da hau». Arreta deitu dit Seguroiaren keinuak, besterik ez.

Honekin bukatzeko, Seguroiaren liburua beste liburuetatik ezberdintzen duena, ukazioa eta kontraesana legetzat hartzea, kontrabidea zuzentzat hartzea da. Horrengatik goiko eztabaida guztia.

## Izena eta izenik gabeak

Kulturaren munduan edo egin beharko litzatekeen iraultza edo... egiten diren gauzak izenik gabe egitea da. (...) Gauzak, izen oso batek errebendikatzen dituen momentutik, horrela dira, eta kasu estremoan arte mundua da. Artean zer saltzen da? Izena, arte handi milamiloidunetan.

Luther Blisset edo Wu Ming kolektiboak etorri zaizkit gogora. Egile ezberdinek izen berbera erabiltzen zuten sinatzeko. Sinadurak, izenak, ez zuen garrantzirik. Kontatu nahi zenak, mezuak, balio zuen.

Baina otu zait, ere, ia inork ez dituela gaur egun bere lanak izengoitiz sinatzen testu lotsagarriren bat argitaratzeko edo irainen bat esateko ez bada. Zeren, zein aterako da bestela egunkarietako argazkietan edo telebistan?

## **Sortzaileak, idazkariak eta «pitzatuak»**

**I**nteresgarria ere, Iñaki Seguiolak aurkezpenean esandakoak:

pentsatzea pertsona baten kolkotik 300 orrialde betetzeko ez dakit zenbat gauza asmatzen direla tranpa handi bat da. Ideia eta, oro har, gauza oro, sortu baino, etorri egiten direla uste dut. Gero, norbera, teknika pixka bat badauka, horien idazkari bihurtzen da.

Idazkari, «apuntatzaile»tzat du bere burua Seguiolak, ez sortzailetzat.

Halere, idazkariak, «apuntatzaileak pitzatuta egon behar du. Bat oso ondo egina badago eta itxia edo biribila bada, ez zaiolako ezer atera, sortu edo etorriko».

Adierazgarria liburuaren aurkezpenaren karietara *Berriaren* (2005-04-23) artikuluko titularra: «Pitzadurak ondutako egilea».¶





### III. Mapa Soziolinguistikoa

Uda aurretik aukera izan genuen III. Mapa Soziolinguistikoa lanaren emaitzak eta azalpenak ezagutzeko. Bost urtez behingo Inkesta Soziolinguistikoa Euskal Herri osorako egiten bada ere, Mapa Soziolinguistikoa EAerako egiten da soilik, Jaurlaritzako Kultura Sailak Eustat-ekin elkarlanean argitaratzen baitu lan hau. Horrek, noski, datuen interesa eta bilakaera soziolinguistikoari buruz ematen digun ikuspegia nabarmen mugatzen ditu, baina hala ere bada tartean hainbat datu interesgarri.

Irakas ereduen egungo egoerari eta bilakaerari buruzko grafiko eta datu ugari ditugu bertan, EAE osorako eta lurraldeka. 20 urtetan ereduen euskalduntze nabarmen bat eman da EAEn, batez ere 16 urtera bitarteko irakas-kuntzan. Bi datu ematearren, Lehen Hezkuntzan, 83-84 ika sturtean EAEko ikasleen % 80 inguruk A ereduari ikasten zuen, eta 20 urte beranduago % 20 baino gutxiago dira. Lehen Hezkuntza D ereduari ikasten dutenak, berriz, 83-84an % 15-20 izatetik 02-03an % 50 pasatxo izatera pasatu dira (B ereduari ikasten dutenak % 25 inguru dira azken 10 urteetan).

Lehen Hezkuntzari dagokionez, beraz, D ereduaren aldeko bilakaera nabarmen bat eman da EAEn. Kontuan hartzekoa da, askotan horrelako bilakaera bat aztertzean zenbakien hoztasunetik egiten badugu ere, kopuruetan bilakaera hau eman ahal izateko, gurasoen erabakiez gain, beharrezkoa izan dela hezkuntza komunitate osoaren ahalegin eta eraldatze prozesu garrantzitsu bat, eta izen-abizen konkretu askoren eta askoren ahaleginari esker eman ahal izan dela bilakaera hau. Legearen babesa eta hainbat baliabide ere izan dira tartean bilakaera hau

---

► **Pablo Suberbiola** Soziolinguistika Klusterreko teknikaria da.

eman ahal izateko, baina bere balioa eman behar zaio praktikan jada lortu denari, guztiok baitakigu planak egi-tearekin edo legeak onartzearekin ez dela beti nahikoa izaten prozesu konplexuak aurrera ateratzeko (adibiderik ez da falta).

Bilakaera honi garrantzia ematearekin batera, ordea, ezin dugu ahaztu bilakaera hau Haur eta Lehen Hezkuntzan eman dela batik bat orain arte. DBHn, Batxilergoan eta batez ere Lanbide Heziketan bilakaera eta egoera oso bestelakoak dira.

DBHren kasuan (12 eta 16 urte bitartean), 02-03 ikasturtean % 30 pasatxo A ereduan aritu dira ikasten EAEn, eta Batxilergokoen artean, berriz, ikasleen erdia baino gehiago (% 55 pasatxo). Eta Lanbide Heziketaren kasuan gaztelaniazko irakaskuntza erabat nagusi da: 02-03 ikasturtean EAeko ikasleen % 83 A ereduan aritu zen. Alde horretatik, Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak eta beste hainbat eragilek azken urteotan adierazi duten bezala, EAeko irakaskuntza mailan urrun gaude oraindik legeak ezartzen duen helburutik, hau da, oinarrizko hezkuntzaren amaieran EAeko haur guztiek bi hizkuntzetan gaitasun nahikoa izatetik.

Hizkuntza Gaitasunari dagokionean ere, azken 20 urteotako bilakaeraren berri ematen dute datuek, Zentsuko datuetatik abiatuta. Adin-taldekako grafikoetan (25. irudia, *III. Mapa Soziolinguistikoa* argitalpenean) argi ikus daiteke EAeko biztanlegoan zenbat eta belaunaldi gazteagoak izan, euskararen ezagutza altuagoa dela: adibidez, 2001ean 40-44 urte bitarteko EAeko biztanleen artean % 60 inguru erdaldun elebakarra zen, 15-19koen artean, aldiz, % 20 baino gutxiago dira erdaldunak. Baina noski, «zenbat» euskaldun garen aztertzeaz gain, «nolakoak» diren ere aztertu behar da, euskalduntze prozesu honetan euskaldun kopurua ezagutzea bezain garrantzitsua edo gehiago izango baita datozen urteetan euskaldun horiek nolako erraztasun erlatiboa edota nolako erabilera aukerak eta ohiturak dituzten jakitea.

Zentzu horretan, interesgarria da argitalpen honetan «BILA» eta «ERABIL» indizeek eskaintzen diguten infor-

mazioa. Lehenaren kasuan, hiztunek aitortutako lehen hizkuntza gurutzatu da bere egungo gaitasunarekin eta horrela euskaldun tipologia bakoitzaren ehunekoak eskaintzen dira: «euskaldun zaharrak», «jatorrizko elebidunak», «euskaldun berriak»...

Argitalpeneko 50. irudiak, hain zuzen ere, 2001. urteko BILA indizearen EAEko datuak eskaintzen dizkigu, adin-taldeka bereiztuta. Datu horiek oso adierazgarriak dira. «Euskaldun zaharrak» eta «jatorrizko elebidunak» haziz joan dira gazteenen artean, neurri txikian; askoz neurri handiagoan hazi dira «euskaldun berriak» (euskara etxean jaso ez duten euskaldunak). Horrela, «nolako» euskaldunak diren aztertzen hasita, ikusten dugu 24 urte-tik beherako euskaldunen artean, adin-talde guztietan «euskaldun berriak» tipologiako euskaldunak «euskaldun zaharrak» eta «jatorrizko elebidunak» batuta adina edo gehiago direla. Datozen urteetan EAEn euskararen erabilerak ezagutuko duen bilakaera ulertzeko oinarritzko datuak dira. Izan ere, Pello Jauregi ikerlariak 2001ean gazteen artean eginiko ikerketa baten ondorioetan adierazten digunez:

Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalean batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura. (Pello Jauregi, 2003, *Gazteak eta euskara Lasarte-Oriain (II)*, Lasarte-Oriako Udala)

Zentzu honetan, Mapa Soziolinguistikoan ERABIL indizeak ere oso informazio adierazgarria eskaintzen digu. Kasu honetan, BILA indizean sorturiko euskaldun tipologiak gurutzatzen dira hiztunek zentsuan aitortutako erabilera ohiturekin, eta, horrela, tipologia bakoitzeko euskaldunak hirutan banatzen dira: «euskaraz aktiboak» direnak, «euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak» direnak eta «euskaraz pasiboak» direnak. Argitalpeneko 63. irudiko datuak azpiko taula honetara ekarri dizkizuegu:

<i>Hiztun mota</i>	EAEko biztazleen %	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Euskaraz pasiboak
Euskaldun zaharrak	% 18,5	% 12,9	% 3,8	% 1,8
Jatorrizko elebidunak	% 2,9	% 0,2	% 1,8	% 0,9
Euskaldun berriak	% 10,8	% 0,4	% 1,3	% 9,1
Partzialki euskaldun berriak	% 16,6	-	% 0,8	% 15,8
Partzialki euskaldunduak	% 1,6	-	% 0,6	% 1
Gutziz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak	% 49,6	-	-	-


Nolabait laburtzearen, datuon arabera esango genuke euskara etxean (ere) jaso duten euskaldun gehien-gehienak gerora hiztun aktiboak direla euskaraz (edo bietan). Aldiz, euskara eskola (edo euskaltegi) bidez soilik jaso duten euskaldunetatik 10etik 8-9 euskaraz hiztun pasiboak dira gaur egun (2001).

Azken hogeitau urteotako bilakaera ikusirik, beraz, EAEko biztanlegoaren euskalduntzean aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina belaunaldi gazteetan euskaldun direnetako asko «hiztun pasiboak» dira euskaraz, eta ondorengo urteetan erabilera-aukera ugari eta desberdinak beharko dituzte euskaraz «aktibo» bihurtu ahal izateko. Horretarako hainbat elementu berri beharko dira, esaterako, aisialdirako eta kultur kontsumoan euskarazko eskaintza erakargarriak (gutxienez gaztelaniazkoak bezain erakargarriak), lanean euskara erabiltzeko aukera berriak, etab.

Eta, aldagai horiekin eta beste batzuekin batera, «euskaldun zaharren» edo euskaraz aktibo diren euskaldunen hizkuntza jokaerak ere eragin handia izango du erabilera-aren bilakaeran. Horretarako aukerak ematen diren egoera, harreman-sare eta testuingurutan, euskaldun «aktibo» eta «pasiboen» arteko dinamika berriak sortzeak aukera berriak zabalduko lituzke norabide horretan. Datuek adierazten dutenez, belaunaldi berrietan «euskaldun zaharrek» gero eta gehiago izango dituzte inguruan oinarritzko gaitasun bat baduten «euskaldun berriak», baina nagusiki pasiboak direnak. Talde batetik besterako «elikatzea» eman ahal izateko sozialki bi taldeen hizkuntz jokaerak eta ohiturak aldatuz joan beharko dute, edo hori erraztuko duten

egoerak sortu beharko dira. Gainerakoan, Jauregik dioen bezala, estatistiketan euskaldun kopuruak gora egin arren, «erabileran ez da aurrerapen nabarmenik emango».

Jokaerak aldatzeari begira, eta bukatzeko, lanerako proposamen interesgarri bat izan daiteke Valentziako Unibertsitateko psikologo talde bat lantzen hasi dena, eta SL Klusterrean orain hilabete batzuk ezagutu genuena. *El despertar dels Països Catalans* (2004, Bartzelona, La Busca) liburuan jaso dator eta Ferran Suay eta Gemma Sanginés irakasleek garatu dute (internetez ere baduzue gaiari buruzko egileen artikulua bat, [www.telp.lateneu.org/helbi-dean](http://www.telp.lateneu.org/helbi-dean)). Norberak bere eguneroko harremanetan katalana (edo gure kasuan, euskara) gehiago erabiltzen lagunduko dioten psikologiako oinarri eta teknika batzuk azaltzen dituzte, gero norberak, noski, bere eguneroko egoera eta aukeretara moldatu beharrekoak. ¶



## Erakutsiguzu bidea, Isabel

Pantailara begira gaude, nahiz eta orriak ditugun eskuartean. Pantailaren belaunaldikoak gara; handia, txikia, erraldoia, plasma, palm, monitorea...

Albo batean utzi ditugu, hormak, koloreak, kalea eta papera. Apurka-apurka. Pantailaren garaian bizi garen honetan, pantaileri buruz ere berba egin beharko dugu Telepolis saio honetan. Informazioaren Gizartea eta Euskal Herria hartzen ditugu hizpide, eta horregatik lantzean behin TB, Zinema, Ikus-entzunezko ekoizpenak ere ekarri beharko genituzke txoko honetara.

Ez gara eztabaidatzen hasiko euskal zinema zer den, non kokatu *Obaba*, eta non *Aupa Etxebeste!* Ez dugu galdetuko ea zergatik Zinemaldian Martxelo Otamendik ez duen inori saririk emateko betarik izan. Ez da zentsuragatik izan, baizik eta patxadazko film laburrik ez delako egon. Film luzeetan ari gara une honetan. Errodatzen gaude, beraz isiltasuna. Egia da zein gutxi berba egiten dugun ekoizpenaz, eta zenbat produktua. Zelan gustatzen zaigun Donostiako glamourra, eta zeinen gutxi kable arteko kezka, buruhauste eta gogoeta.

Pantaila handiari so egin, eta nolabaiteko normaltasunean murgildu behar dugula dirudi, baina fikzioan ari gara, fikzio gordinean. *Off-eko maitasuna* urruti geratu da, eta maitasun *on* bat falta dugu oraindik. Hamaikagarren artea da oraindik euskarazko zinema Euskal Herrian. Teknologia berriak baliatzen ditugu, baina ekoizpenak aurrera eramateko modu digitalean, sarearen bitartekoak ez ditugu baliatzen. Saia zaitezte *Aupa Etxebeste* Interneten bilatzen. Egin froga.

Isiltasuna, otoi, grabatzen ari gara. Eta datorren urterako beste ekoizpen bat. Telebistan eta pantaila erraldoian, *Kutsidazu bidea, Isabel*, behinolako Joxean Sagastizabalen enegarren bertsioa. Liburutik CD-ROMera, antzo-

kietan, Euskal Telebistan, DVDan eta orain telesaila eta filma. Kutsidazu eredua da, arrakastaren giltza, Isabel. Erakutsidazu.

Eta bitartean ez dago besterik. Arrakasta ziurtatu behar dute ekoizpen berriek, arrakasta soilik, eta arastaka goaz Isabel guztien atzetik. Noraezean, eta hola Obaban amaitzen dugu. Hori bai, Bernardo Atxagak gainbegiratu-tako euskarazko bertsio bikoiztuarekin. Hori bai. Kutsidazue, nola izan munduko, Madrilgo eta Obabako aldi berean. Isabel, euskaldun gura dugu izan, eta zelan egiten da hori?

### **Wazemank**

gomitatuko zaitu aktore gipuzkoarrak. Irri egiteko beta hartuko duzu. Eta irri egingo duzu, baserritarez, Agirre eta Arregi guztiez, euskalduntasunaren kronika, Telebistako izarren kontura, eta abar. Beharra genuen, eta horregatik barrezka hasi gara. Izan ere, arratsaldetan trapezistak ikusi, udako goizetan San Sebastian danborrada ren errepikapenak, inoiz amaitzen ez diren trikiti eta dantza suelto lehiaketak, Betizu amaigabeak... Off-eko maitasuna egiten dugu orduan. Telebista itzali eta ohera goaz. Gure pelikulak.

Eta biharamunean pentsatzen hasten zara zer nahiago duzun, Alkain bat edo Landa bat. Klaudio Landa «ETBko animalia telebisiboa» zela entzun nion behin Amatiñori. Eta horrelako piztiak ez ditugu maite, argi dago. Ez gara *txatxi*. Ez gara deus. *Euskal moment* honetan, beste zerbaiten bila ari gara. Gu ere. Eta ekoizpen propioekin —kirola eta informatiboak salbu— zer daukagu ikusteko? A bai! *Goenkale*. Ez da oraindik amaitu.

Beraz, Alkainen eredu horri lotu beharko gatzaizkio. Ez da besterik. Azken finean, *Wazemank* eta *Kutsidazu* aurpegi berdinak dira, umore berdina, eredu bera... arrakasta. Beraz, ekuazioak bere emaitza ematen du. Ados. Hurrengoan, ETB dos.

## Gatza eta piperra. ETB1, oraina eta geroa

**E**ta iragarki bat agertzen zaizu, iragarkitik gutxi duena. Juan Palomo eredia gailentzen da berriz ere —yo me lo guiso, yo me lo como— eta zeinen onak garen, zeinen jatorrak, abegikorrak, trikitizale kantuzale parrandazale eta euskaldun. Zeinen ondo hartzen ditugun kanpokoak, kamioiak ekarritakoak, belarrimotz eta besoluzeak. Gu gara gatza eta piperra. Biba gu.

Eta gatza eta piperra uda honetan *Berria* egunkariak sustatutako eztabaidak jarri du, puntu honi dagokionean. «ETB1, oraina eta geroa» goiburuarekin artikulu sorta bat argitaratu zuen euskarazko egunkariak, euskarazko telebista baten egungo oinarriak finkatze aldera. Oso artikulu interesgarriak irakurri genituen orduan, inprimatzeko bertsioa dago orain hemerrotekaren bertsio elektronikoan. Eta interesgarriak dira Josu Amezaga, Telmo Esnal, Edorta Arana, Anjel Lertxundi, Allande Boutin eta Bingen Zupiriaren artikuluak. Azken honek ondo laburbiltzen du bere izenburuan: Inor ez da konforme ETB1ekin. Arrazoi du, gero eta gutxiago gara, izan ere, ETB1 ikusten dugun euskaldunok. Eta horrek zer pentsatua eman beharko liguke. Aldiz, gero eta gehiago dira, egoerak askorik laguntzen ez badu ere, euskarazko bestelako ekoizpenak jasotzen dituztenak (egunkari nazionala, herrietako aldizkariak, herrietako egunkari berriak, irratigintza —Hego zein Ipar Euskal Herrian—, Interneteko gunek), baina behera goaz telebistari dagokionez. Zer pentsatua badugu. Andaluziarren arreta piztu baino, euskaldunak zelan kontent eduki izan beharko luke gure kezka, gure buruhaustea. Programazio eraginkorra, programazio interesgarria, ikus-entzulea bezala sortzailea ere pozik izango duen programazioa, antolaketa eta eredia behar du ETB1ek. Horrek behar luke gatza eta piperra. Eta sua gehiegi piztu barik. Apurka-apurka. Eredu berriei aukera emanaz, orain artekoak gainbehera dakarrelako. Baina eztabaida beharbada beste foro, mahai eta gunetean antolatu beharko dugu. Gizartearen parte-hartzea garrantzitsua litzateke alor honetan ere. Eta ez dut uste nik, lau urtean behin bozkatzeko aukera




izan eta gero, bestelako parte-hartze ereduak martxan jarriko direnik, momentuz behinik behin.

## Cat eta punto

Eta halako batean, berriz ere, telebista amatatuta dagoen bitartean, Interneten Kataluniako berri ukan dugu. CAT domeinua eskuratzear dute —horrela erabaki du nazioarteko ICANN elkarteak— eta katalaneraz eta hango kulturaren inguruan aritzen diren ekimen, elkarte, enpresa eta erakundeek .cat domeinuarekin funtzionatzeko aukera izango dute. Lorpen linguistiko-kulturala da. Herri baten lorpena, azken finean.

Eta berriz ere Carod Rovira guztiak berbaz hasi zaizkigu. Adituak sortu dira nahinon, eta Euskal Herrian gure domeinua lortzearen alde, ekimen bakarra egon da azken hamar urteotan, mutil bakar batek eramandakoa. Lotsagarria ez balitz, kontatzekoa litzateke.

Sasoian gaude oraindik, antolatu, pentsatu, hausnartu eta mahai bat osa genezake. Plan bat idatzi gero. Estrategikoa bada hobeto. Eragileekin kontsultatu gero. Herri ekimena antolatu. Bonoak saldu. Gasteizko gobernuari aurkeztu. Horrela gobernuak beste zerbait proposatuko du, eta domeinu bat ez, bi ukango ditugu euskaldunok Interneten. Polita ezta? Lotsagarria ez balitz. ¶



**JAKiN**

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943.21.80.92  
Fax. 943.21.82.07  
[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)